

BERRIGARA

JARDUN ELKARTEA



BERGARA

1.992ko ABENDUA



URTE KARIA

1.992



Guipuzcoanon euskara aurretik

BANCO




**Gipuzkoa:
bihotz-bihotzean**



Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**. Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren, ohiturarik errotuenen alde. Gure jende guztiaren alde. Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa

caja gipuzkoa
san sebastián

B I URTE T'ERDI eskas dira Bergaran euskara eta euskal kultura bultzatzeko asmoz JARDUN elkartea sortu zenetik. Jardunen sorreratik sei hilabetera ikusi zuen BERRIGARAREN lehen aleak argia. Horrez gero, 89 astetan izan gara zuekin ostiraleroko zitan.

Ez genuen beti asmatuko. Badakigu hori. Baina Berrigara egiten dugun guztiongan beti egon da asmo eta ilusio bat gauzak gero eta hobeto egiteko. Ilusio horien frutu da eskutetan duzun URTEKARIA 92 liburu hau. Bertan urtean zehar herrian izan diren albiste nagusienak biltzen saiatu gara, alde batetik, eta, bestetik, Bergarako kultur, kirol eta gizarte bizitzan protagonista izan diren taldeen berri zehatza dakarkizuegu. Guzti hori herrian pil-pilean egon diren hainbat gairi buruzko eritziekin batera.

Zure gustokoa izatea espero dugu eta gaurtik agintzen dizugu asmo sendoa dugula hemendik urtebetera

ere zurekin izateko.

Baina ez genuke sarrera hau bukatu nahi honaino iristea ahalbideratu duen jende pila haundiari gure eskerrik beroenak agertu gabe.

Lehenengo eta behin, astez aste Berrigararen moldaketan parte hartu duten kazetari, erredakzio kontseiluko kide, kolaboratzaile, hizkuntza, zuzentzaile, komikilari eta marrazkilari, banatzaile, publizista, administrari, etab.ei.


Bigarrenik, Jarduneko bazkide guztiei proiektu honi eman dioten babesagatik.

Hirugarrenik, Bergarako Udalarri hasiera-hasieratik asmoa bultzatu duelako.

Laugarrenik, Bergarako merkatarri guztiei beren babes eta konfidantza osoa eskaini digutelako.

Eta bosgarrenik, baina ez azkenik, zuri irakurle egin diguzun harreragatik, zure albisteak eta erretratuak ekarriz, lehiaketetan parte hartuz zein Kultur Etxeko satora etorritz, eman dizkiguzun animoengatik. Guztioi eskerrik asko.

JARDUNEKO ZUZENDARITZA BATZORDEA



BERRIGARA URTEKARIA 92.

ARGITARATZAILEA: Jardun Elkartea. Errotalde Jauregia, 20570 Bergara (Gipuzkoa). Tfnoa eta faxa: 76 03 97. **BABESLEA:** Bergarako Udala. **LAGUNTZAILEA:** Eusko Jaurlaritza.

ERREDAKZIOA: Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil, Mikel Elkoroberezibar, Monika Belastegi. **ERREDAKZIO KONTSEILUA:** Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Iñaki Eraña, Gorka Elorza. **MAKETAZIOA:** Eneko Azkarate. **PUBLIZITATEA:** Alex Azkarate, Gorka Elorza. **KOLABORATZAILEAK:** Estepan Plazaola, Silvia Sanz, Ainhoa Arbelaitz, Maripi Laskurain, Nerea Alzela, Edurne Arenaza, Martin Garitano, Iñigo Urrutia, Beñardo Kortabarria, Jon Altuna, Antonio Urzelai, Marta Moral, Joxe Lazkano, Eusebio Osa, Juan Antonio Migura, Juan Luis Bikuña, Josu Oregi, Ane Miren Lizarralde, Arantzazu Loidi, Joseba Lezeta, Juan Martin Elexpuru. **MARRAZKIAK:** Josu Okina, Antonio Arrillaga.

ARGAZKIAK: **Portadakoak:** Benito Cantero. **Barrukoak:** Jabier Areitio, Pedro Martin, Kiñu, Foto Sistema, Dani Santos, Pol-Pol Argazki Taldea, Berrigara.


ARGAZKI LABORATEGIA: Pol-Pol Argazki Taldea. **IMPRIMATEGIA:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati) **COPYRIGHT:** Berrigara. TIRADA: 2.000 ale. **LEGE-GORDAILUA:** SS 50/91. **ISSN:** 1130-6599.

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen liburu honetan adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. **PREZIOA:** 1.000 pzt.



Irargi

Euskadiko dokumental
Ondarearen Zentrua



Eusko Jaurlaritsa
TURISMO ETA KULTURA SAILA

ORRIZ-ORRI

1. PORTADA
2. PUBLIZITATEA
3. AGURRA
4. PUBLIZITATEA
5. AURKIBIDEA
6. URTEKO BERRIAK
30. URTEKO AHOPEKOAK
34. URTEURRENAK
35. PUBLIZITATEA
36. URTEURRENAK
37. ESTATISTIKAK
48. MAHAINGURUA
57. PUBLIZITATEA
58. BERTAKO EUSKERAN
62. KIROLAK
93. PUBLIZITATEA
94. MAHAINGURUA
105. INKESTA
106. PUBLIZITATEA
107. INKESTA
108. KULTURA
115. PUBLIZITATEA
116. KULTURA
134. ERRETRATU ZAHARRA
137. PUBLIZITATEA
138. ERRETRATU ZAHARRA
139. PUBLIZITATEA
140. KONTRAPORTADA

URTEAN
GERTATUTAKO
NOTIZIA
NABARMENENAK
FIRMA
OSPETSUENEN
KOMENTARIOEKIN.



6

URTEKO BERRIAK

BI GAI: HERRIKO
ESTETIKA ETA
EKOLOGIA, ETA
KRISI
INDUSTRIALAREN
ERAGINA
BERGARAN.



48

MAHAINGURUAK

92AK KIROL
MAILAN
BERGARAN EMAN
DUENA.
BERGARAN DIREN
KIROL TALDE
GUZTIEN
ARGAZKIAK.



62

KIROLAK

KULTURA MAILAN
AURTEN GURE
HERRIAN NOTIZIA
IZAN DENA.
KULTUR TALDE
GUZTIAK
ARGAZKITAN
BILDURIK.



108

KULTURA

BERRIAK



URTEKO BERRIAK

1.992an gure herrian gertatutako notiziarik aipagarrienak

URTEKO AHOPEKO ETA URTEURRENAK

A maitzear dagoen 1992 hau amets goxoen urtea izatetik azkenengo hamarkada hauetako latzena izatera pasa dela deritzot. Europear batasunaren urtea, krisialdia gaindituko genuen urtea... Zenbat amets joan zaizkigun pikutara!

Europako estatu sendoekin bat egitean aberatsen mahaira deituak ginela uste zutenek, AHV, ACENOR edota MAYCeko langileei galdetzea besterik ez dute errealitate krudel eta gordinarekin topo egiteko.

Amerikar indioen jenezidioaren bostehungarren urteurrenak historiaren irakurketa serio eta herri aurrerakoienekin behin betiko homologazioa ekarriko zigula uste zutenek xenofobiaren azken islada basatiak ikustean gauzak zeuden legez daudelan ohartuko zirelakoan nago.

EXPO, Olinpiadak eta AVE delakoak espanyolentzat soilik ez, euskaldunontzat ere aurre-
rapausorik emateko lagungarri izango zitzaizkigula amesten

HAMARKADAKO URTERIK LATZENA



Martin GARITANO

EGINeko Bilboko
delegazioko arduraduna

IKUSPUNTUA

"Alper alperrik igaro dugun 1992. hau benetan gure arazo guztiei aurre egingo diegun urtearen aurrekoa izan dadila. Betor 1993 hobeago!"

zutenek ere muturreko ederra hartu behar izan dute. Bartzelonatik lau medalla petral baino ez dugu ekarri; Sevillan diru mordo alper alperrik gastatu ondoren, Euskal Komunitateko etxea pezeta mixerable baten truke bertan utzi behar izan dugu eta AVE delako horrek ez omen du gure lurralde hauetatik ezta bisita labur bat egiteko asmorik.

Azkenik, 1992. honetan askatasuna eta pakea lortzea espero eta desio genuenok baldakada bat ur hotz baino gehiago jaso izan dugu. Bai horixe!

Gure aldamenera begiratu besterik ez dago abendu triste honetan. Ez da pakerik gure herrian, ezta ingurukoetan ere. Jakina da ez dela askatasunik gabeko pakerik izango ezta pakerik gabeko askatasunik ere. Ez da, beraz, behar beste askatasun gure Euskal Herri maitagarrian.


Alper alperrik igaro dugun 1992. hau benetan gure arazo guztiei aurre egingo diegun urtearen aurrekoa izan dadila. Betor 1993 hobeago!

Esan zuten



JUSTO GARATE
Medikua eta ikerlaria

"Madrilen Euskal Herriko Lagunen Batzarra sortu genuen hamar lagunek: Caro Baroja, García de Diego eta Areilzak besteak beste. Eskutitz bat bidali diot taldeari Gobernuari eska diezaioten Bergara Kultur Hiri izenda dezatela"



IGNACIO ERCE
MAYCeko gerentea

"CANDYk gure enpresaren zati haundiena erosi badu, orain arteko eginkizunarekin jarraitzeko asmoarekin izan da, European konpetitibo izateko, alegia"



A.VEGA
"Mito"
Angiozarko eskolako irakaslea

"Herri txikietan ikastetxe masifikatuetan baino heziketa aberatsagoa ematen da"



Mayc italiarren eskuetan

CANDY multinazionalak erosi zuen enpresa bergararra

Linea zuriko sektorean punta-puntan dagoen CANDY italiar multinazionalak aurrekontratu bat sinatu zuen urtarrilaren 16an Jaurlearitzaren onspenez OTSEIN talde gipuzkoarrarekin berau osatzen duten bi entitateen gehiengoa eskuratzeko.

MAYC, 1.941.etik garbigailuak egiten aritua eta Estatu mailan aintzindari izan den enpresa, krisialdi sakonean murgilduta aurkitu izan da azken urteetan, baina CANDY enpresarekin batze honek etorkizunean garapena suposatuko ziola uste zen. MAYCeko sindikatuak baikor baina zalantzekin agertu ziren operazioaren aurrean.



Gartzela zaharra berrizturik

inauguratu zen urtarrilaren 24ean ia bi urte berregokitze lanetan egon ondoren. Gartzela barrua, patioa, 16 zelda, bobeda eta kanpokaldea berriztu ziren. Sabino Martiarturen zuzendaritzapean, lanak Lanbide Eskolako 40 ikaslek burutu zituzten.

Fatxaden garbiketak

milioi t'erdi inguru kosta izan ziren. Legazpiko Garbile enpresak egindako garbiketaz gain, 91ko azken 3 hilabeteetan hainbat kartel eta pankarta kendu zituen Udaltzaingoak kaleetatik. Garbiketaren lehen fasea amaituta 2. bati hasteko asmoa agertu zuen Udalak, pintada berriak ezabatzeko.



Protagonistak

TXINPARTAK

- ✓ **1-4:** Anizeta Agirre Elkoroiturbe "**Bergarako Amona**" hil egin zen 103 urte zituela.
- ✓ **1-5:** Errege bezperan **Udaletxeko harmarria** pinturaz zikindu zuten ezezagun batzuk. Bergarako Udalak salatu egin zuen eraso.
- ✓ **1-17:** **Bergarako auzoak** urtarrilean hasi ziren euren jaiak ospatzen. San Antongoak izan ziren lehenengoak.
- ✓ **1-21:** Maria Eugenia Grazia, Jose Luis Loidi "Rosli", Pedro Belastegi, Maite Guridi eta Bittore Aierbe **preso bergararrak** epaitu zituzten Madrileko Audientzia Nazionalean. Maria Eugeniak 23 urteko gartzela zigorra jaso zuen eta beste laurek 6 urtekoa.
- ✓ **1-24:** Arratsaldeko ordu biak aldera **elurra** egiten hasi zen, urteko lehen elur malutak. Handik pare bat ordutara inguruko mendiak eta herriko kaleak zuri-zuri genituen.
- ✓ **1-31:** Ertainetako ikastetxeek **Santo Tomas** eta **San Juan Bosco** eguna ospatu zuten.

Kapitalak ez dauka aberririk

Mirarien urtea lainotsua hasi genuen, batez ere ekonomia mailan. Candy multinazionalaren sarrera MAYCen bazirudien onerako izango zela, baina, tira, errez ahazten dugu kanpotik datorren kapitalak erreztasun berdinarekin hanka egin dezakeela, eta bestela begira zer gertatzen ari den: KIOren kapitalak ez omen dauka aberririk eta egoera ona ala txarra ikusi bezain laister etorri ala joan egiten du. Bost axola zaio gizainguruko egoera. Etxeko ekonomian, mikroekonomian alegia, krisia bizpahiru ur-

te lehenago argi somatzen genuen, baina Solchagaren mezu-a kontrakoa zen: "kanpoko kapitalak zatozte guregana, hemen arrainak eta ogia bezala ugalduko dira; eta etxekook jota-fuego dituzuen ogerlekoak gatzatera".

Beno, dagoeneko pasa da urtea, kapital espekulatiboek ihes egin dute eta krisiaren oinarri guztia soldaten arabera bakarrik irakur daiteke. Pais!!




IÑIGO URRUTIA Kazetaria



Iñaki Irizar

25 urteko biologo bergararra Leitzarango autobidearen auzian irtenbide kontsentsuatu negoziatzeko sortu zen Lurraldeako Ekologi eta Gizarte Aholkurako Batzordekide izendatu zuten.



Agustin Badiola

Bergarako Aritzeta Abesbatzako Zuzendaritza Batzordean izandako aldaketen ondorioz, 31 urteko Plazentziar hau Lehendakari izendatua izan zen.



Eli Payros

Albaitaritza ikasketak burutu dituen 26 urteko bergararra kontratatu zuen Bergarako Udalak, Euskararen Erabilpena Bultzatzeko Hitzarmenaren jarraipenez arduratzeko.

Esan zuten




**ALVARO
ESPARZA**
EEko
zinegotzia

"EEK eta PSOEek badute gauza amankomunik, eta zenbait gaitan elkarlanerako bideak irekitzea komeni zaigu bioi. Horrek ez du esan nahi bi partiduok bat egingo dugunik".

**MIGUEL
GONZALEZ
BASTIDA**
Musika
Bandako
zuzendari
ohia



"Alfredo Gonzalezen aita izanda, harro nago herrian daukagun musika taldeengatik. Musika Eskola lan ederra egiten ari da gazteekin".



**VICTORIANO
GALLASTEGI**
Bergarako
alkatea

"Bi gauza ezberdinak dira autobidea eta aurrekontuak. Aurtengo presupuestoak onartu behar dira lehenengo, eta autobidearen auzia ezin daiteke presupuestoekin nahastu".



Herriko erreken garbiketa

2 milioi Bergarako errekatxoak eskuz garbitzeko

Gipuzkoako Diputazioak, Tragsa enpresaren bitartez, Bergarako errekatxoak garbitzeko lanak burutu zituen otsailean zehar. 2 milioi inguruko aurrekontua izan zuten garbitze lan hauek. Batez ere zabor solidoak kendu ziren, erreketako landaretza errespetatuz. Lanak makineriarik erabili gabe egin ziren, eskuz.

Inausketa Bideberrin.

Udaleko Ingurugiro Batzordeak Bide-Berriko indi-gaztainondoen inausketa lanak burutu zituen. Adar printzipala mantenduz, Udalak kontrataturiko Abadinoko Parques y Jardines enpresak ustelduta edota usteltzeko bidean ziren adarrak kendu zituen. Lanen aurrekontua 550.000 pzta.takoa izan zen.



TXINPARTAK

- ✓ **2-1:** Herriko **iturkinek** euren eguna ospatu zuten 35 lagun inguru bildu zirelarik.
- ✓ **2-2:** Carmen Unamuno eta Juanito Irizarrek beren ezkontzaren **50. urteurrena** ospatu zuten.
- ✓ **2-3:** Egun honetan amáitu zen Jai Batzordeak karnabaletarako antolatu zuen kartel lehiaketara aurkezteko epea. Irabazlea **Dani Laskurain** pintore bergararra izan zen.
- ✓ **2-4: Santa Ageda** bezperan Bergarako hainbat ikastetxetako ikasleak kalera atera ziren kantuan, diru eske, ohitura den legez.
- ✓ **2-8: Ur zikinen tuberia** itxi zelako ur pila galanta sartu zen Eroski eta ondoko garajeetan. Urak 15 zm.tako altuera hartu zuen.
- ✓ **2-15: Impreci** enpresako jubilatua eta jubilatzeke daudenak, bazkaltzeko bildu ziren Oilagorra Elkarteetan. Denetara, 25 lagun inguru elkartu ziren.
- ✓ **2-22:** Gorla inguruan **Zuhaitz Eguna** ospatu zen, bertan 40 bat gaztetxok jardun zutelarik zuhaitzak landatzen.

Izen gorrotagarria

Otsaileko hemerrotekari egindako begirada azkarrean, izen ugari: gustora gogoratze-koak batzuk, Iñigo Igartua edo Zezeaga pilotariak kasu; neutraltasun osoz irakur eta ezer esaten ez didaten beste asko, Osintxuko bariantea, barrera arkitektonikoak, La Vergaresa..., gazteagoa izandakoa naizela gogorazten didan Santa Ageda bezpera... eta irakurtzen dudan bakoitzean amorruta sentiarazten didan bat: Salto del Negro.

Aurretik ere entzuna nuen

behin baino gehiagotan, eta otsaileko egunkariak begien aurrean jarri zidatenean, ez nuen uste izen madarikatu hori hain gorrotagarri bihurtuko zitzaizkidan. Orduetik, egun luze zein neketsu eta beltzez, zoritxarrezko protagonista bilakatu da. Lerro hauek idazterakoan, Salto del Negroko euskal presoak, bizi ahal izateko, berriro gose-greban daude. Dagoeneko 20 egun baino gehiago.



BEÑARDO KORTABARRIA Kazetaria

Protagonistak



Ixaso Azkarate

29 urteko bergarar aktorea Trapu Zaharra antzerki taldeak prestatu eta Tolosan hilaren 7an estreinatu zen "Oido Cocina" antzezlaneari parte hartu zuen.



Agurtzane Loidi

Antzuolako ELAY enpresan langilegoa euskalduntzeko hasi zuten plangintza pilotoko monitorea dugu otsailetik, 24 urteko bergarar hau.



Simon Arrieta


Bergarar pintore ospetsua hil zeneko 23. urtemuga otsailaren 15ean bete zen. 1.915eko otsailaren 9an jaioa, 15 urte zituela ekin zen pintura lantzen Zuloaga bezalako pintore ospetsuen eskutik.

Esan zuten




M. JOSE MONDRAGON
Bergarako Institutoko irakaslea

"Emakumeak eta gizonezkoak ezberdinak gara, eta gehiago esango nuke, emakumeak hobeak gara".



XABIER ARANBURU
Bergarako museologoa

"Bergarara etortzen zarenean berehala konturatzen zara herri honek historia oso aberatsa izan duela, herri honen hondarea oso aberatsa dela".



KOLDO LASA
Sukaldaria

"Sukaldaritzaren berezitasuna da eta sukaldaria, berriz, kimika laborategia, produktu naturalak erabiltzen dituen laborategia".



Jubilatuen egoitzan obrak

Hil bukaeran hasi ziren 30 milioitako aurrekontuarekin

Martxo bukaeran hasi ziren Jubilatuen egoitza haunditzeko lanak. 30 milioi pzt. tako aurrekontuarekin, besteak beste, taberna haunditu, biltegitxo bat eraiki eta bolatoki berria egiteari ekin zion Contruccionen ORBE S.L. enpresak. Proiektuaren lanik garrantzitsuenak, barrukaldean egin beharreko igogailu hidraulikoa.



Udaletxea Aroztegi etxean

Berrikuntza lanak direla eta Udal bulegoak Barrenkalen

Udaletxeko berriztapen lanak hasteko, Barrenkaleko Aroztegi etxera pasatu ziren martxo bukaeran, Udaleko hainbat zerbitzu, hala nola, Alkatetza, Idazkaritza, kontuhartzaitza eta Udaltzaingoa. Lanak, urrian hasi eta bi urtetan burutuko dira.

TXINPARTAK

- ✓ **3-1: Pol-Polen 50. urteurrena** ospatzeko Mendia Bizirik taldekoek 500 zuhaitz eta zuhamuska landatu zituzten Bolu eta San Blas arteko trenbidearen bazterrak eutsi eta osatzeko asmoarekin.
- ✓ **3-6:** Bergarako Udalak atzera bota zuen Kanarietako **Salto del Negro** espetxean dauden euskal presoen egoera salatzeko Senideak-ek aurkeztutako mozioa
- ✓ **3-10: Justo Garate** jaio zeneko Barrenkaleko 27. zenbakiko etxearen atarian plaka berri bat jarri zen. Udalak orain arte zegoena ez zela ondo ikusten eta Justo omendu nahian hartu zuen erabaki hori.
- ✓ **3-11: "Antena 3"** irrati katearen tertulia gastronomikoa Lasa ostatuko jantokian grabatu zen. Besteak beste, Josetxo Lizartza, Iñaki Irazusta EXPOko Euskal Pabildiaren arduraduna eta hainbat kritiko gastronomiko izan ziren.
- ✓ **3-18: Jubilatuen egoitzan** 1.992an 88-89 urte betetzen dituzten bergararrei omenaldia eskeini zitzairen.
- ✓ **3-29: Elizamendiko Anuntziario Ama Birjinaren jaia** ospatu zen Angiozarreko auzo horretan. Eguerdian meza eman zen eta Sabin Azkue apaizak bildutako umeak bedeinkatu zituen.

Nobentaidosa

Badoiala 92 famosua, eta nik "nobentaidos" irakurtzen dot hitz hori hainbestetan entzun izan bait dogu aurtenguan. Izan be, "España"rentzat urte inportantia izan da. 1492 geroztik hainbat urtetan Amerikako indixuen aurka eindako erasuak ahaztu ezezik ospatu be ein dittuzte.

Euskaldunak omen ga Europako indixuak eta askotan orduan haiek bezala tratatzen gaituzte. Salto del Negroko espetxian "Panti" gose greban zeuan martxuan. Kartzelan egoera


beltza da, bere izena baino beltzagua agian. Eta presuek bizirik jarraizeko gose greba ein behar izan dabe berriz be urte amaieran. Kontraesana badirudi ere hola da.

Betikua, nobentaidosaren ondoren dator larogeita hamairua, European gu sartu baino, Europak inbadituko gaittuen urtia. Aurtengua baino hobia izan deilla.



JON ALTUNA Kazetaria

Protagonistak




Eusebio Osa

Gasteizko Majisteritza Eskolako Kadedratiko izendatu zuten 55 urteko bergarar hau, Euskararen Morfosintaxia katedrarako lehiaketan proba guztiak "egokiro" gainditu ondoren.



Balentin Gabilondo

26 urte, elosuarra. Gipuzkoako EHNEko presidente berria izendatu zuen nekazarien elkarteko batzarrak.



German Muruamendiaraz

28 urteko bergararrak HBko zinegotzi kargua zin egin zuen martxoaren 7an egindako ezohizko plenoan, Jose Luis Irazabal ordezkatzuz.

Esan zuten



**DONATO
IBARGUREN**
Goi Auzoko
Zaldumerndi
baserrikoa

"Gaur egungo Erramu Zapatuko feria artifizial xamarra da".



**JOSE MARI
BORJA**
Nekazal
Bulegoko
arduraduna

"Gaur egungo Erramu Zapatuko Feria kaletarrentzat pentsatua da. Testimonio hutsa da, ekintza folklorikoa".



FELIX BEITIA
Jai
Batzordeko
kidea

"Jaiak etortzen direnean lana egiteko gogorik ez du inork edukitzen, betiko lau katuak ibiltzen gara. Jaiak kuadrilarekin disfrutatzeke aukerarik ez dut sekula santan izan".



Erramu zapatuko feria

Apirilaren 11n, inguruko baserrietako ganadua bildu zuen

Erramu Zapatuko feria, aurreko urteetan baino arrakastatsua gertatu zen. Iazko ferian izurrite baten ondorioz falta zen ganaduak ez zuen hutsik egin aurtan. Artisauak, ezti produktoreak, ardiek, behiek, hegaztiak eta nekazal makineria saltzaileak feria bete eta goiz eguzkitsua alaitu zuten.

TXINPARTAK

- ✓ **4-2: "Bergararrak pakearen alde"** kolektiboak jende aurreko lehen agerraldia egin zuen, egun batzu lehenago izandako atentatuaren aurka isileko protesta egiteko.
- ✓ **4-6: Ibigarai kalea** asfaltatzeko lanak hasi ziren. 11 milioi pza.ko aurrerontuarekin, Etxepare-Bilintx liburutegi parean hasi eta Beheko Estaziorainoko zorua konpondu zen.
- ✓ **4-12:** Bergarako EAJk **Serafin Esnaola, Jesus Mari Zamora** eta **Juan Arretxe** apaizak omendu zituen.
- ✓ **4-21: Pedro Zumelaga** bergararrari 3 urtez preso egon ondoren ongo etorria eskeini zioten San Martin Plazan bildutako 200 bat herritarrek.
- ✓ **4-25: 45eko kintoek** beraien eguna ospatu zuten. Eguerdiko ordu batetan meza entzun eta ondoren, Gasparrenean bazkaria izan zuten.

Protagonistak



Polizi legearen aurka

Udaltzainek protesta ekintzak egin zituzten

Udaleko Enpresa Batzordeak Eusko Legebiltzarra lantzen ari zen Polizi Legearen aurkako jarrera azaldu zuen San Martin Plazan eginiko konzentrazioetan. Polizi Legearen kontra azaltzerakoan, besteak beste, honako arrazoi hauek azaldu zituzten: "Udaltzainen eskubideen galtzea, militarismoa, zentralismoa, etab".

Herriko jairik sonatuenetakoa

Erramu Zapatuko Feria, herriko jairik sonatuenetakotzat bergararrok betidanik ezagutu dugunez gero, gerla aurreko hirulau hamarkadatan egun hau nolakoa zen agertuko dizuet labur-labur.

Bidebarritik hasi, feritokitik zehar frontoiarekin topo eginaz, batetik; Santa Marinako zubi ertzetik Gaspar tabernaraino, bestetik; jendez, ganaduz, tresnaz eta saltzaile-eroslez gainezka ikus zitekeen.

Bertako ikusgairik garrantzitsuenak: abereen artean idi bikoteak gehienbat, gaur zentzugabekeria irizten bazaigu ere; orduko lurgintzagailuak: golda,

are, burdinare... Saltzaile berri-txuak (Leon Salvador batipat), bertso kanta saltzaileak, etab. Ezagutu nuenetako batek esku mutur biak moztuta zituen.

Orduko feriak, arratsaldean zuen bilgune eta berotasunik haundiena. Amaieran, ohitura eder hau, ospakizun orokor bezala: afari merienda, lagun artean, giro onean, jangairik aukeratuena arkume errea zelarik. Biltzar honetara inork ez zuen hutsik egiten. Gero, gerokoak!!



ANTONIO URZELAI Idazlea



Maria Dolores Lete

44 urteko bergararra, Udal Euskaltegiko behin behineko zuzendari izendatu zuten Aste Santuan. Majisteritzan, Euskal Filologia adarrean, diplomatua da.



Miren Azkarate


Aita bergararra duen 43 urteko donostiar filologoak, Aita Barandiaranek Euskaltzaindian utzitako lekua bete zuen. EUTG eta EHuko irakaslea da.



Arantzazu Loidi

Zorroagan Pedagogian lizentziatutako 28 urteko bergarar honek eskuratu zuen Udalak lehiaketa publikora atera zuen Drogomenpekotasunen Prebentziorako teknikari postua.

Esan zuten



KRUZ GALLASTEGI
Bergara
K.E.ko futbol
taldeetako
masailari...

"Elkartean tesorero eta presidente lanak izan ezik, beste guztiak egin izan ditut".



ANA ETXANIZ
Estetiziena

"Eguzkitara joatea baino seguruagoak dira solariumak. Hauetan, behintzat, zer izpi moeta hartzen dugun eta zenbat denbora egon behar dugun badakigu".



ENEKO OREGI
Arabako
Hezkuntza
Ordezkar
izandakoa

"Gogoratu behar da irakasle erdaldun gehienek Araban elebitasunaren aldeko apostua egin dutela".

TXINPARTAK

- ✓ **5-7: Kultur Etxeak**, zabaldu zeneko 3. urtea bete zuen.
- ✓ **5-9: 1.942. urtean jaiotako bergarrek** mundu honetan mende erdia pasa izana ospatu zuten.
- ✓ **5-13: Kanpoko igerilekuetako berdegunea** zabaldu zen, herritarrek eguzkia hartzeko aukera izan zezaten.
- ✓ **5-17: Lehenengo jaunartzeak** ospatu ziren Santa Marina zein San Pedroko parroketan. Guztira 75 neska-mutil.
- ✓ **5-23: Ezezagun batzuk** telefono kabinak apurtu, autobus urbanoetan pintadak egin eta Banco de Vitorian zenbait triskantza egin zituzten, Panti preso bergararraren egoerarengatik protestatzeko.
- ✓ **5-25: Udal Gobernu Batzarrak** astean zehar gertatutako ekintza biolentoak gaitzetsi zituen.
- ✓ **5-25: Epaitegietara** jaurtitako koktel batek kalte ugari sortarazi zituen 2. epaitegian.
- ✓ **5-27: Solchagaren dekretazoaren aurka** protestatzeko ELA, LAB eta CCOOek Euskal Herri osoan konbokatu eta UGTK lagundutako **Greba Orokorrak** erabateko arrakasta izan zuen gure herrian.

5 - 27: Top-less eguna

Maiatzaren 27a egun arrarua izan zan. Gorputzeko gihar guztiek deskantsua euki zeben, bihotzak ezik, honek ordu extrak ein zituen da.

Hilabeteko burruka politiko eta sindikala bertan behera lagatziak erakusten dau, gipuzkoarrok ez dogula konpromisurik guregan hartzen, eta eskolako umiak eitxen daben moduan txarritxan ein giñuen euzkixa hartzeko.

Egun hontaz akordatzen nai-


zenezan, "top-less" egun baten moduan etortzen jat burura, zerbaitx erakusten dau, baina ez bete. Zelako urriñ eta zelako getu geratu zan 1.988ko amorrual!

Gobernu hau ixa iñork ez dau gogor estutzen, eta 93rako gutxi falta jakunian ondorioak aguantatzen bizi ga.




MARTA MORAL Kazetaria

Protagonistak



Agustin Toledo

Gijonen jokaturako Gutxitu Fisikoen Espainiako atletismo txapelketan parte hartu zuen. Pisu jaurtiketa proban dominaren bila aritu zen.




J. L. K. "Kaxeta"

Lokatzako presidentea, antzuolarra. Txirrindulari elkartearen 92rako asmoak presentatu zituen. Garrantzitsuena, Euskal Bizikletaren etapa bat Bergarara ekartzea.



Jose Luis Berraondo

45 urteko bergararrak omenaldi beroa jaso zuen Musika Eskolak antolatzen duen Udaberriko Kontzertuan, eskolako presidente bezala egindako lanarengatik.



Buesaren aurka

Aranzadi ikastolak sinadura bilketari ekin zion

Maiatzaren 26an emandako prentsaurrekoan, Andoni Etxeberria Aranzadi Ikastolako zuzendariak eta Aitor Eraña Erretore Kontseiluko lehendakariak, ikastetxe honek Buesa Hezkuntza sailburua bere kargutik kentzeko hasi zuen kanpainaren berri eman zuen. Aranzadi ikastolak, ikastolen Federakundearekin batera, sinadura bilketari ekin zion, *"Buesak euskara eta euskal kulturaren inguruko guztiaren kontra eginiko adierazpenengatik protestatzeko eta lebedakariari kontseilari sozialista bere kargutik kentzea eskatzeko"*.



92ko aurrekontuak

onartu zituen Bergarako Udalbatzak maiatzaren 25ean eginiko osoko bilkuran. HB eta EAren onespina jaso ez arren, EAJ, PSOE eta EEren botuak nahikoak izan ziren 1.860 milioitako presupuestoa aurrera ateratzeko.



Senideak

taldeak hainbat enkartelada burtutu zituen maiatzean zehar, El Salto del Negro espetxean preso dagoen Panti bergararraren osasun egoerarengatik protestatzeko. Pantik hilabete pasatxo eman zuen gose greban eta egun batzuk egarri greban, kanarietako espetxean bizi duten egoera salatzeko eta euren giza eskubideak aldarrikatzeko.

Esan zuten



RAMON AMASORRAIN
Musika Eskolako Presidentea

"Instrumento bat ikasi, musika disfrutatu, hezkuntza zabaldu eta bitzitza alaitu, hau da Musika Eskolaren eginkizuna".



LUIS LARRAÑAGA
"Kikio"
pertsonaia herrikoa

"Hemen neu hasi nintzen tiroles kantuekin, EGAN eta horiek ni baino beranduago hasi ziren".



DAMASO GALLASTEGI
Irakaslea eta mendizalea

"Abentura maite dugunok eta eskalatzen edo bidaiatzen gabiltzanok umeengandik hurbilago gaude eta errezago konprenitzen ditugu".

TXINPARTAK

- ✓ **6-5:** Bitorianatxoren jeitsierarekin **Bergarako jaiei hasiera** eman zitzaien.
- ✓ **6-6:** Antzuolar batzuek **Bitorianatxo bahitu** zuten Udaletxeko Pleno Aretotik. Udaltzainek, udaletxe bertako kutxa batetan gordeta aurkitu zuten hurrengo egunean.
- ✓ **6-9:** **Jaiei amaiera** eman zitzaien Bitorianatxoren igoerarekin.
- ✓ **5-12:** JARDUN Elkarteak antolatutako **bertso afaria** ospatu zen Angiozarko Pagomendi elkartearen, Mikel Mendizabal eta Millan Telleria bertsolarien partaidetzarekin.
- ✓ **6-13:** Gipuzkoa osotik etorritako **400 bat gutxitu sikiko** bildu ziren Altzasun kolektibo honen eguna ospatzeko.
- ✓ **6-18 eta 19:** **Selektibitate azterketa** egin zuten kiroldegian, Deba Garaiko 400 bat ikaslek. Bergarako 84k egin zuten azterketa eta 77k gainditu.
- ✓ **6-28:** **Haurren Euskal Jaia** ospatu zen herria dantzariz bete zelarik.
- ✓ **6-28:** **kanpoko pizinak ireki** ziren, bertan hainbat berrikuntza egin ondoren.

Bitorianatxo gaixua

Premisatxo bat hasteko: mundu hontan beti egon die majaderuak. Kontua zatartu itxen da majadero kuadrilla hori alburan tokau ezkerre, Sanantoniotik gertu gure kasuan, eta munduan dien errespetu forma minimoak ezpaitxuzte ezagutu be itxen.

Egixa esan danak ez tie igualak, han be danerako jendia egongo da; baina argi daona zera da: oindiokan kriston konpleju mordua daukela: auzo konple-

jua, moro konplejua, euskaldun konplejua, kirolari konplejua...

Baina lasai, denbora eta pazientziakin dana sendatzen da ta. Dana dala, hurrengorako be, prestau zeoze, jaixetako programa pobre xamarra izaten da ta.



JOXE LAZKANO Irakaslea

Protagonistak



Bergarako jaiak euripean

Eguraldi txarrarekin eta normaltasunez ospatu genituen


Alkateak ikurriña udaletxeko balkoian jartzearekin eta Bitorianatxoren jeitxierarekin eman zitzairen hasiera hilaren 5ean, aurtengo pazko jaiei. Eguraldi kaxkarrak gehiegi lagundu ez bazuen ere, jende ugari ibili zen kalean. Normaltasuna nagusi izan zen, hala ere, anekdota moduan, antzuolarrek eginiko Bitorianatxoren bahiketa.



Deba ibaiak gainezka egin

Hilaren azken egunetako eurijasek kalteak eragin zituzten

Ekainaren 24ean, eurijasa haundiek eraginda, Deba ibaiak gainezka egin zuen Ibaiondo kalean, Osintxun eta Elorregin (San Priudentzioko bidegurutzean). Zenbait tokitan trafikoa eten egin behar izan zen. Kalte haundienak Ibaiondo kaleko hainbat garajetan izan ziren eta Lasai-Toki elkartearen, esaterako, ura mostradoreraino iritsi zen.




Juan Balentziaga

32 urteko margolari bergararrak Estatu mailan antolatutako gutxituen margo lehiakataren bigarren edizioan Euskadiko lanen artean lehen saria irabazi zuen.



Iñigo Ramirez

Irakasle Eskolako 33 urteko antzuolarra, Bergarako geografia, historia, artea eta etnografia bilduko dituen liburua idazten hasi zen Udalak eskatuta.



Benito Cantero

Pol-Pol Argazki Taldeko 31 urteko bergararrak Bergara Hiria Argazki Lehiaketan lehen saria jaso zuen. Bestalde, Estatu mailan konbokatutako Planeta Argazki Sariketako finalista dugu.

Esan zuten




ANDRES OSA
"SAKONA"
Herri
Kiroletako
kazetaria

"Euskal Kirol guztiak indarraren eta ez kultura edo heziketaren erakusgarri dira".



**IRENE
AGIRRE**
Musika
Eskolako
Idazkaria

"Iaz sinatu zen Euskararen hitzarmena oso ondo dago, modu egokian eginga eta Bergarako taldeok gure artean behinik-behin euskara erabili dezagun".



**PEDRO LUIS
ORMAZABAL**
Argazkilaria

"Boiseko alkateak, Idaho (EEBB) Euskal Herriko zortzigarren probintzia zela esan zidan behin".



Samartzialak lokatzetan

Euri zaparrada etengabeei umorez erantzun zien herriak

Euriak ezin izan zuen uztaileen 5ean ospatu zen Samartzial eguneko ospakizunarekin. Kuadrila gehienek euren mahaiak eta plastikozko estalkiak jarri eta aguraldi txarrari aurre egin zieten. Beste batzuk, ordea, etxean edota elkarteetan babestu ziren. Euriak zelaia erabat lokatu zuen eta sokatira eta txinga erute neurketak ezin izan ziren jokatu.

TXINPARTAK

- ✓ **7-5: HBko zinegotziek** ez zuten parte hartu Samartzialetan ohizkoa den Udalbatzaren bazkarian, "Udaletxean baztertuak gaudelako eta koherenteak izan nahi dugulako".
- ✓ **7-10: San Kristobal eguna:** ohizkoa den bezala kotxe bedeinkapena eta Meza Nagusia izan ziren auzoan.
- ✓ **7-12:** Musika Eskolako talde guztiak **San Martzial Txiki** eguna ospatu zuten.
- ✓ **7-16: Antzuolako jaiak** hasi ziren.
- ✓ **7-17: Santa Marinako jaiak** hasiera eman zitzaizen.
- ✓ **7-18:** Italiako Ortonovon **Bergarako 29 pintoreren erakusketa** inauguratu zuten Bergarako udal agintariak.
- ✓ **7-24: Basalgoko jaiak** hasi ziren.



Harrizuriaga parkea

Egitasmoa aurkeztu zuten udal agintariek

Harrizuriaga, Udaletxeko berriztapenarekin batera, legealdi honetako Udal Gobernuaren egitasmorik garrantzitsuena, uztailean onartu zen Osoko Bilkuran EAJ, PSOE eta EEren aldeko eta HB eta EAren kontrako botuekin. 100 milioi pza.ko aurrekontua du proiektuak eta herriko bosgarren parke publikoa izango dena datorren udarako zabalik egotea espero da.

Bazkaltzeke?

Udaletxea udaletxe eta jate-txea jate-txe. Batzarkide bai eta bazkalkide ez? Nik ez nioke halako gonbiteari uko egingo. Lau katu gara koherentzia hain serio-ski hartzen dugunok. Bertute hori azken mutur horretaraino eramane gabe hobeto gabiltza, sanoago, jarrera larriak ultzera gehiago sortzen baitu jatordu ederrak baino. Seguruenik.

Koherentziaz udatu bai, abusatatu ez. Umorerik gabeko iraultza, otorduari uko egiten dion koherentzia, gorringorik gabeko arraultza. Nora goaz?

Bestalde, *in vino veritas* egia ardotan, ez seguruenik. Baina

jan-edanez hornituriko mahai inguruan errazago konpontzen da mu ndua. Maiz zuzendu ohi dira bazkarian batzarretan okertuak.

Samartzuialeko lokatzetan umorez ibili zirenengandik ikasi behar dute zinegotziek. Zin egin duzue. Baina ez lotu zina eta mina. Komentario hau *inter nos*, geure artean gera bedi.




EUSEBIO OSA Filologoa

Protagonistak



Emilio Vinuesa

25 urteko bergarra.
E.H.U.n Leioako Informazio Zientzietako fakultatean lizentziatua, Pacharan Zoco enpresako harreman publikoetarako arduradun izendatu zuten.



Iñigo Garitano

Zuzenbidean lizentziatutako 26 urteko bergarra Antzuolako Udaleko behin-behineko idazkari izendatua izan zen.



Aitor Aginagalde

31 urteko bergarra. HBko zinegotzi bost urte lanean jardun ondoren, bere postua ekainean utzi zuen. Bere ordean, Juan Daniel Kortabarría sartu zen irailean.

Esan zuten




LADIS GALARZA
Pelotaria

"Etzanizekin partidu asko jokatu ditut eta oso pelotaria da. Gustora jokatzen dut beraekin".



CLARA DOLARA
Osintxuko Mekoleta baserriko etxeoandrea

"Ez dut txahala hiltzen ikusi nahi izan. Ahal izan dugun ondoen zaindu dugu; garagarra, artoa, baba eta esnea eman diogu, esne asko. Atzo bertan ere amaren errapatetik edaten ziharduen".



EUSEBIO OSA
Filologoa

"Herritarren pentsamoldeak gero eta kontrolatuagoak badaude eta erabaki libreak murriztagoak, demokraziaren funtsa galdu da, horrela diskurtsoa, errepresentazioa, forma, metafora besterik ez den demokraziarekin geratuz".



Normaltasuna nagusi

Jende gutxi eta gertakizun apartekorik ez

Abuztu normal xamarra izan da aurtengoa, beste urteetako antzekoa: kaleak erdi hutsik, batez ere hilaren 10etik 20ra bitartean, eta taberna gehienak itxita. Sasoi honetan ohizkoak izaten diren lapurretak eta istripuak beste urteetan baino urriagoak izan omen dira Ertzantzaren esanetan. Zerbait azpimarratzekotan, Etzaniz preso bergararraren gose grebarengatik, hil hasieran izan ziren protesta ekintzak.

Udako gau bateko ametsak

Honaino urtekariak gertakari mordoak damaigu arrapaladan eta hala jarraitzen du hurrengo orrietan ere, baina honetan lurra gelditu egin zaigu. Ez dago egunerokotasunik, albistegi-gizonek hurrengo denboraldirako indarberritzen dihardute eta praka-motz eta kamisetek traje gris edo urdin serioen tokia hartu dute.

92ko abuztua ez zen hain geldo eta motela izan. Udaltxearen birgaitze-proiektuari behin betiko onarpena eman zitzaion. Eta gainera, ia ahobatez onartu zen, proiektua guztiz beharrezko zen adierazgarri. Hala ere, kalean izan da komentariarik, izan ere 600 milioi milioi as-

ko baitira. Bergara futbol taldearen aurkezpena, Dhaulagirirako espedizioaren irteera, eta Osintxuko jaiak izan ziren, abuztua, herrian, alde batetik bestera lagun bila igarotzen dutenen bero eta putzentzako gozagarri.

Joku Olinpikoen balantzea eginez, Expobergarren esperientziak entzunez eta edozein terrazan, trago eta moreno artean, safari, abentura, touroperadore, lige etab.ei errepassoa emanaz joan zitzaigun noiz iritsiko zai izaten gaituen eta amaitzeak pena ematen digun urteko hilabete bakarra.



J. ANTONIO MIGURA Kazetaria

Protagonistak



Osintxuko kofraixak


Karidadia, saldia..., rokanrolla eta dantzia

Eguraldiak gehiegi lagundu ez arren, jende ugari hurbildu zen Osintxuraino abuztu amaieran Jai Batzordeak eta tabernariak prestatutako jai egitarauarekin gozatzera. Ohitura den bezala, aurten ere, zekor hilketa eta karidadea izan ziren jaietako ospakizunik nabarmenenak. Baina, autokrosa, herri krosa, bertso saioak, dantzaldiak eta rock jaialdiak ere, oso arrakastatsuak gertatu ziren.



Xabier Arregi

24 urteko bergararra, txikitatik Bergara K.E.ko futbol taldeetan ibilia eta azken urteetan talde nagusiko jokalaririk onenetarikoa izandakoa, Aloña Mendik fitxatu zuen.



Aitor Oregi

25 urteko bergarar honek Zarautzen egin zuen profesioaletan debuta Retegi III. arekin bikotea osatuz. Zezeaga eta Etxanizekin batera profesioaletan ari den hirugarren bergararra da.



Jose Mari Etxaniz

Carabancheleko espetxean dagoen 35 urteko preso bergararrak hilabete inguru eman zuen gose greban giza eskubideak aldarrikatzeko. Herrian protestaldiak izan ziren.


Èsan zuten



**MAITE
ARISTEGI**
EHNEko
abokatua

"Hemengo nekazariak
sufritu dute dagoeneko
nekazal Maastrichta".

**PEDRO
AIASTUI**
Settavex,
Marruekosko
Tavexeko
langilea



"Hemen oso pertsona
metodikoa bihurtzen
zara eta oso zorrotza
langileekin.
Langileengan lanerako
espiritua sortzen eta
indartzen saiatzen gara".



**VICENTE
IBARGUREN**
La Platako
Euskal
Etxeako
presidentea

"Ez naiz inoiz damutu
Argentinara joateaz".



Kale garbiketa.

EAJ, PSOE eta EEren botoek aurrera etara zuten, hilaren 21ean izandako Osoko Bilkuran, kale garbitasuna 48 milioi pzta.tan Garbile enpresa pribatuari 6 urtetarako adjudikatzea. HB eta EAK kontrako botua eman zuten. Garbile enpresa azaroan ekin zen lanean eta adjudikazioa 6 urtetarako egin zen.

Gorlarako bidea asfaltatzen

ekin zen hil hasieran Altuna eta Uria enpresa. Diputazioaren ardurapean, 48 milioi pzta. bideratu ziren 6 kilometro t'erdiko bide zorua konpontzeko. Lanak urriaren erdi aldera bukatu ziren.



TXINPARTAK

- ✓ **1-9: Euskal Autonomi Elkarteko Garrantzitsuak** **Autonomoek** greba hasi zuten. Bergaran 75 bat izan ziren lan uzteari ekin ziotenak.
- ✓ **9-9: Basurdeek** Basalgoko Intxuzabal baserriko ortua erabat hondatu zuten.
- ✓ **9-12: Moises Azpiazu** zenaren omenez, 15 urtetik gorako Bikoteen Dantza Askatuko Txapelketa jokatu zen Mariaren Lagundian. Eduardo Muruamendiaraz eta Amaia Agirre bergarrek irabazi zuten.
- ✓ **9-13: Remijio Mujika** Iruñeako Orfeoiaren sortzaile eta lehen zuzendaria izandakoari omenaldia egin zioten Bergarako Udalak eta Iruñeako Orfeoiak. Barrenkalea 42an, bere jaiotetxean, plaka oroigarria inauguratu zen.
- ✓ **9-21: Don Serafinek** San Antonion azkeneko meza eman zuen, 28 urtetan astero-astero horretan jardun ondoren.

Protagonistak



San Martin jaiak

Jende pilo eta ekitaldi ugari urteko jairik herrikoienetan

Urtero bezala, hilaren 16an San Martin eguna ospatu genuen.

Ekitaldi mordoxka antolatu zen, astebete lehenago hasita.

Aipagarrienak, Tanborrada, Bertso Jaialdia, Suzko erroberak edota Moises Azpiazu Dantza Txapelketa. Tanborradak izan zuen nobedaderik: sekula baino tanborrari gehiagok hartu zuen parte eta kalean altabozak jarri ziren tanborradako partehartzaile guztiek musika ondo entzuteko.

Maltzaga-Urbina

Iraila, gai zahar bat berritu eta ia-ia bete egin den hila. Maltzaga-Urbina aspaldiko proiektua berriz ere agerian jarri eta polemika sortu du. Ez dakit zenbat urte egin dituen proiektu honek mahai gainean 20, 19, 18... edo 15. Hasieran "autovia" izateko zen azkenean, oster, orain, peajedun autopista moduan geratu da. Iraila giltzarri izan zen "korredore" honentzat.

Zortzi urte baino lehenago eginda egongo da aspaldiko ametsa betez, hau da, gure haranean trafikoa arintzea.

Irailan Garraio Sailburuak

Maltzaga-Urbina proiektuak, N-1 Etxegarartetik desdoblatzearen aurrean, lehenasuna izango duela jakinerazi zuen. Gero lurraldeen arteko polemika etorri zen.

Eta... geroago, azaroan, Errepideetarako Erakundearen arteko Batzordeak proiektu biak aldi berean egitea onartu zuen. Deba haranak badauka, ia autopista. Irailean hasi zen.



JUAN LUIS BIKUÑA Kazetaria




Jose Telleriarte

Bergararren aita dugun honek 103 urte bete zituen hilaren 27an, egun berezi hori Mizpirualde Egoitzako bere lagunekin batera ospatu zuelarik.



Mikel Diez

Arte Ederretan Lizentziaturiko 25 urteko bergararra, hil bukaeran ETBn emititzen hasi zen "Ganbaran bai" saiorako zenbait politikoren panpínen egilea.



Jose eta Nere Arrieta


Aritzeta abesbatzakoak, J. M. Aierdi buru duen Gipuzkoako Abesbatzaren Federazioko Zuzendaritza Batzordeko kideak ditugu irailetik.

Esan zuten



**ASIER
ALTUNA**
Bideo
teknikaria

"Medio gutxirekin eta presaka grabatzen da Venezuelan".



**IMANOL
SORONDO**
Apaiza

"Gipuzkoan ez dago Bergara beste ermita izan duen herririk".



PILI GARZIA
Taun-Taun
txontxongilo
taldeko kidea

"Arrakasta handia izan dugu Venezuelan. Han panpinak erabiltzerakoan teknika bakar bat erabiltzen dute eta guk erabiltzen ditugunak ikusterakoan harrিতa gelditu dira".



Elosuko ganadu feria

Urriaren 12an ospatu zen, jende piloa bildu zelarik

Ohizkoa den bezala, aurten ere urriaren 12an Elosuko ganadu feria ospatu zen. Kalitate haundiko ganadua bildu zuen eta feriara hurbiltzeko, 4 kilometrotarainoko kotxe iladak sortu ziren Gorla inguruan. 210 ganadu buru presentatu ziren lehiaketara, aurreko urteetan baino gehiago. Lehiaketara aurkeztu ez arren, ikusmin handia sortarazi zuena, berriz, Arruako Igarza Haundi baserriko hiru hankako txahala.

TXINPARTAK

✓ **10-3:** Bergarako Kirol Elkarteak eta Udalak 15 urtez futbol jokalaria izan den **Txomin Bengoa** omendu zuen.

✓ **9-5:** San Lorentzoko **gasolindegian** berrizte lanak hasi ziren.


✓ **10-18:** 29 urteko Maria Concepción S. O. bergararra atxilotu zuen Ertzantzak Phildar dendan **lapurretan** ari zela.

✓ **10-18:** Bergara eta Oñatiko **Odol emaleen Elkarteek** zilarrezko ezteiak ospatu zituzten

✓ **10-26:** ELA, UGT eta CCOO sindikatuek deituta, Algodonera eta TAVEXeko **langileek greba** egin zuten 1.992 eta 93rako konbenioa sinatzeko patronalarekin akordiorik lortu ez zutelako.

✓ **10-26:** Drogopenpekotasunen Prebentziorako Udala Zerbitzuak antolatuta, Bizi Alternatiboaren 6. edizioa hasi zen.

Protagonistak




Iñigo Barruso

34 urteko euskara irakasle bergarra, Gasteizeko Geroa Elkarrekin Lantzen taldeak, hilabetero kaleratzen duen Geu Gasteiz euskarazko aldizkarian lanean ari da.



Felix Askasibar

Lanbide Heziketa Eskolan klaseak ematen dituen 37 urteko irakasle bergarar honek, Anaje Narbaizak Udaletxean utzitako zinegotzi postua bete zuen urrian.



Aitor Etxebarria

21 urteko sukaldari bergarar hau Gabonak arte Burdeoseko Le Chanpon Fin jatetxera joan zen praktikak egitera Europako Ekonomia Elkarteko beka bati esker.



Barrenkalea berrizten

19 etxebizitzetako fatxadak berrizteko lanak hasi ziren

Hilaren 26an hasi ziren Barrenkaleko 16 etxebizitzetako fatxadak berrizteko lanak Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarritako hiri guneen berrizketa programaren barne. Hori dela eta, 6 hilabetetarako itxi zen kalea autoentzat. Bizilagunek 12 milioi inguru ordainduko dituzte eta Gipuzkoako Diputazioak ia 9 milioi pzta.ko diru laguntza emango du.

Urria: euri aspergarria

Bete-beteko udazkena. Izadia neguko lozorro-aldirako gertatzen ari, zuhaitzak hostogabebetzen, lehengo berdea gorrista bilakatu ondoren. Eta euria, euri aspergarria, ia etengabeko euria. Hori da aurtengo urriak neri utzi didan oroitzapena.

Zenbaitentzat bestelakoa izango da, noski. Ikastaro berrian sartutako gazteentzat, agian negu latzari aurre egin beharraz larritutako zaharrentzat adibidez. Eta bai, etorkizunaz, lanik ezaz, bizi-beharraz kezkatuta igaro behar izan dutenentzat ere. Beste batzuk, alderantziz, aldi horretan izandako berarizko pozen bat, atseginaldiren bat izango

dute gogoan.

Garai baten Foruak kendu zizkiguteneko hila zenaz ere oroitarazten gintuzten. Aurtengoan ez dut horren oso aipamen berezirik somatu. Agian, lehenari atzea eman eta geroari begira, etorkizunarekin urduri bizi geranaren ezaugarri. Onerako ala txarrerako.

Urriaren kadentasan hori izango al dugu luzaro gabeko ernaberritze pozgarri baten aintzindari.



JOSU OREGI Itzultzailea

Esan zuten



**LUIS
EZENARRO**
Mikologoa,
Gaspar
Jatetxeko
Sukaldaria

"Ertamerikan perretxikoak, gehienbat, sendagai eta aluzinojeno moduan erabiltzen dira."



**KONTXITA
UGALDE**
Periodiko
saltzailea

"Bergaran Egin, beharbada, gazte jendeak erosten du batez ere eta El Diario, ostera, zaharrek erosten dute batipat".



**JESUS MARI
KALBOETXEAGA**
Kazetari
intsumisoa

"Nire ustez Euskadin behintzat jende guztia dago soldadutzaren aurka, aurten % 60ak objetatu egin du."



63 etxebizitza sozial

Toki Ederren eraikiko dira; 400 bat eskari jaso dira

Azaroaren 4ean aurkeztu zituzten udal agintariak Toki-Ederren eraiki beharreko 63 etxebizitza sozial eskuratzeko baldintzak.

Eskariak aurkezteko epea azaroaren 9an zabaldu eta abenduaren 9an itxi zen. Guztira 400 eskari inguru jaso ziren Udal Bulego Teknikoan eta adjudikazioa urtarrilaren bukaeran notario baten aurrean eta zozketa bidez egingo da.



Udaletxeko pinturak berritzen

Simon Arrietarenak eta Pleno Aretoko sapaikoak

Begarako Udaletxean datozen bi urteotan burutuko diren berritze lanen barne, Udalak Fernando Diaz Peral berritzaileari adjudikatu zion 18 milioi pta. pasatxotan Udaletxeko margo eta elementu baliiodunen berreskuraketa. Pleno Aretoko sapaiko pinturak eta sarrerako eskailaretan dagoen Simon Arrietaren murala berreskuratzeko lanak, azaroan hasi ziren

TXINPARTAK

✓ **11-1: Bizi Alternatiboaren** programaren barne Gaztetxean iragarriak zeuden kontzertuak ez ziren egin, Udalak Gaztetxeak lizentziarik ez zeukala eta egoera txarrean aurkitzen zela ikusirik atzera egin zuelako azken orduan, beste lokalen batetara eramateko proposamena eginez.

✓ **11-3: Ertzantzak** Maria Carmen J. J. eta Catalina A. E. 22. urteko gazteak **atxilotu** zituen Bergaran, gutxienez 10 zaharri Bergara, Zumarraga eta Arrasateko zenbait bankuetxetatik erretiratutako dirua lapurtzeagatik.

✓ **11-3: Bilbotik** kotxean zetozen Eloy B. I. 21 urtekoa eta Eusebio M. H. 41 urteko bergararrak atxilotu zituen Ertzantzak, **preserbatibo batean heroina** gordeta zeramatela.

✓ **11-4: MAYCeko langileek protesta** egin zuten, datorren urtean enpresak martxan jarri nahi dituen erregulazio espedienteen aurka.

✓ **11-29: Institutuko 3. mailako ikasleek**, ikasbidaiarako dirua ateratzeko asmoz, udazken-negu denboraldirako moda desfilea egin zuten Mariaren Lagundian.

Bill eta Miren

Hauteskunde prozesu luze baten ondoren, iparramerriek azaroaren hasieran aukeratu zuten hurrengo lau urteetarako presidente berria. Ez zen beste gaietaz honenbeste hitz egin egun hauetan. Urtarrilera arte ez da aldaketarik egongo Etxe Zurian. Bill Clinton demokrata izango da Etxe Zuriko "inkilino" berria, bera izan baitzen botu gehien jaso zituen kandidatoa.

Europar batzuk pozez hartu zuten Clintonen garaipena, beste batzuk ordea zuhur, baina oraindik ikusteko daude zeintzuk izango diren guretzat aldaketaren benetako ondorioak.

Baina, bada azaroari dago-kion atal honetan beste "errelebo" batetaz hitz egin beharrik: euskaltzain izandako Jose Miel Barandiaranek utzitako aulkia Miren Azkaratek beteko du hemendik aurrera. Albiste honen garrantzia bi ikuspuntutik hartu behar dugu gutxienik: bata, bergararra delako, eta bestetik, Euskaltzaindian sartzen den lehen emakumea delako. Espero dut Akademiak Miren Azkarateren lanak eta ikerketak baloratuko zitu-ela bere aulkia hartzerakoan...



ANE MIREN LIZARRALDE Kazetaria

Protagonistak



Mikel Herzog

32 urteko abeslari bergarar honek "Bienvenidos al Paraíso" bakarlari gisa kaleratu duen lehen diskoaren aurkezpena egin zuen hilaren 22an Antena 3eko "Por Norma" saioan.



Marcelino Garcia

Bergaran 2 urte lanean darमतзан iurretari hau Banco Central Hispanoko zuzendari izendatu zuten banketxe hauen elkartzeko prozesuaren ondorioz.




Jose Antonio Pagola

Donostiako Elizbarrutiko Bikario Orokorrak, Gipuzkoako Apezpikutzak egindako kinkenioko programaren aurkezpena egin zuen Mariaren Lagundian.

Urteko Ahopekoak

• **Miguel Angel Martinez** peña bergararraren berri izan genuen eta hala argitaratu genuen Berrigararen urte hasieran. Txirindulari andaluziarraren peña Zer-Nai tabernan biltzen diren 30 bat zaletuk osatzen dute, tartean argazkian agertzen diren Mari Mar Fernandez eta Juan Antonio Igarza.



• **Marisa Puertas** gazte bergararra Sevillako EXPOn lan egiten izan genuen apiriletik urriaren 12ra bitartean. 26 urteko gazte honek gertu gertutik jarraitu ditu Amerika deskubritu zeneko V. Mendeurrena ospatzeko antolatutako ekintzak eta bere esanetan, *"esperientzia guztiz interesgarria iruditu zait Sevilla bezalako hiri zoragarrian lan egitea"*.



• **Pol-Poleko Mendizale Taldeko** presidente guztiak bildu ziren elkartearen 50. urteurrena ospatzeko antolatutako ekintzen barne. Argazkian, ezkerretik eskumara: Jarrita; Jose Luis Kapanaga, Mikel Larrañaga, Julio Retegi, Juan Mari Errasti, Juan Carlos Barrena eta Fernando Arregi. Zutik; Felix Beitia, Iñaki Etxeberria, Jon Ezpeleta, Felix Iñarra, Andoni Larrañaga, Jose Mari Arizmendi, Luis Payros, Julen Unamuno, Gregorio Plazaola, Felipe Uriarte eta Iñaki Andueza.

• **Maria Jesus Aranburu**

Kulturako Diputatua maiatzean bisitari izan genuen *Berrigar*an. Koldo Pereira eta Andoni Larrañaga zinegotziak eta Rufina Olasagasti Kultur Jestoreak herriak eskeintzen dituen kultur zerbitzuen berri eman zioten eta, nola ez, *Berrigar*ara bisitalditxo bat egitea ezinbestekoa zen...



Urteko Ahopekoak



- **1.942. urtean** jaiotako bergararrek aurten 50 urte betetzen zituztenez, 1.992 *urte majiko* honetan beren eguna ospatzeko tartea ere izan zuten. Guztira, kintadetako marka guztiak hautsiz, 150 gizon eta emakume bildu omen ziren maiatzaren 9an.



Urteko Ahopekoak



• **Don Serafin Esnaolak** bere azken meza San Antonion irailaren 21ean eman zuen. Urte t'erdian bi operazio jasan behar izan ditu Don Serafinek (besikula kendu diote) eta orain, 77 urtekin eta 28 urtetan San Antonion astero izan ondoren, erretitazea erabaki du. Hala ere, bergararrok bisitatzen jarraituko duela adierazi zigun. Badaki hemen beti ongi etorria izango dela.

• **103 urte** bete zituen Jose Telleriarte Bergarako aitonak irailaren 27an. Hori zela eta, Victoriano Gallastegi alkatea eta Koldo Pereira eta Jabier Gabilondo zinegotzien bisita izan zuen, alkatearen eskutik zenbait opari jasoz. Mizpirualde Egoitzako bere lagunek ere *Zorionak* abestu zioten, jaiari paso emanez...





• **Igeri Elkarteak** 20 urte bete zituen urtean hasi eta berehala. Urteurrena, urtarrilaren 25ean afari eder batekin ospatu zuten 20 urte horietan igeri elkartearekin loturik izan direnek.



• **Pol-Pol Mendizale Elkarte**

Bergarako elkarterik zaharrenetarikoa eta herrikoienetarikoa dugu. Martxoaren 15ean ospatu zuten pol-poltarrek, Frontoian egindako bazkari batekin, elkarte sortu zeneko 50. urteurrena.



TRATAMIENTOS TERMICOS T.T.T. S.A. BERGARA



- **ARANSGUI** Gipuzkoako gorren elkarteak sortu zeneko 25. urteurrena bete zen ekainean. Bergarako gorren eskola, elkarteak sortu eta ireki zen lehenengoetarikoa izan zen. Gipuzkoako gorrek, tartean argazkian ikus ditzakezuen Bergarako eskolatik pasatutakoek, Anoeta Kiroldegian egindako herri bazkari erraldoi batekin ospatu zituzten elkartearen 25 urteak.

- **Bergarako Odol Emaleen Elkarteak**

ere 25 urte bete ditu aurten. Urriaren 18an Labegaraieta Kiroldegian eginiko bazkarian, zilarrezko ezteiak ospatu zituzten Bergara eta Oñatiko Odol Emaleek. Bazkalostean, gutxienez 25 donazio egin zituzten 18 odol emale bergararrek eta Oñatiko beste lauk domina eta plaka bana jaso zituzten.



ESTATISTIKAK



URTEKO DATU ADIERAZGARRIAK

*Jaiotzak, heriotzak, batazbesteko tenperaturak, euriak, langabezia
tasa hileka, pelikula ikusienak, kotxe salduena...*

ZER IRAKURTZEN DUGU BERGARARRAK?

92an jaiotakoak

URTARRILA.

Valle Hernando Oscar. 5.
Egaña Iztueta Lander. 6.
Morillas Igartua Ane. 15.
Pascual Delgado Miriam. 17.
Ribera Fernandez Asier. 18.
Crespo Crespo Virginia. 20.
Sanchez Pescador Ainara. 20.
Lazpiur Barrainkua Asier. 22.
Fraile Aranburu Inti. 22.
Miner Herran Aitor. 24.

OTSAILA.

Garcia Urkiola Anartz. 1.
Conde Testa Kevin. 3.
Jimenez Mujika Mikel. 15.
Egino Laborda Elena. 18.
Carreto Rubio Eriks. 18.
Odriozola Rguez. Maddalen. 24.
Larrañaga Gomez Irene. 26.

MARTXOA.

Elorza Sadaba Jon. 4.
Casquero Cambronell Ander. 13.
Mentxaka Garzia Josu. 14.
Lopez Larrañaga Markel. 18.
Sanchez Luque Unai. 19.
Urriolab. Odriozola Marina. 25.
Diaz Pascual Mikel. 29.

APIRILA.

Larrañaga Gutierrez Ainhoa. 2.
Kortabarria Iparragirre Asier. 4.
Fuente Barrio Mikel. 5.
Sahuillo Diaz Leire. 11.
Ugarte Irusta Lander. 11.
Conti Mellado Aitor. 12.
Fernandez Larrañaga Miren. 12.
Casanelas Alzelai Itziar. 25.
Etxaniz Ortiz Aitor. 27.
Santa Cruz Kapanaga Miren. 29.

MAIATZA

Larrañaga Igartua Lorea. 1.
Ojea Ugarte Jone. 4.
Otaegi Iñurrita Julen. 8.
De Miguel Fernandez Rodrigo. 12.
Barruso Iturbe Ander. 12.
Regorigo Alberdi Ekaitz. 14.
Gomez Blanco Agurtzane. 16.
Franco Ezpeleta Ander. 16.
Imaz Suarez Carmen. 16.
Moñux Txintxurreta Jon. 16.
Santamaria Andres Amaia. 26.
Irureta Jauregi Ohiane. 28.
Urzelai Labaien Gaizka. 31

EKAINA.

Agirre Cano Nerea. 5.
Amasorrain Larrañaga Joane. 5.
Fdez. de Lecea Eguren Andoni. 11.
Mujika Larrañaga Ane. 17.
Garcia Urbina Mikel. 17.

92an jaiotakoak

Unamuno Martinez German. 21.
 Berasategi Lonbide Xabier. 25.
 Olabarria Rodrigo Aintzane. 27.
 Cotillaa Solaun Nahia. 28.

UZTAILA.

Alberdi Otaño Itxaso. 1.
 Osa Eguren Jokin. 11.
 Telleria Santorcuato Ander. 12.
 Moreno Haro Miriam. 4.
 Rodriguze Miguez Jon Ander. 12.
 Ena gallastegi Gonzalo. 13.
 Alegria Zafra Nekane. 15.
 Estevez Cachafeiro Xenia. 18.
 Arzelus Mujika Alexander. 22.
 Urbietta Barrutia Jon. 23.
 Arana Fernandez Julen. 24.
 Txintxurreta Agirregab. Maite. 4.
 Bernier Lopez Lara. 4.
 Sanchez Salas Joane. 22.
 Vaz Catalan Jonhattan. 27.
 Rodriguez Baladron Odei. 29.

IRAILA.

Barrutiabengoa castelo Unai. 2.
 Badiola Guridi Andoni. 6.
 Rivero Gutierrez Jon. 8.
 Azpeitia Garitano Amaia. 13.
 Sesma Elorza Ana Maite. 15.
 Frias Gomez Jon. 18.
 Gabilondo Ansorena Xabier. 20.
 Fernandez Albisua Irati. 21.

Madinab. Olab. Ana Itxaro. 21.
 Albeniz Pedrejon Jone. 29.
 Zapata Clemente Nekane. 30.

URRIA.

Leninsoro Hdez. Nere. 3.
 Retolaza Arriola Marina. 5.
 Irureta Etxaide Alen. 4.
 retolaza Ugarte Unai. 5.
 Goienetxe Murgiondo Ainhoa. 5.
 Gisasola Alarcon Unai. 6.
 Muñoz Escobar Jhoselin. 6.
 Heis Lasheras Gorka. 7.
 Unzueta Odriozola Julen. 14.
 Gandiaga Conget Aitzol. 15.
 Retes Zabalo Egoitz. 15.
 Cuesta Villalain Ruben. 23.
 Leizeaga Sanchez Ainara. 24.
 Saloña Txintxurreta Miren. 26.
 Iruretagoiena Rodriguez Ana. 28.

AZAROA.

Egaña Uriarte Mireia. 2.
 Inclan Boizas Ana. 8.
 Arizabaleta gantxegi Izaro. 7.
 Centeno Vila Marina. 8.
 Diez Larrañaga Iñaki. 15.
 Sanchez Cantero Urko. 20.
 Eguren Carmona Julen. 23.
 Iburguren Mujika Urki. 24.
 Gabilon. Berrotaran Aintzane. 29.
 Narbaiza Irizar Ainhoa. 29.

92an hildakoak

URTARRILA.

- Garitano Larrañaga, Joseba.
Urtarrilaren 1ean, 88 urte.
- Agirre Elkoroiturbe, Anizeta.
Urtarrilaren 4ean, 103 urte.
- Mujika Garmendia, Karmen.
Urtarrilaren 5ean, 60 urte.
- Mugire Etxebarria, Migel.
Urtarrilaren 5ean, 79 urte.
- Agirre Ondarra, Eugenio.
Urtarrilaren 8an, 51 urte.
- Luarizaristi Albisua, Juan.
Urtarrilaren 18an, 73 urte.
- Alustiza Mekolalde, Florencio.
Urtarrilaren 18an, 86 urte.
- Tena Algaba, Maria Francisca.
Urtarrilaren 19an, 37 urte.
- Irizar Zaldibia, Francisco.
Urtarrilaren 24ean, 87 urte.
- Aizpiri Arrieta, Kandida.
Urtarrilaren 24ean, 83 urte.
- Rocha Colina, Jose Ramon.
Urtarrilaren 24ean, 73 urte.
- Redondo Rodriguez, Prudencio.
Urtarrilaren 28an, 73 urte.
- Lizarralde Ezpeleta, Roman.
Urtarrilaren 28an.
- Gomez Marquez, Manuel.
Urtarrilaren 30ean, 47 urte.

OTSAILA.

- Zabaleta Olabarria, Julio.
Otsailaren 1ean, 72 urte.
- Aranguren Urkiola, Ramona.
Otsailaren 3an, 83 urte.
- Markiegi Loiti, Jabier.
Otsailaren 4ean, 55 urte.
- Bolinaga Alegria, Mikel.
Otsailaren 4ean, 33 urte.
- Mujika Barrenetxea, Martina.
Otsailaren 5ean, 77 urte.
- Lazkano Juaristi, Angel.
Otsailaren 6an, 81 urte.
- Muruamendaraz Txintxurreta, Mateo.
Otsailaren 9an, 84 urte.
- Arriaran Arozena, Florentina.
Otsailaren 14an, 89 urte.
- Ariznabarreta Galarraga, Carlota.
Otsailaren 16an, 93 urte.
- Idigoras Urizar, Francisco.
Otsailaren 18an, 80 urte.
- Briz Fernandez, Regina.

Otsailaren 19an, 80 urte.

- Alberdi Dorronsoro, Isidro.
Otsailaren 22an, 84 urte.
- Gutierrez Osinalde, Carlos.
Otsailaren 29an, 62 urte.

MARTXOA.

- Garcia Jimenez, Felisa.
Martxoaren 1ean, 84 urte.
- Badiola Larrañaga, Benito.
Martxoaren 4ean, 77 urte.
- Aranburu Gallastegi Ascension.
Martxoaren 4an, 83 urte.
- Zabaleta Ramon.
Martxoaren 12an, 65 urte.
- Uribarri Iureta Juan.
Martxoaren 13an, 65 urte.
- López Gómez Genoveva.
Martxoaren 17an, 85 urte.
- Seco Moreno Juan Carlos.
Martxoaren 26an, 26 urte.

APIRILA.

- Larrañaga Gutierrez Ainhoa.
Apirilaren 2an.
- Izuskiza Tartas Jesus Mari.
Apirilaren 4an, 27 urte.
- Fuente Barrio Mikel.
Apirilaren 5ean.
- Bengoa Azkargorta Victor.
Apirilaren 18an, 63 urte.
- Exposito Juaristi Jon.
Apirilaren 20an, 6 urte.
- Gonzalez Fernandez Afrodisio.
Apirilaren 23an, 87 urte.
- Markiegi Olañeta Jesusa.
Apirilaren 24an, 94 urte.
- Igarzabal Unzurrunzaga Maxima.
Maiatzaren 3an, 88 urte.
- Aristi Suinaga Ignacio.
Maiatzaren 3an, 79 urte.
- Arriaran Iñarra Jose Maria.
Maiatzaren 6an, 56 urte.
- Alzelai Irazola Felicia.
Maiatzaren 9an, 81 urte.
- Ezpeleta Enparanza Francisca.
Maiatzaren 9an, 92 urte.
- Irizar Jauregi Cecilio.
Maiatzaren 11n, 82 urte.
- Poza Poza Victor.
Maiatzaren 25ean, 55 urte.
- Fernandez Barroso Ignacio.

92an hildakoak

Maiatzaren 26an, 68 urte.

EKAINA.

- Olalde Gallastegi Mario.
Ekainaren 1ean, 84 urte.
- Garaiz Ongi Martin.
Ekainaren 5ean, 79 urte.
- Alvarez Arezaga Maximo.
Ekainaren 15ean, 75 urte.
- Larrañaga Telleria Mari Karmen.
Ekainaren 16an, 47 urte.
- Perez Berasategi Luis.
Ekainaren 22an, 82 urte.
- Bautista Elola Juan.
Ekainaren 23an, 48 urte.

UZTAILA.

- Moñux Angulo Valeriana.
Uztailaren 1ean, 83 urte.
- Alberdi Garaileku Victor.
Uztailaren 6an, 76 urte.
- Arizabaleta Zabaleta Francisca.
Uztailaren 6an, 75 urte.
- Tena Murillo Eduardo.
Uztailaren 8n, 84 urte.
- Agirrebalzategi Galdos Maria.
Uztailaren 9an, 80 urte.
- Belastegi Loidi Valentin.
Uztailaren 14an, 84 urte.
- Ulzelai Igarza Margarita.
Uztailaren 17an, 76 urte.
- Garralda Goldarazena Manuela.
Uztailaren 19an, 87 urte.
- Laskurain Agirre Juan.
Uztailaren 20an, 78 urte.
- Muñagorri Sabina.
Uztailaren 22an.
- Zubizarreta Larrañaga Maria.
Uztailaren 31n, 77 urte.
- Larrañaga susperregi Jose.
Uztailaren 31n, 66 urte.

ABUZTUA.

- Alzelai Irazola Juana.
Abuztuaren 8an, 80 urte.
- Txintxurreta Lete Pedro.
Abuztuaren 25ean, 61 urte.
- Landa Segurola Lucia.
Abuztuaren 31n, 82 urte.

IRAILA.

- Alcaraz San Roman Juan Luis.
Irailaren 2an, 28 urte.
- Barrera Aspiazu Lourdes.
Irailaren 19an, 78 urte.
- Mulas Ayonilla Ana Maria.
Irailaren 20an, 26 urte.
- Gallastegi Kortazar Maria Teresa.
Irailaren 20an, 59 urte.
- Muruamendaraz Arregi Julian.
Irailaren 26an, 77 urte.
- Arriaran Lazpiur Eugenio.
Irailaren 27an, 77 urte.
- Laskurain Zabala Xabier.
Irailaren 30ean, 52 urte.


URRIA.

- Iñarra Lazpiur Asuncion.
Urriaren 1ean, 76 urte.
- Arranz Olmedo Maria Pilar.
Urriaren 5ean, 50 urte.
- Unzueta Unzueta Pedro.
Urriaren 6an, 71 urte.
- Areitio Arkarazo Marcelina.
Urriaren 11n, 75 urte.
- Egiluz Iriarte Ignacio.
Urriaren 18an, 66 urte.
- Casado Molina Jose.
Urriaren 20an, 37 urte.
- Gisasola Bilbao Marina.
Urriaren 22an.
- Ormazabal Legorburu Isabel.
Urriaren 23an, 96 urte.
- Irureta Gurrutxaga Antonio.
Urriaren 25ean, 90 urte.

AZAROA.

- Kareaga Odriozola Vidal.
Azaroaren 4ean, 80 urte.
- Galdos Zubizarreta Vicente.
Azaroaren 6an, 95 urte.
- Elorza Arana Marcelino.
Azaroaren 9an, 45 urte.
- Arrieta Arrizabalaga Kosme.
Azaroaren 15ean, 62 urte.
- Gallastegi Agirre Iñaki.
Azaroaren 20an, 59 urte.
- Yarza Maiztegi Paula.
Azaroaren 22an, 73 urte.
- Gabilondo Alberdi Juana.
Azaroaren 24ean, 54 urte.
- Martin Bruña Cipriano.
Azaroaren 27an, 78 urte.

Langabezia 92an



LANGABEZIAREN BILAKAERA 1992an BERGARAN

Urteko langabetuen batz bestekoa 1.991ko abendutik 1992ko azarora: 625 langabetu.

LANGABETUEN SAILKAPENA IHARDUERA EKONOMIKOEN ARABERA:

- Aseguroak: % 4,4
- Beste batzuk: % 16,7
- Burdingintza: % 22,6
- Elaboratuak: % 9,14
- Energia eta ura: % 0
- Eraikuntzak: % 4
- Garraioak: % 1,48
- Inoiz lanik izan ez dutenak: % 27,4
- Kimikak: % 0,29
- Merkataritza, tabernak: % 10,7
- Nekazariak, abelzainak: % 3,2

LANGABETUAK SEXUAREN ARABERA:

- Emakumezkoak: 418 (% 62,84)
- Gizonezkoak: 247 (% 37,16)

Kotxe eta motor salduenak

AUTOAK.

Urte hasieratik azaroaren amaiera arte 320 automobil berri erregistratu dira aurten Bergaran. Joan zen urtean 458 kotxe saldu ziren eta orain dela bi urte 457. Ondorengo hauek izan dira hiru modelo salduenak:

- Opel Astra (42)
- Opel Corsa (28)
- Citroen ZX (24)



OPEL ASTRA, 92an BERGARAN GEHIEN SALDU DEN KOTXEA. 42 BERGARARREK EROSI DUTE.

MOTORRAK.

Motorrei dagokienez, 14 motor berri erregistratu dira epe berean: Ondorengo modeloak izan dira salduenak:

- Honda CBR (8)
- Yamaha (2)
- Suzuki (2)



OPEL CORSA, 92an BIGARREN KOTXE SALDUENA BERGARAN. 28 OPEL CORSA SALDU DIRA AURTEN BERGARAN.

Zinea, musika eta literatura

NOVEDADES ZINE ARETOAN GEHIEN IKUSI DIREN PELIKULAK:

- *Instinto Basico*. 2000 pertsona inguruk.
- *Thelma & Louis*. 1.800.
- *Terminator 2*. 1.500.



SUSAN SARANDON ETA GEENA DAVIS IKUSTERA 1.800 BERGARAR JOAN ZIREN.

GUTXIEN IKUSI DIRENAK:

- *Detective con medias de seda*.
- *Doble impacto*.
- *Morir todavía*.
- *Engañada*.
- *Piernas de terciopelo*. Pelikula bakoitzean 50 bat pertsona. Novedades aretoan, gehien jota, 430 pertsona sar daitezke.

LIBURU SALDUENAK:

Euskaraz:

1. *Bebi euskaldun baten memoriak*. Bernardo Atxaga.
2. *Babilonia*. Juan Mari Irigoien.
3. *Aitaren batean*. Andoni Egaña.
4. *Non dago Stalin*. Xabier Montoia.
5. *Speed gauak*. Edorta Jimenez.

Gazteleraz:

1. *El médico*. Noah Gordon.
2. *Las llamas del tránsito*. Jean M. Auel. *El plan infinito*. Isabel Allende.
4. *La mujer habitada*. S. Belli.
5. *El año del diluvio*. Eduardo Mendoza.



DISKO SALDUENAK:

Euskaraz:

1. *E.H. Sukarra*. E.H. Sukarra.
2. *Hortzak estuturik*. Su Ta Gar
3. *Badok hamairu*. Oskorri.
4. *Folk lore sorta I*. Txomin Artola / Amaia Zubiria.
5. *Bakezaleak*. Anje Duhalde.





QUEEN.

Bestelakoak:


1. *Greatest hits II*. Queen
2. *Use your ilusion*. Guns' Roses. *Waking up the neighbors*. Brian Adams
4. *Por instinto*. Barricada.
5. *Shepherd moons*. Enya.

Euskera eta eskola ereduak




Euria eta tenperaturak

EURIA



1992ko EURIA BERGARAN HILEKA ETA METRO KARRATUKO



1992ko BATAZBESTEKO TENPERATURAK BERGARAN HILEKA

- Aurtengo urria (547 litro, Bergaran) izan da diferentzia haundiz azken hamar urteotako hilabeterik euritsuena.

- Bere ondoren, lau hilabete bakarrik izan dira hamar urteotan 300 litrotatik pasa direnak:

- 1986ko urtarrila (375 litro).
- 1983ko abuztua (336 litro).
- 1989ko apirila (308 litro)
- 1991ko azaroa (304 litro).

- Bestalde, abenduak lehen astea kontatuta, aurtengoa da, dagoeneko, azken hamar urteotako urterik euritsuena.

- Urterik lehorrena, berriz, 1989a (997 litro) izan zen alde haundiz. Bere ondoren 1983a (1137 litro) eta 1990a (1289 litro) izan genituen.

- Hamar urteotan izandako bi uholde haundienetan ondorengo ur-kantidadeak bildu ziren egun batean Bergaran:

- 83ko abuztuaren 26an: 133 litro.
- 88ko uztailearen 19an: 137 litro.

TENPERATURA

- 1992ko urtarrila izan da 1993koarekin (4,7°) eta 1990eko abenduarekin (5,62°) batera azken hamar urteotako hotzena.

- Abendua kontutan hartu barik, batz besteko tenperatura 13,86°koa izan da.

Kirolari buruzko ikerketaren datuak

UNEDek Udal Kirol Zerbitzuaren enkarguz gure herriko kirol egoerari buruz aurrean egin duen azterketa soziologikoaren emaitza aipagarrienak azaltzen ditugu hemen:

BERGARAREN % 67ak EZ DU KIROLIK EGITEN

- Egiten du: % 32.9ak (% 22 emakumezkoak; % 44.5 gizonezkoak).
- Ez du egiten: % 67.1ak (% 78 emakumezkoak; % 55.5 gizonezkoak).

ZIKLISMOA DA GEHIEN EGITEN DEN KIROLA

- Ziklismoa: % 17.8ak.
- Ibiltzea: % 15.9ak
- Mendiko kirola: % 13.9.
 - Igeriketa: % 13ak.
 - Gimnasia: % 12.5ak.
 - Futbola: % 12ak.
 - Pelota: % 11.5ak.

% 26a KIROL ELKARTE BATETAKO KIDE DA

KIROLEAN DIRU GUTXI GASTATZEN DA

- 2.000-10.000 pzta: % 22.1ak.



- 10.000-25.000: % 17.3ak.
- 25.000-50.000: % 11.5ak.

KIROLA EGIN AURRETIK AZTERKETA MEDIKORIK EGITEKO OHITURA GUTXI

- % 56.2ak ez du inoiz egin.
- % 20.7ak urtero.

- % 11.5ak hasieran.

POL-POL MENDIZALE TALDEA ELKARTERIK EZAGUNENA

- % 69.1ak Pol-Pol ezagutzen du.
- % 62.5 Bergara K.E.
- % 51.1ak Lokatza Ziklismo Eskola.
- % 51.1ak Bergara Igeri Elkarte.

MahainguruA

MAHAINGURU HONETAN
MUNDU OSOAN ETA
BERGARAN BERTAN ERE
PIL-PILEAN DAUDEN BI GAI
UZTARTU NAHI IZAN DITUGU,
BATETIK EKOLOGIA ETA
BESTETIK ESTETIKA. HASIERA
BATEAN GAI DESBERDINAK
ETA LOTURA BAREKOAK
EMATEN BADUTE ERE, GERO
IKUSIKO DUGUNEZ GAUZA
MORDO BAT DUTE
AMANKOMUNEAN ETA
SARRITAN BEREIZTEZINAK
IZATEN DIRELA ERE ESAN
GENEZAKE. SANTA MARINA
ELIZA OSTEKO AZOKA
BERRIA, BARRENKALEKO
BERRIZTE LANAK, GERO ETA
KANALIZATUAGO DAGOEN
DEBA ERREKA EDOTA
BIDEBERRIKO INDIA
GAZTAINONDOEN
INAUSKETA IZANGO DIRA,
BESTEAK BESTE, ORRIALDE
HAUETAN JORRATUKO
DITUGUN GAI BATZUK.



ABDON JUARISTI PINTOREA,
IÑAKI MADINABEITIA EKOLO-
GISTA ETA XABIER GALLAS-
TEGI APAREJADOREA ETA
UDALEKO HIRIGITZA BA-
TZORDEBURUA HERRIAREN
ESTETIKA ETA EKOLOGIA
GAIARI BURUZ SOLASEAN.
MAITE MOZOS, ARTE IRAKAS-
LEA, BERRIZ, MODERATZAILE
LANETAN.

HERRIAREN ESTETIKA ETA EKOLOGIA AZTERGAI

MAITE MOZOS: Zer da zu-
en ustez estetika? nola defi-
nituko zenukete?

ABDON JUARISTI: Nik uste
dut estetika gizarte eta gauzen
arteko erlazioa dela, norbera eta
bere inguruko gauzen arteko
erlazioa. Nire ustez ez da beha-
rrezkoa estetika edertasuna
izatea, ezta edertasuna estetika
ere.

IÑAKI MADINABEITIA: Ez
dira konpartimentu estankook,
momentu bakoitzean faktore
desberdinak hartuko dira kon-
tutan. Nik uste dut arkitektura,
arte, estetika eta ekologia, de-
na, nahastuta daudela.

XABIER GALLASTEGI: Be-
no, nire zeregina gehien bat
gestioarekin dago lotuta eta
kontzeptu abstraktu horietaz
aritzean adituen eritzietara jo-
tzen dugu normalki.

M.: Gaiari gertuagotik lo-
tzeko Bergarako alde zaha-
rraz hitz egiten has gintezke,

"Lehenengo pisutik gora etxeak nahiko ondo daude; baju komertzialetan, ordea, bakoitzak nahi izan duena egin du"

ABDON JUARISTI

badu Bergarak nortasun be-
rezirik beste herriekin kon-
paratuz?

X.: Uste dut hemen inguruko
alde zahar gehienak Erdi Aro-
koak direla eta estruktura alde-
tik berdintsuak beraz. Hala ere,
herri bakoitzak eboluzio des-
berdina izan duela esan daiteke.
Nik esango nuke Bergarak ez
daukala estruktura aldetik be-
rezitasun handiegirik, baina bai
etxez etxe hartuz gero. Ondare
handia daukagu, bai guk zain-
dutakoa bai kasualidadez iritsi
zaiguna.

A.: Berdin pentsatzen dut,
Bergaran zatiak geratzen dira.
Gipuzkoako beste herri batzu-
ekin konparatuz gero, hemen
askoz jauregi gehiago daukagu
baina osotasunean begiratuta
hirigintza aldetik kristoren
hanka-sartzeak ikusten dira.

X.: Bai, hori egia da. Gaur
egun Udalak ondere-inbentario
bat dauka eta behartuta dago
hori errespetatzera eta errespe-




tatu eragitera. Gainera, denboraren poderioz gauzak aldatuaz doaz. Orain dela hamar urte gutxi gorabehera bai jendearen aldetik, bai Administrazioaren aldetik, gai honen inguruan nolabaiteko sentsibilidatea sortu zela esan daiteke, egun ez da egiten etxerik erreka gainean edo Zabalotegi edo Irizar Ibilbidekoen modukorik.

A.: Baina hor badago beste elementu bat kontutan hartu ez dena: etxeen edo eraikinen ingurua, alegia. Santa Marina elizaren adibidea daukagu. Hori ez da orain dela hamar urteko kontua, oraintxe bertan ari dira azoka berria egiten.

"Azoka orain gabiltza egiten baina planteamendua eta kokalekua Juan Antonio Zabalaren garaikoak dira"

XABIER GALLASTEGI



M.: Eliza inolako perspektibarik gabe geratu da, alde batetik erreka etxeak, bestetik azoka berria, lotsagarria da...

X.: Azoka orain gabiltza egiten baina planteamendua eta kokalekua etxeak egin zirenekoak dira, Juan Antonio Zabalaren garaikoak. Horrek ez du esan nahi ondo egina dagoenik.


M.: Jakinekua da Bergara-ko giroa asko aldatu dela, ez litzateke posible izango alde zaharra berreskuratzea?. Nola daude alde zaharreko kaleak?.

A.: Lehenengo pisutik gora etxeak zaharrak eta zikinak egon arren, nahiko ondo daudela esango nuke; baju komertzialetan, berriz, ez da inongo politikarik egin, bakoitzak nahi izan duena egin du.

X.: Hori niretako lehendik datorren gauza da eta politikoak ere gizarte barruan gaudenez, ezin gaitezke bere kontra joan bestela jokuz kanpo geratuko bait ginateke. Gainera beti egon dira arauak baina jendeak kasu egiten dien edo ez beste gauza bat da. Egia da badaudela laguntza ekonomikoak baina horrekin ez da dena konpontzen, azken batean mentalidatea dago eta oso erraza da norbaitengana ondarea mantendu beharraz hitz egiten joatea norberak mantendu beharreko ondarerik ez duenean.

I.: Nire ustez estetika da faktorerik inportanteena, lehen beharbada espekulazioa izango zen baina orain espekulazioa eta estetika. Estetika aldakorra da baina nik estetika kontserbatzailea proposatuko nuke, beti ere funtzionalitatea kontutan izanda noski.

M.: Azken aldi honetan Barrenkalen dihardute lane-



**an, zer deritzozue Barrenka-
leko etxeak pintatzeari eta
zergatik aukeratu da baka-
rrik kale hori eta ez beste
batzuk?**

A.: Udaletxean dagoen proiektua, zein kolore aukeratu diren eta nolako kalea geratu behar den ikusi ondoren norbaiti gustatzen ez bazaio, nahiko arraroa da. Oso polita geratu behar da. Etxeek lehen zuten kolore bera izango dute, etxe bakoitzak bere kolorea dauka eta beti geratzen da hondarren bat. Guk Bergara beti kolore bakar batez ezagutu dugu, zikin, eta orain hainbeste kolore ikusteak harritu egingo gaitu baina lehen etxeak horrelakoeak ziren eta gainera kalea zabalago eta argiago geratuko da.

X.: Foru Aldundiak diru-laguntza batzuk eman ditu hiriguneak konpondu eta berrizteko, bestalde Barrenkaleko jendeak aspaldian diru asko sartu

**"Guk Bergara
beti kolore
bakar batez
ezagutu dugu,
zikin, eta orain
hainbeste
kolore ikusteak
harritu egingo
gaitu"**

ABDON JUARISTI

du etxe barruan berritze lanean, horrek euren aldetik sentsibilidade eta jarrera positiboa adierazten duelarik. Guk egin duguna izan da falta zen bulzadatxo eman, etheen kanpokaldea alegia. Dena den, badakigu hasiera batean jendea harrিতa geratuko dela baina ziur gaude gero arrakasta handia izango duela.

M.: Eta beste kaleetakoek zer?.

X.: Aurtengoa oso diru-laguntza handia izan denez, aurrerantzean ez dugu hainbeste diru edukiko zeregin hauetarako. Hala eta guztiz ere, alde zaharreko jendeari laguntzeko asmoa dugunez, laguntza berezi batzuk egongo dira berritze lanak egin nahi dituztenentzat, lanaren arabekoak noski.

I.: Arkitektonikoki nik uste dut gehiago sentsibilizatu direla bai teknikoak bai Udala, nahiz



eta oraindik Santa Marina ostean egiten ari diren astakeria horren modukoak egin noizbehinka.

A.: Bai, zenbait gauza egin aurretik jendearekin kontsultatu beharko litzatekeela uste dut.

X.: Hori esatea oso erraza da baina badakizu zer gertatzen den proiektuak jendearen aurrera ateratzen direnean?... Lau katu etortzen direla. Azken adibidea Udaletxearen proiektua da, hemen egon ginen hamabost egunez baina...

A.: Jendeak ez dauka horretarako ohiturarik, beste zerbait asmatu beharko litzateke jendearengana heltzeko, Berrigara bera erabili esate baterako. Inkesta edo galderen bidez nola baitekó "termometroa" izango zenukete.

M.: Nire ustez oso garrantzitsua da herriaren historia

"Proiektuak jende aurrera ateratzerakoan lau katu etortzen dira. Azken adibidea Udaletxearen proiektua da"

XABIER GALLASTEGI

gordetzea eta etxeak horren aztarna dira. Badago Bergaran eraikin bat oso ardurata naukana: geltokiko etxea. Bergaran bi geltoki izan zituen eta trena oso inportantea izan zen beraren garapenerako. Zer egin behar duzue etxe horrekin?

X.: Etxea bota egin behar dugu. Hasteko, dagoeneko ez daukagu trenik eta etxe hori funtzio jakin bat betetzeko eraiki zen, gaur egun egiten dugun bezala.

M.: Baina oso arkitektura berezia da.

X.: Bai, Eskoriatzan ere badago horrelako etxe bat oso berezia, ez da bota eta han dago zeharo ezkutuan, inguru barik, ezer barik. Ez dute bota premiari izan ez dutelako eta beldurra izan dutelako eta hangeratu da, fundizio tuboan biltegi ziur

aski.

M.: Gaur egun ez daukagu inongo geltokirik eta autobusak badaude, hortaz, dagoenetan laga liteke, ez?.

X.: Hor geltoki berria egin behar da, gaur egungo funtzionamentu eta erabilpenerako egokitua. Hor ez dira trenak geratuko, autobusak baizik, eta gaurko autobusak neurri batekoak dira, "muelle" batzuk behar dituzte... Bestalde, jendeak ere leku eta komodidadeak behar ditu zain egoteko.

M.: Horrela oso garestia da progresoa. Beno, jarrai dezagun aurrera. Orain arte hirigintzaz baino ez gara aritu, hitz egin dezagun ekologiararen gainean: parkeak, Udaletxe eta ekologisten arteko tirabirak... Beharrezkotzat jotzen duzue Bergaran parke gehiago izatea?

I.: Lehenengo eta behin esan nahi dut Barrenkaleko espiritu kontserbatzailea herriko beste arlo batzuetara zabaltzea komeniko litzatekeela, ingururora besteak beste. Gu gehienetan Udaletxeko jendearekin ados egoten gara, eritzi parekoak izaten ditugu baina gero euren erabakiak eritziaren aurka izaten dira, beti agertzen dira oztopoak, azken emaitza zeharo kontrakoa izaten delarik.

Gauzak horrela, herri honetan nahiz beste batzuetan, salbatzen diren gauzak "de txiripa" salbatzen dira eta hau denon ardura da, azken finean jendeak pentsatzen du Udalak egiten duen guztia ondo dagoela eta hori ez da horrela.

Gaur egun hemen proiektuak arkitektoan esku lagatzen dira, beraiek dira benetako "matarifeak" eta azkenean ondo irteten ez bada Udaletxeko jendea etortzen zaigu proiektua aldatzeko mila oztopo zeudela esanez: diru-laguntzak, epeak...


"Herri honetan nahiz beste batzuetan salbatzen diren gauzak "de txiripa" salbatzen dira eta hau denon ardura da"

IÑAKI MADINABEITIA

Ez da logikoa parke bat dagoen lekuan dena botatzea beste parketxo bat egiteko. Frantzian proiektu bat egiten denean gutxienez arkitekto bat, ekologo bat eta paisajista bat egoten dira, eta ez orain, duela hogeitun urte.

A.: Begira, Usondon kristoren basoa zegoen, guztiok igandeetan bila joaten garen bezalakoa, eta azkenean parketxo bat egin zuten. Untzeta-koarekin beldur naiz ez ote duten gauza bera gertatuko.

X.: Lehen esan dugun bezala Barrenkale eta alde zaharreko



funtzionamendua aldatu egin da, baina ez hori bakarrik, dena aldatu da eta egiten den guztia gaurko gizartearen eskakizunetara egokitu behar dugu. Azken batean oreka da lortu behar duguna.

I.: Oreka esan duzu eta nik adibide bat jarriko dizut: Ruiz de la Prada parkearena, alegia. Lehenengo proiektua arkitekto baten proiektua zen, ez zeukan inolako orekarik. Usondoko urruti samar geratzen zaigu baina Santa Anan ere gauza bera gertatu zen, hasiera batean makroproiektu bat egin zen eta hura aurrera eramateko kendu, kendu eta kendu, besterik ez zegoen. Bergarako hirigunean zeuden azken lauzpabost haritzek ere ez zuten han lekurik. Garbi dago hemen gauzak "de txiripa" ez, "de txiripon" salbatzen direla.

X.: Bakoitzari berea. Ruiz de

**"Usondon
kristoren basoa
zegoen eta
azkenean
parketxo bat
egin zuten.
Unzetakoarekin
beldur naiz ez
ote den gauza
bera gertatuko"**

ABDON JUARISTI

la Prada parkearen kasoan zuei esker aldatu da proiektua eta gure hasierako prisa zerk eraginda zegoen ondo azalduta geratu zen, diru-laguntzak jasotzeko epe batzuk zeuden eta haiek errespetatu beharra zegoen. Hala ere, hasiera batean Udaletxean bertan ere izan ziren kritika batzuk gure peritoaren aldetik.

M.: Bada beste gai bat eztabaida haundiak sortu dituzena: Bideberriko zuhaitzen inausketa.

I.: Hasieran esan zitzaigun inausketa "fitosanitario" a egin-go zela, kili-kolo zeuden adar batzuk moztuko zirela, behar-beharrezkoak besterik ez. Azkenean, demaseko txikizioa egin zuten. Teknikoak, halere, bere burua zuritu behar eta ondo zegoela zioen. Zergatik egon behar dugu orain guk hamabost urtean zuhaitz horiei adarrak




irteteko zain?. Beharbada ez zen hori izango Bergarako tekniko-en helburua baina...

X.: Inaki, guk ere izaten dugu batzuetan arrazoia. Tekniko horrek nire aurrean teknikoki eztabaidatu nahi izan zuenean asuntu hori ekologista batzuekin ezin izan zuen eta gero kezatzera etorri zirenean ere ez zuten argumentu bat bera ere eman. Egia da estetikoki gaizki geratu direla baina Gasteizen ere gauza bera egin zuten duela urte t'erdi makal batzuekin eta hasieran jendeak gogor erantzun zuen baina gaur egun zoragarri daude eta urte t'erdi baino ez da igaro.

I.: Makalak eta India gaztainondoak oso desberdinak dira, azken hau oso delikatua da. Oreka mantendu behar da "masa arborea" eta "masa ricular" delakoen artean, horrela izan ezean desoreka sortzen da, honek arbolari dakartzkion ondorio kaltegarriekin. Ez dakit arrazoi horiek zuregana heldu diren baina teknikoak entzun zituen, beraz, ez dakit nora begira zegoen. Onar dezakegu gure teoriak eztabaidagarriak izatea baina horrek gizartearen eraginik ez izatea da benetan tristeza iruditzen zaiguna. Azkenean beti berberak aritzen gara eztabaidan. Horregatik nik uste dut jendea ekologia aldetik ez dagoela oraindik hain sentsibilizatuta.

M.: Oso interesgarria litzateke errekarri buruz hitz egitea, zenbaterainoko garrantzia du herriaren estetikan eta zer balio ekologiko dauka?

I.: Ez bakarrik estetikari, erreka ondare izugarria da eta nire ustez oraindik berreskuragarria da. Zati haundi batean ikutu barik dago, garaiz gaude erreka kontutan hartzeko eta benetan baloratzeko, zeren eta uste bait dut inork ez duela bere



"Hasieran kili kolo zeuden arramak besterik ez zituzten moztu behar, gero demaseko txikizioa egin zuten"

IÑAKI MADINABEITIA

osotasunean baloratzeko.

Kanal bezala ikusi beharrean erreka bezala ikustea komenigarria izango litzateke, hori ondare ikaragarria izango da.

A.: Nik politikoei eskatuko nieke beraien esku dagoen guztia egin dezatela gure semen semeek erreka bat izan dezaten eta ez kanala, poliki-poliki kanal bihurtzen ari da eta.

I.: Garaiz gaude, kanalizatu behar den tokietan kanalizatu egin behar da, baina ezin dugu na egin da dena hormaz josi. Usondoko parkean, esate baterako, konturatu orduko horma txo bat izango dugu eta nik jakin

nahi nuke zergatik ez den hori beste era batera egiten, landaretza izan liteke konponbide bat, hor zehar egiten ari diren bezala. Alemaniaren adibidea jar genezake, han errekek berreskuratzen dabilta, deskanalizatzen, dirua naturalizatzen gastatzen dute, guk, berriz, urbanizatzen.

M.: Garbi dagoena zera da: udaletxeak bere teknikoez gain beste batzuen laguntza behar duela, ekologista edo ekologoen laguntza, Frantziara bezala.

Azkenik, bukatzeko zer esango zenukete konklusio gisa?.

X.: Nik esango nuke izan diren legealdi guztietan jendearen jarrera eta asmoa onak izan direla baina arazoa asmo horiek gauzatzean eta bitartekoak lortzean datzala. Gure lanaren aspektu bat proiektuak kalera

"Europar errekek deskanalizatzen dabilta, dirua naturalizatzen gastatzen dute, guk, berriz, urbanizatzen"

IÑAKI MADINABEITIA

ateratzea izan daiteke, jendeak ikus ditzan eta horrelakorik egiten ez dugula esan ez dezaten.

A.: Nire ustez Udaletxeko jendeak lehen baino sentsibilitate handiagoa azaltzen du baina eskatuko nuke jendea kontutan izatea gauzak apurtu, bota edo horrelakoak egin aurretik.


I.: Nik uste dut herriko estamentu eta kolektiboek, ez bakarrik ekologistek, kasu gehiago egin beharko litzaiekeela eta Udaletxera joaten garenean ez dezala pentsa jendeak inkordiatzera goazenik, ez bait da hori gure asmoa.

Guk uste dugu hemen teknikoak direla "kaporalak", euren gaineratik konstruktoreak eta makroplanak daude eta horietan sartzen ez bazara, molestatzera zoaz, hori aldatzea nahi genuke.





OPEL BERRI ON

ORAINDIK GABON HAUE IAKO GAUZARIK ONENA IKUSTEKO ZAUDE:
OPEL-en AUKERA ZABALA.
HURBIL ZAITEZ ZURE OPEL KONTZESIONARIORA ETA ZEURE BEGIZ
IKUSI: ALAITASUNEZ BETETAKO OPEL FAMILIA.
GABON HAUTAN, OPEL BERRI ZORIONTZUAK. **OPEL** 



TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 53 11 / 15 / 16. BERGARA (Gipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO, LEINTZ BAILARA ETA GOERRI GARAIako

kontzesionaria


Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAN

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tl. 79 62 65

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENTZIAZ.

ALTZAIRUGINTZA ETA LAMINAZIOA



Ibarra, 6

☎ 76 19 40

Faxa: 76 52 43

Postakutxa 5

20570 Bergara
(Gipuzkoa)

ALTOS HORNOS DE BERGARA S.A.

Urteko hilabete eta egunen izenak

Urteko hilabete eta egunen izen zaharrak ahaztuaz doiazkigu. Hona hemen Bergarako edadekuegandik jaso ditudunak. Batzutan egunai lotutako esaerak pe entzun leizke. Hutsuniak eta akatsak izango die eta aitzen emon eiguezue hurrengo baterako be.

I. ILBELTZA

1 Urtebarri eguna, 6 Erregen eguna, Erregenak, 17 San Anton-abat, 22 San Bizente, San Bizentixak (Partaitti), 25 San Paulo (Ubera), San Pauluak.

"Urte barri zoruak pe igarri", "San Bizente hotza neguan bibotza".

II. OTSAILA

2 Kandelaixo eguna, 3 San Blas, 4 Santa Ageda bezperia, 5 Santa Ageda.

"Kandelaixo hotz negua motz, Kandelaixo bero negua gero". "Kandelaixo egunian egualdi ona baino hobe da otsua ardi artian ikustia".

III.- MARTIXA

19 San Jose, 25 Andra Maixa Martiko, 24 Elizamendiko Andra-Mari. Martiko azkenengo eguna eta apirileko lenengo bixak: *"pastore egunak"* ero *"zogomikotiak"*

"Andra Maixa Martiko, artian udia tatiko, handik aurrera betiko".

IV- APRILA

23 San Jurgi, 25 San Markos, 26 Santa Engrazia, 28 San Prudentzio, 29 Santa Katalina.

"San Jurgi, artuak ereitako

goizegi, San Markos, ereindda balegoz". "Elorrixai loran dago? artua ereindda balego".

GARIZUMIAKIN LOTUTAKO EGUNAK

Aratustiak ero Karnabalak. Eguen Zuri ero Eguen Gizen, Autseguna, Erramu Sapatua, Erramu eguna, Aste Santua, Egunen Satua Eguakitz ero Bariku Santua eta baita *"Illurentzia eguna"*, Paskua Sapatua, Paskua Domekia ero Paskua San Martingo, Paskua Astelena, Asentzio eguna, Paskuak (Bergarako jaixak), Paskua eguna ero Paskua Maietzeko, Paskua erdiko ero bigarrengo (astelena), Paskua hirugarrengo (martitzena), Korpusti, Otabak (Elusuko jaixak).

V. MAIETZA

3 Santi Kurutz, 8 San Miel Txiki, 15 San Isidro.

"Apirleko susia urria baiño hobia, Maietzeko susia, ase eiteko gauzia".

VI. JUNIXUA

13 San Antonio, 24 San Juan, 26 San Pelaixo, 29 San Pedro, 30 San Martzial.

"San Pedroz kuku, San Martzialez mutu".

VII. JULIXUA

10 San Kristobal, 18 Santa Maiña, 25 Santiago, 26 Santa Ana, 31 San Inazio.

VIII. AGOSTUA

2 edo 3 San Baladrian (Azaldittako Erromerixia) 10 San Lorentzo, 15 Andra Mari eguna,

16 San Roke, 24 San Bartolome, 31 Kofradixak (Osintxun) San Matei (Uberan). Emeterio eta Zeledonio.

Agostuko lenengo egunei *illegunak* esaten jakuen; esaeria zan segun eta zelako egualdixa egitten zeban egun bakoitzian halako egualdixa egingo zebala hurrengo urteko hilabete bakoitzian.

IX. AGORRA

9 Arantzazuko Amabirjiñian eguna, 16 San Martiñak, 29 San Migelak.

X. URRIXA

Errosaixo Domekia (lengua) 7 Errosaixo eguna, 12 Pilarika eguna; baita *"Ama Birjiña Garotakua"*, egun hori garotan emoten zalako.

XI. ZEMENDIXA

1 Domunsantu eguna, *"Gaztaiñerre eguna"* be bai leku batzutan, 2 Animen, edo Animen eguna, 11 San Martin, 30 San Andres.

XII. ABENDUA

8 Kontzesiño eguna, 13 Santa Luzia, 21 Santo Tomas; Gabonak, 24 Gabon eguna, Gabon gaba, 25 Natibittate, 26 San Esteban, San Juan Txiki 28 Inuzente eguna; Gabonzarrak, 31 San Silbestre, Gabon Zar eguna.

"Santa Luzia eguna, argittu orduko illuna"; "Natibittate, ase eta bete, San Estebantxe, berriz be len letxe"; "... urtian azkenian San Silbestre".

**Juan Martin Elexpuru
Josu Okina**

EGIN LEIKEDOSTAZU?

Leire joan leikeda baina ni ezin leikenaiz.
- Lenago esan leikezostasun; orduan Maitanekin leikeneban egin plana eta alkarrekin joan leikeginan.

Hola egitten dabe berba gure eskola-umiak. Alde batetik amorrua baina bestetik egundoko grazia emoten dost. Izan be asmaziñua patentatzeko modukua da. Batuko aditza erdi-ikasi dabe baiña klaseko ariketetarako eta idazteko da. Gaiñera umiei etxakue batuan berba egittia gustatzen. Bergarako aditza eztoze iñork erakutsi: etxian zela hala eta eskolan bapez. Baiña ahalezko formak asko erabili biharrekuak die eta orduan zer egin dau umien buru kolektibuak? aditz barrixa asmau eta modu oso dotorez gaiñera:

"leike" hartu komodin moduan eta atzetik orainaldiko eta lehenaldiko formak jarri: "leikenaiz leikenintzan, leikejat, leikejakon, leikedau, leikezeban" etbr. Laster gurasuak pe hala hasiko ga hala dalakuan eta zeinek daki Euskal herri erdira zabalduko ezan asmaziño berrixa.

Umiei "chapeau" baina amioi... Hainbeste kostako litzake txikitatik etxian eta batez be eskolan "neike, heike, leike, geinke..." eta holakuak erakustia? Konturatzen ga geure berbetia ahazten eta nahasten gabitzela itxura barik? Uste dot irakasliok zeresan haundixa daukagula.

Juan Martin Elexpuru

**"Leikenaiz,
leikenintzan,
leikejat,
leikejakon,
leikedau,
leikezeban...
Laster gurasuak
pe hala hasiko
ga hala
dalakuan eta
zeinek daki
Euskal Herri
erdira
zabalduko ezan
asmaziño
berrixa".**

"Hikak normalian konfiantzia eta lagunartia esan nahi dau, berbetarako grazia eta erreztasuna. Hika jarduten dabenak nekez izaten dau erderara joteko tentaziñua. Oiñ gauzia pixkat aldatuta dago baiña oiñ arte hiketa ahaztia izaten zan erdeldundu aurreko pausua".

HIKA

Auzuetako jentiak, edade puxkatekuak behintzat, hika egitten dau. Kaleko gizonak, 40-50 urtetik gorakuak, gehixenak. Andrak gutxiago. Mizpildiko bankuetan egoten dien emakumiei bakarrik entzuten zotsela ziñuan lenguan batek. Uste dot gerra aurretik hika ziharduen kaleko andrak hala jarraitu dabela baiña gerra ostekuak ezabela ikasi.

Zeintzun artian hika? gurasuak seme-alabei eta anai-arrebak eren artian behin dozena bat urte ezkerro; eta edozeinekin konfiantzakua ero maila berdinekua dala ikusten danian. Zuka berriz seme-alabak gurasuei eta konfiantza gutxi, errespeto haundixa ero maila diferentia dagonian.

Hikak normalian konfiantzia eta lagunartia esan nahi dau, berbetarako grazia eta erreztasuna. Hika jarduten dabenak nekez izaten dau erderara joteko tentaziñua. Oiñ gauzia puxkat aldatuta dago baiña oin arte hiketa ahaztia izaten zan erdeldundu aurreko pausua.

Hiketa egitten daben gaztien artian "juatela", "jaukaten", "naja-okela" eta holako forma aldrebesak sartu die. Zuzendu biharrekuak, menpeko esaldietan ezta hiketarik erabili bihar eta.

Akatsak akats, ikusten da gaztien artian hiketa ikasteko gogua. Mondrauen, esate baterako, 40ko talde bat hasi da sapatutan hiketa ikasten eta toki faltaz asko geratu ei da kanpuan. Ia Bergaran noiz. Jakina da gaztien berbeta klasia, gaur egunian behintzat, diferentia izaten dala, konplizidadia sortzeagatik eta diferentzia markatzeagatik ero. Hiketak funtziño hori bete leike eta baita argota sortu dain giro aproposa sortu be. Ikusikojonan...

Juan Martin Elexpuru

"Oin lehen moduko artistarik eztago"

Luis Larrañaga "Kikio" (Bergara, 1.932) herriko pertsonaje zelebrenetarikua dogu. Parian tokau ezkerre barria seguru; bai nagusi eta bai txiki, danak ezagutzen dabe joaten dan leku guztietan. Laster jubilaiko dala esan dosku. Baina bera bezelako artista batek eztau jubilaziorik ezagutzen.

LUIS LARRAÑAGA

" K I K I O "

artistia

- Zergatik «Kikio» ezizena?

- Loibak ezin zeber esan tio eta "Kikio" esaten zosten. Handitxik dator.

- Txikitero famia daukazu, gora ala behera egin dau txikiteuak?

- Guk, kuadrilakuak gehixao. Poteo terriblia eitten dou.

- Ardao gorrixa ala beltza?

- Bixak. Bazkaltzeko nahixago dot beltza. Poteatzeko gorrixa.

- Zenbat txikito egunian?

- 30 bat.

- Eta zenbat aspirina gozian?

- Aspiriniak etxok existitzen. Lehen bai, kopak eta edaten ginuanian orduan bai aspirinia...

- Gabonetan txanpana?

- Depende. Igual bai, igual ez.

- Nun egin dozu parrandarik haundixena?


- Hementxe Bergaran. Danak antzerakuak die.

- Zeinekin?

- Kuadriliakin beti. Bakarrik iñora bez.

- Astebururako plan bat.

- Lagunekin urten.



- Eta oporretan?

- Roquetas del Maren (Almeria) primeran pasatzen ginuan. Laguna euki neban han. *Vaya rubia...holandesa!!*

- Nor gonbidauko ziñuke afaltzera?

- Oin urtebete hil zan Roman

Durana "Zabale".

- Emakumia gona motzakin, luziakin ala prakekin gustokuen?

- Danera.

- Azkenengo ligia noizkua?

- Ligia? Ibili bai, baina...



KIKIO, MARY BERE NOBIXA HOLANDESAKIN, ALMERIAN.

- **Emakume ideala.**
- Koziñeria ona izan daixela.
- **Zer ez ziñuke isla desertu batera eruango.**
- Eruan bakarrik ardaua eta "pata negra" urdaiazpikoa. Zer ez eruan ezta kitt.
- **Telebista programa bat.**
- "Cantinflas" en pelikulak.
- **Irakurri dozun azken liburua.**
- Bakarrik deportiak leitzen dittut.
- **Badakizu Superman akabau dabela?**
- Bai.
- **Merezi dau Gabonetako argixengatik 6 milioi ta erdi ordaintzia?**
- Dios!... Hortxe ezta kit pa. Hemen dagon nezesidadiakin argixak sobran dare... Herrixa polita geratuko da baina diru asko be ba bada.
- **Zerbaiten faltia sentitzen dozu Bergaran?**
- Ez.
- **Karrera politikorik egiitia pentsau dozu inoiz?**
- Ke ba. Kanpainan parte hartzen dot, besteik ez.
- **Bush ala Clinton?**
- Bixak.
- **Tutia ala musa?**
- Bixak.
- **Perretxikuak batu ala**

- jan?**
- Batzia baiño hobe jatia.
- **Bilbo ala Donostia?**
- Bueno, bueno... Horri erantzun biharra dago, ala?
- **Hondartza ala mendixa?**
- Nik mendixa nahixago dot.
- **Zerbait eskatuko dotsazu Olentzerori?**
- Aber joan zan urtian moduan bonolotua urtetzen jatan.
- **Loterixia berriz tokatze ko esperantzia daukazu?**
- Gripia be hiru bider etortzen da.
- **Zer egingo ziñuke diruakin?**
- Lehen be repartidu in neban eta oin be repartidu.
- **Eta Olentzero edota Baltasar izan ezker o, zein opari egingo zontsake Bergarari datorren urterako?**
- Gabonetako loterixia. Lehenengo premixua, bigarrena eta hirugarrena.
- **Zu bezalako pertsonaje zelebrerik ba dago Bergaran?**
- Eztot ikusten.
- **Daukazun Peña merezi takua da?**
- "Zabale" hil zanetik lagata dago. Simon Arrieta difuntuak ipini zeban. Kuadrila ein giñuan eta hortik zihar joaten nitzan aktuatzera.

- **Zein eginkizun zeunkan bertan?**

- Hortaiko festibaletan flautia jo eta tontokerixa mordua esan.

- **Zein da azkenaldixan gehixen inpresionau zaittuan notizia?**

- Eztakitt ze esan be. Gerra horrek, krisisa... desastria die horrek.

- **Heynckes ala Toshack?**

- Toshack.

- **Zein geratuko da aurretik ligan?**

- Aurten gauzak gaizki dabit, oso gaizki, baina joan zan urtian be gaizki ibili zien eta gero UEFara sartu zien...

- **Zu zeu be futbolista ona ei zinan...**

- *Delantero centro* jokatzen neban. Badakizu zergatik? *Porque era tonto y de remate!!*

- **Zeintzuk dira urteko egunik onena eta txarrena Bergaran?**

- Onena ba... egun honek danak die onak. Oin, golpen bat ero zeozer familixan tokau ezker o rduan txarra.

- **Zela bururatu jatzun txirula sudurrakin jotzen hastia?**

- Aittak jotzen zeban eta handik ikasitta.

- **Ezagutzen dozu beste artistan bat txiruliakin?**

- Telebisiñotik ikusitta, bes-tela ez.

- **Nun euki dozu exitorik haundixena?**

- Astorian, Donostian. Egon zan festibal bat Francon denboran eta Gipuzkoako alkate guztiak egon zien.

- **Oingo artistetatik baten bat famaiko ziñuke?**

- Danak antzerakuak die. Eztaukat faboritoik. Oin ezta dedikatzen jentia. Inok ezta kantatzen, gitarrarik jotzen...

- **Amaitzeko txiste bat.**

- Marikoi hiru klase dare: emoten dabenak, hartzen dabenak eta Reala segundara bajatzeko desiatzen egoten die-nak.

KIROLAK



URTEKO KIROL BERRIAK

1.992ak kirol mailan eman duena argazkitan

BERGARAKO KIROL TALDEAK


Gure herrian diren kirol talde guztien argazkiak

1 992 urte dentsuak ma-
kina bat zeresan eman
du. Kirola protagonista
izan da komunikabideetan, Jo-
ku Olinpikoetako dominak go-
ra eta behera, journalak gora,
juizioa behera. Baina 1.992ak
ez du inolako mugarik ezarri
espainiar kirolarekin hain lotuta
den euskal kirolean.

Urteak dira mentalitatea al-
datu zela, futbolak lehen zeu-
kan protagonismo oso hura
galdu zuela. Gazteak beste kirol
batzu egiten hasi ziren, kirolzale
amorratu eta berrizale askoren
laguntzarekin. Hemen, emai-
tzak eliteko kirolean. Besteak,
sozial mailakoak, ebaluatzeke
daude, baina ikusi ikusten dira.

Ez da kasualitatea Diego
Garcia batek halako maratoni
olimpikoa egitea, Txema Olaza-
bal munduko golf jokalaria one-
netakoa izatea, Urdangarin es-
kubaloilaria 91n Europako
Kopa irabazitako Barcelona
taldearen bihotz bihurtzea,
Iñurrategi anaiak zarata haun-
dirik atera gabe Everestera igo-
tzea, Donostia inguruko hiru
neska kanpetxarrak belar
gaineko hockey-an hain ondo

AURREKO LANAREN FRUITUAK



Joseba LEZETA

**DVko kirol
erredaktorea**

jokatzea... eta badira gehiago.

Halere, 1.992 urte dentsuak
protagonista nagusi bat izan du
gure artean. Ez da hau ere gaur-

ko fruitua. Hainbeste eupada
eta mirespen sortu duen Marino
ohean etzanda zegoen artean,
emoziorik gabe irabazten duen
nafar batek beste askori debe-
katutako maglia rosa janzten
zuen Milanen, Apeninoak, Al-
peak, Dolomitak, italiarrak aho
zabalik laga ondoren. Aste bat-
tzu beranduago bere bigarren
Tour-a zeraman Parisetik Villa-
ba aldera.

Duela lau urte ipurtaundi bat
zela ziotenek «erlijioz» aldatzea
erabaki dute. Lehengoak ez du
balio. Hemen (200 kilometro
iparraldera, ekialdera, hegoal-
dera edo mendebaldera joanda)
ez da sekula horrelako txirrin-
dulari bat ezagutu. Bai bestela-
koak, baina ez horrelakorik.

Sasoi hobeak bizi izan ditu-
ena pelota da; baita txarragoak
ere. Gazteek pelota kontuak ja-
rraitzen dituzte gure herrietan,
badakite Galarza pelotaria dela
eta ez dantzaria, txapelketak
datozenez batak aldea eta
bestearen aurka jartzen dira,
mutiko dexente frontoietara
itzuli da pelota eskutan duela,
esku pilota eta zestako enpresa
berriak sortu dira. Seinale onak.

IKUSPUNTUA

**"Sasoi hobeak bizi izan
dituena pelota da; baita
txarragoak ere. Gazteek
pelota kontuak jarraitzen
dituzte gure herrietan,
badakite Galarza
pelotaria dela eta ez
dantzaria"**



Espainiako afizionatu mailako ziklo kros txapelketa lortu zuen Iñigo Igartuak

Valentziako Burriana hirian **urtarrilaren 11n**. Bergararrak argi erakutsi du urte osoan zehar, ziklo krosean estatuko onena dela eta afizionatu mailan korritu arren, profesionalak ere bere gurpilaren atzetik doazela.

Iñigok hainbat omenaldi jaso zituen herritarren aldetik, esate baterako, Zubietako Oxirondo elkarteak (beheko argazkian), Udalak eta Bergara Kirol Elkarteak eskeinitakoak.

92-93 denboraldia profesional mailan hasi du LOTUS FESTINArekin eta gogor hasi ere. Bere helbururik nagusiena Munduko Txapelketan iazko sailkapen kaxkarra hobetzea izango da.



Jose Mari Zezeagak

ezin izan zuen eskuz binakakako pelota txapelketa irabazi.

Unanue rekin bikote eginez Gasteizko Ogetan, **otsailaren 29an**, jokatu zen partuidua galdu egin zuen Vergara eta Arretxeren aurka.

Bergarar zaletu asko abiatu zen Gasteizera Zezeagari laguntza eskeintzeko asmoarekin, baina ezin... Hurrengo baterako utzi behar.



Kontutan hartzekoak...

1-10: Ion Lazkano

eskalatzaile bergararrak Patagoniako Paineke Orratzaren paretetan zintzilik bi hilabete eman eta bide berri bat ireki ondoren etxera itzuli zen.

1-26: Jesus Jauregik,

Bergara Igeri Elkarteko entrenatzaileak, Gipuzkoako Federazioaren urrezko insignia jaso zuen, urteetan gure herrian igeriketan egindako lanagatik.

2-9: Mateo

Muruamendiaraz,

azken 50 urteetan Bergarako Pelotalekuko intendentea izandakoa hil egin zen 84 urte zituela bihotzekoak jota.

3-7: Bergara Kirol Elkarteko Saskibalo

talde nagusiak 3. mailara igotzea lortu zuen.

3-29: Udal Kirol

Zerbitzuak antolatutako II. Pala Txapelketari Osintxuko frontoian eman zioten hasieran 14 bikotek.

4-4: Beatriz

Jimenezek Sestaon jokatutako Euskadiko Eskalada Txapelketako lehen proba irabazi zuen.



Euskadiko Xake Txapelketa

jokatu zen Bergaran **apirilaren 20tik 26ra bitartean**. Rafa Alvarez barakaldarra izan zen garaile eta 25 xakelariren artean bi bergararrek, Martin Arriaran eta Andres Diez Timofebak, hartu zuten parte. Lehenengoa 15. sailkatu zen eta bigarrena, ostera, 18. Esan dezagun Bergarako Xake Elkartek 20. urteurrena ospatu duela aurten.



Mongatxurra

taldeak irabazi zuen Labegaraietako Futbito Txapelketako. Etxagiren aurka jokatu zuen finala **maiatzaren 3an**, 4 eta 2 nagusituz. Revientak lortu zuen 3. postua Bergarari penalti jaurtiketetan irabazi ondoren. Mongatxurak, III. Fontsi Memorialeko 12 ordutako futbito txapelketa ere irabazi zuen.



Euskal Bizikletaren 2. etaparen helmuga eta hurrengoaren irteera Bergaran izan ziren. Aspaldiko partez goi mailako txirrindularitza gertutik ikusteko aukera izan genuen bergarrok **ekainaren 18 eta 19an.**

Lokatza Txirrindulari Taldeak, Udalaren laguntzarekin, ondo baino hobeto antolatu zuen koloreanizdun tropelaren ailegera. Louviot frantziarra izan genuen Ibargaraiko helmugan lehenengoa, baina bildutako jendetza ugariak Pello, Delgado, Chioccioli, Zarrabeitia, Fignon..., ikusi nahi zituen batez ere. Eta baita ikusi ere, eta ikutu...

Seminarioko patioan egin zen hurrengo etapako irteeraren atariko eta han, geure txirrindulari idoloak inoiz baino gertauago izan genituen.



Amilotx taldeak irabazi zuen Ipintzako Nagusiendako Futbol Txapelketa **uztailaren 17an** ustekabean Mongatxurra taldeari penalti jaurtiketetan nagusitu ondoren. Hurrengo astean, berriz, Toki Ona Beteranoen mailako txapeldunari ere irabazi zien. Argi utzi zuten, beraz, bi mailetan parte hartu zuten 23 taldeetatik onenak zirela.



Kontutan hartzeak...

4-25: Elorregiko Pelotalekua berriztua inauguratu zuten Felipe Altuna auzo alkateak eta Javier Gabilondo eta Carlos Arrondo zinegotziek.


5-10: Unai Urbina Caldereria San Pedro taldeko txirrindulariak gazte mailako Arantzazura Igoeraren XXII. edizioa irabazi zuen.

5-24: Jon Lazkano eta **Kike de Pablos**, Pol-Poleko espediziokoak Nepalera abiatu ziren Izenik Gabeko Drangoko Dorrea eskalatzeko asmoz.

5-30: Bergara K.E.ko 2. mailako kadeteen futbol taldeak Federazioko Kopa irabazi zuen Zumaian.

6-14: Javier Aransaezek juniorretan eta Joseba Etxabek nagusietan irabazi zuten Oilagorra Elkarteak antolatutako **II. Arrantza Lehiaketa**.


6-21: Bergara K.E.ko futbol talde nagusiak preferente mailara igotzea lortu zuen penalti jaurtiketetan Rotetari irabazi eta gero.



Aitor Oregi pelotari gazteak profesional mailan debutatu zuen **abuztuan** Zarautzen Retegi III. arekin bikotea osatuz. Harrezkero, hainbat partidu jokatu ditu 3. eta 2. mailetan. Gustatuko litzaiguke laster batean Zezeaga edota Etxanizekin batera ikustea.



Ramon Maria Loiti angiozartarrak, (ezkerretik hasita lehenengoa) beste bi lagunekin batera, Aconcaguako gailurra (6.970) zapaltzea lortu zuen **abuztuaren 24ean**. Hego Amerikako gailurrik altuenera igotzea berez zaila bada ere, zailagoa oraindik neguan eta zero azpitik 30 gradutako tenperaturetan.





Amaia Arantzabal mendizaleak izugarrizko arrakasta lortu zuen **irailaren 17an** Katmanduko Cho Oyuko (8.189 m.) gailurrera heltzean. Bergarar hau, 8.000 m.tako gailur bat egiten duen lehen euskalduna dugu. Baina lorpen horrek izozketak eragin zizkion hanketan, eta Zaragozako eritetxean ebaketa egin ondoren, hanketako bi behatz potoloak galdu zituen.



AMAIA ARANTZABAL JOSU BEREZIARTUAREKIN CHO OYUKO GAILURREAN

Angel Bideluze motozaleak Euskadiko Mendiko Moto Igoera irabazi du aurten, iaz egin zuen moduan. **Azaroaren 8an** Bergaran jokatuako Gorlako Igoera irabazi ondoren, txapela ziurtatu zuen. Alex Elizburu ere bikain aritu da urtean zehar eta Gorlako Igoera irabazteko segundu erdira geratu zen. Motorretan, bergararren nagusitasuna argi geratu da.



Kontutan hartzekoak...

6-24: Juan Luis Arregi Bergara K. E. ko futbol talde nagusiaren entrenatzailea kargutik kendu zuen presidenteak, taldea mailaz igotzea lortu eta gero.


7-5: Euskadiko Kirol Eskalada

Txapelketako proba bat jokatu zen Bergaran. Gotzon Gardezabal eta Patxi Arozena gizonezkoetan eta Josune Bereziartu emakumezkoetan izan ziren irabazleak.

7-7: Jesus Izagirre gasteiztarra izendatu zuten elkarteko agintariek Bergara K.E. ko entrenatzaile.


10-24: Fontsi Memoriala jokatu zen Seminarioko patioan. Futbitoa, Herri Milla lasterketa eta Mendiko Bizkikleten Txapelketa izan ziren ekitaldirik garrantzitsuenak.

11-10: Jose Luis Beitia bergararrak ordezkatu zuen Jeus Izagirre Bergara K.E. ko talde nagusiaren gidaritzan, azken hau presidenteak kargutik kendu ondoren. Beitiak, garaipenarekin estreinatu zuen kargua.



AITOR ZABALETA

Mendiko Kotxe Igoeretakoa Espainiakoa Txapelketa Ordea




PABLO IRIZAR

Clio Kopako Espainiakoa Txapelketa



IBAN RODRIGUEZ


Clio Iniciación Kopako Espainiakoa Txapelketa



Bergarako Auto Gidarien ordezkari nagusiak diren Pablo Irizar, Iban Rodriguez eta Aitor Zabaleta bikain aritu dira denboraldi osoan zehar. Pablok eta Ibanek Espainiakoa Txapelketa lortu zuten Jaramako zirkuitoan **azaroaren 1ean**, Clio Kopan lehenengoak eta Clio Iniciación Kopan bigarrenak. Aitor, bestalde, Espainiakoa Txapelketa orde izan dugu aurten ere, Mendiko Auto Txapelketan.

BERGARA K.E.ko FUTBOL SAILA

Alex Garitano dugu elkarteko presidentea eta Jose Luis Beitia futbol saileko arduradun teknikoa. 8 taldetan banatuta 125 jokalaria inguruk osatzen dute 1952an sortutako elkartearen futbol saila.



PREFERENTE MAILAKO TALDEA.

Goian: Bittor, Clemente, Igor Azkarate, Iñaki Arrieta, Jose Ignacio Luceño, Alex Garitano, Jesus Izagirre, Ion Andoni Urisabel, Xabier Zangitu, Pepe Vallejos, Irune Azpeitia, Lauri Azkargorta.

Behan: Francisco Fernandez, Gorka Zelaia, Gorka Dávila, Jorge Mendoza, Luis Maria Uriarte, Francisco Javier Rodriguez, Josu Arana, Iban Etxeberria, Juan Carlos Gomez De Segura.



2. ERREGIONAL MAILA.

Goiko ilaran: Igor Fernandez, Aser Polvorosa, Jabier Ibarra, Juanjo Nuñez, Fernando Ozaeta, Jabier Cambronell, Asier Elorza, Lauri Azkargorta.

Erdiko ilaran: Aitor Elorza, Asier Muruamendaraz, Paco Vallejos, Manu Diaz, Alex Garitano, Ion Andoni Urisabel, Asier Azkarate, Patxi Osa.

Beheko ilaran: Aritz Ucin, Mikel Gallastegi, Jose Gomez, Igor Legazpia, Juan Luis Etxaniz, Mikel Lijo, Elias Garcia, Juan Luis Arriola.

LEHEN MAILAKO JUBENILAK.

Goian: Ekain Manso, David Maestre, Asier Larrañaga, Enrike Zelaia, Iñaki Birumbrales, Jose Antonio Olabarria, Xabier Ozaeta, Oskar Maiztegi, Markel Egaña.

Behean: Etor Laskurain, Aitor Anton, Ion Ander Gallastegi, Gorka Davila, David Bernal, Gorka Ruiz de Eginio, Gorka Arrieta, Xabier Lazkano.





BIGARREN MAILAKO JUBENILAK.

Zutik: Joxean Olabarria, Manu Martin, Patxi Franco, Xabier Ozaeta, Aritz Juarros, Iñaki Izagirre, Carlos Gomez, Gurutz Beitia, Iñaki Birunbrales, Enrike Zelaia.

Makurtuta: Juan Jose Castro, Aitor Gerrero, Iker Ibarburen, Iban Lazkano, Joseba Duran, Pedro Zafra.



LEHEN MAILAKO KADETEAK.

Goian: Manuel Martin, Eneko Beistegi, Iban Biain, Oskar Teheran, Igor Unzurrunzaga, Bittor Jimenez, Iban Garcia, Ion Garmendia, Igor Uribetxeberria, Eñaut Unamuno.

Behean: Igor Larrañaga, Ion Gallastegi, Asier Rodriguez, Javi Delgado, Iokin Mendiartz, Alex Rodriguez, Iñaki Larrañaga, Javier Martinez.



BIGARREN MAILAKO KADETEAK.

Goian: Aitor Larrañaga, Iker Arregi, Ion Alberdi, Gaizka Larrañaga, Ugaitz Ugarte, Garikoitz Altuna, Unai Irazola, Gorka Aiestaran, Ander Agila, Luis Maria Cambronero, Bikendi Lazkano, Goio De Miguel, Ramon Azkarate.

Behean: Xabi Uribesalgo, Maikel Ortiz, Iban Franco, Peli Iturrikastillo, Iban Blanco, Ekaitz Mendizabal, Ander Aranburu, Ibai Elorza, Gorka Mendoza, Asier Arriaran, Enrike Nieto.



LEHEN MAILAKO INFANTILAK.

Goian: Ugalde, Aitor Borobia, Aritz Aizpurua, Alvaro Tabares, Iñaki Goikoetxea, Mikel Martin, Iker Bolibar, Xabier Zangitu, David Moreno, Ion Aizpiri, Julian Ugalde.

Behean: Pedro Jausoro, Xabier Zabaleta, Aitor Elgoro, Juan Sanchez, Javi Fernandez, Urko Irizar, Unai Bengoa, Mikel Garate, Gorka San Vicente, Aitor Moreno.




BIGARREN MAILAKO INFANTILAK.

Goian: Jabier Oregi, Ander Elorza, Raul Luke, Unai Rollan, Iban Barkero, Unai Azkondo, Oier Loiola, Gorka Larrañaga, Jon Otaegi, Miguel Angel Alonso, Jon Pescador, Fernando Oregi.

Behean: Jakobe Larrañaga, Andres Encabo, Jose Angel Arevalo, Unai Uribesalgo, Aitor Olabarria, Jon Eraña, Jon Andueza, Andoni Izagirre, Aniotz Birumbrales.

BERGARA K.E.ko SASKIBALOI SAILA

Taldeko Idazkari Nagusia Jabi Garmendia da eta Arduradun Teknikoa, ostera, Jose Ignacio Oyarzabal. Guztira, bost taldetan banatutako 40 lagun ionguruk osatzen dute B.K.E.ko Saskibaloia saila.





GIZONEZKO SENIORRAK.

Zutik: Asier Ziarsolo, Amadeo Corrius, Iñaki Arbulu, Angel Mari Iñarra, Aniotz Gabilondo, Jose Ignacio Oyarzabal.

Makurtuta: Oskar Rodriguez, Francisco Herzog, Mikel Etxeberria, Mikel Garitano, Iñaki Martinez, Antonio Muñoz. Falta dira: Fernando Moreton, Alex Gardoki, Jabier Garmendia, Karmelo Kalboetxeaga.

GIZONEZKO GAZTEAK.

Zutik: Jose Ignacio Familiar, Iñigo Ziarsolo, Luis Herzog, Alfonso Romera, David Urbina, Jesus Mari Etxaniz.

Makurtuta: Francisco Tena, Xabier Unamuno, Ugutz Basauri, Iñaki Goikoetxea, Jon Jauregi, Asier Blazquez.



GIZONEZKO KADETEAK.

Zutik: Herreros, Guerrero, Jesus Alvarez, Xabi Ramirez.

Makurtuta: Diego, Gorka Blazquez, Aitor, Iñigo Igarza.



EMAKUMEZKO NAGUSIAK.

Zutik: Xabier Mujika (2. entrenatzailea), Ainhoa Larrañaga, Maria Fernandez, Laura Begiristain, Blanca Cebrián, Ane Aguila, Antonio Ot (entrenatzailea).

Makurtuta: Sonia Sanchez, Izaskun Arroyo, Eva Alzas, Maria Romero, Ana Ot.



EMAKUMEZKO GAZTEAK.

Zutik: Ramon Conde, Arantzazu Txintxurreta, Amaia Aperribai, Nuria Sanchez, Maria Fernandez, Ainara Lete, Iñigo Martin.


Makurtuta: Leire Alvarez, Ainhoa Carazo, Amaia Zabaleta, Amaia Anton.

EMAKUMEZKO KADETEAK.

Zutik: Jabier Martin, Jasone Zabala, Joana Lopez, Ana Belastegi, Oihana Unamuno, Eba Larrañaga, Nekane Martinez.

Makurtuta: Irantzu Blanco, Maider Urbina, Ana Gomez, Usuri Garitano, Josune Fernandez, Joana Cabo, Agurtzane Iñarra.





BERGARA K.E.ko ESKUBALOI SAILA

Eskubaloi saileko arduradun nagusia Josetxo Muniategi da. 5 talde ari dira lanean, hiru gizonezko eta beste bi emakumezko.

SENIOR GIZONEZKOAK.

Goian: Zigor Ruiz de Egino, Felix Eguren, Jose Ramon Iturbe, Aitor Cid, Eduardo Iñarra, Josetxo Muniategi.

Behean: Xabi Elgoro, Eugenio Cabo, Aritz Aranguren, Unai Lombide, Iosu Zeziaga, Aitor Ibarra. Falta dira: Xabier Lijo, Ibon Gantxegi, Eduardo Eguren, Igor Basauri, Eduardo Orgaz, Aritz Beistegi.



JUBENIL MUTILAK.

Goian: Juan Luis Ruiz de la Cuesta, Gorka Larrañaga, Iker Gabilondo, Felix Pescador, Kepa Mendibil, Iñigo Idigoras, Oskar Lizarralde,

Behean: Garikoitz Arregi, Xabi Arregi, Jon Elgero, Iñigo Gomez, Ion de Pedro, Ion Sanchez, Aitor Gomez. Falta dira: Julen Montealegre, Ion Sotil, Mikel Garitano, Zigor Urrutia.

KADETE MUTILAK.

Goian: Gorka Astaburuaga, Urtzi Rubio, Asier Lamikiz, Xabier Lijó, Ander Aretxaga, Iker Larrañaga, Ekain Sotil.

Behean: Mikel Almorza, Aitor Aldanondo, Aitor Sanchez, Iker Beitia, Gotzon Aranguren, Ibon Osa. Falta dira: Aritz Etxaniz, Iker Idigoras, Eñaut Alvarez, Igor Garmendia, Ibai Kareaga.



EMAKUMEZKO JUBENILAK.

Goian: Natalia Chups, Arantzazu Eguren, Aintzane Larrañaga, Ana Ayastuy, Itziar Iturbe, Lorea Manterola, Iñaki Cantero.

Behean: Maider Lete, Ane Olabide, Eli Jauregi, Sonia Gimbert, Oiana Ezenarro. Falta Dirá: Larraitz Mendikute, Amaia Lazkano, Saioa Berraondo.




KADETE NESKAK.

Goian: Aitziber Etxeberria, Ione Moñux, Nerea Azkarate, Nagore Iñurrategi, Itsaso Ezenarro, Usue Manterola.

Behean: Hitz Kareaga, Enara San Andres, Oihana Agirre, Aintzane Gardoki. Falta dira: Naiara Arietaleanizbeaskoa, Aintzane Rementeria, Amaia Arregi, Saioa Elizalde, Sonia Dávila.





BERGARA K.E.ko PELOTA SAILA

Reyes Azkoitia, Luis Mari Gutierrez eta Zabaleta aritzen dira arduradun lanetan, 20 bat pelotarik osatzen duten sailean.

NAGUSIAK.

Goiko ilaran: Haritz Uribesalgo, Igor Oruesagasti, Edu Samaniego, Ioseba Larrañaga, Koldo Muguruza, Ioseba Oregi.

Beheko ilaran: Aitor Muruamendaraz, Iker Muruamendaraz, Abraham Osa, Igor Gutierrez, Xabier Zabaleta.




GAZTEAK.

Goiko ilara: Gorka Martin, Harkaitz Arejolaleiba, Ander Muguruza, Unai Iñarra, Ibai Redondo, Iker Zabaleta, Andoni Arrieta, Iñigo Zabaleta, Harkaitz Ruiz de Loizaga.

Beheko ilara: Asier Bolinaga, Beñat Iñarra, Julen Aranburu, Markel Lete, Ander Muruamendaraz.

LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

Taldeko arduradunak Jesus Kortabarria "Kaxeta", Pello Garitano eta Jose Mari Gabilondo dira. Lokatza Ziklismo Eskola, bost taldetan banatutako 40 lagun inguruk osatzen dute.



BIGARREN URTEKO JUBENILAK.

Ezkerretik eskuinera:

Iosu Errasti, Alex Muela, Xabier Garitano, Iosu Otaegi, Iñaki Olano, Iosu Aizpiri, Agustin Heis, Juantxo Caballero.




LEHEN URTEKO GAZTEAK.

Ezkerretik eskuinera:

Migel Angel Lazpiur, Aitor Armolea, Jose Migel Merudo, Xabier Barkero, Aitor Larrea, Luis Migel Kano. Falta dira: Beñat Aiastui, Ander Markiegi.


BIGARREN URTEKO GAZTEAK.

Ezkerretik eskuinera:
Miguel Angel Lazpiur,
Axibar Elorza, Manuel
Reig, Iñaki Galdos,
Joseba Garitano, Jose
Ramon Aiastui, Gorka
Marzan.



LEHEN URTEKO KADETEAK.

Ezkerretik eskuinera:
Migel Angel Larrañaga,
Aitzol Arregi, Oscar
Medina, Victor Romero,
Juan Molina, Iker Larrea,
Anjel Ezkurra. Falta da:
Iker Gezalaga.



INFANTILAK.

Ezkerretik eskuinera:
Jose Mari Gabilondo,
Aitor Villamediana, Aritz
Urbina, Andoni
Azkargorta, Lander Arin,
Txomin Aranguren,
Xabier Iparragirre,
Eñaut Urzelai. Falta da:
Iker Markiegi.



POL-POL MENDIZALE TALDEA

Andoni Larrañaga da, aurten 50. urtebetetzea ospatu duen Pol-Pol Mendizale Taldeko Presidentea. Bost sail ezberdin biltzen ditu Bergarako kirol talderik zaharrenak.



POL-POL GAZTEAK.

Eserita: Yolanda Durana, Iñaki Arenaza, Larraitz Mendikute, Jose Mari Arenaza, Maite Irizar, Eñaut Uriarte, German Arbulu, Ion Ugarte, Arantzazu Iñarra, Iker Etxeberria, Erkuden Unamuno.

Goian: Mikeldi Garmendia, Eneko Igartua, Mikel Alberdi, Xabier Lijó, Ion Berasategi, Jose Javier Acedo, Joseba Arbulu, Maider Lete, Aintzane Larrañaga, Arantzazu Garitano, Kristina Romero, Birginia Rubio, Ibon Gantxegi.



POL-POL BETERANOAK

Argzkian duzuen horiek Pol-Poleko Beterano taldekoak dira iaz Piriniotara egindako irteera batean.





POL-POL SKI SAILA.

Aurrean: Iulen Agirrebeña.

Bigarren Ilaran Jarrita: Aitziber Uriarte, Jabier Zabaleta, Joxe Balentziaga, Miren Maruri, Asier Agirrebeña.

Bigarren ilara zutik: Kaperotxipi, Zabaleta, Lauri Askargorta, Pili Etxeberria, Iñaki Irazola, Zabaleta, Aitor Garcia, Karmele Agirregabiria, Arrate Areitio, Remi Aranzabal, Ignacio Etxabarri, Miren Aranzabal, Rosa Agirre.



POL-POL ESKALADA SAILA.




POL-POL GAZTETXO SAILEkoak

Urbiara egindako
irteera batea.

BERGARAKO BADMINTON TALDEA

15 federatuk osatzen dute orain dela 4 urte sortutako Bergarako Badminton taldea. Presidentea Victor García da eta entrenatzailea, berriz, Josean Iñarra.



BADMINTON TALDEA.

Goian: Raul Blazquez,
Mikel Vicente,
Francisvo Javie Poza,
Ivan Murillo, Izaskun
Arziniega.

Makurtuta: Carlos
Fernandez, Francisco
Javier Sanchez, Andres
Cachafeiro, Diego
Sanchez, Victor García.



KARATEA

80 bat lagunek praktikatzen du karatea Bergara. Hiru elkarte ezberdinetan banatzen dira: Giartzu, Bolu eta San Martin karate taldeak.



GIARTZU KARATE TALDEA.

Argazkian agertzen direnak ordenik gabe: Asier Garcia, Jonatan Gonzalez, Hodei Irazola, Mikel Aranda, Aitor Larrañaga, Iosu Alberdi, Jokin Arakistain, Aitor Sanchez, Sergio Tejada, Aitor Ormazabal, Markel Babiano, Aimar Olejua, Jone Korkostegi, Paul Osinalde, Josu Zubizarreta, Gaizka Ortiz de Urbina, Oihana Ortiz de Urbina, Iñaki Laborra, Erik Madariaga, Jokin Unzurrunzaga, Gorka Odriozola, Ander Juldain, Markel Arrue, Mikel Gomez, Jakobe Manzisor, Jon Palacios, Iñaki Palacios, Mikel palacios, Rakel Gonzalo, Sergio Nogales, Igor Barrenetxea, Pedro Jose Ots, Sergio Lozano, Jonatan Galvez, Xabier Aranzabal, Aitor Maiztegi, Gaizka Gauna, Unai Larrañaga, Gloria Ferreira, Paulo Fernando, Federico Velez, Paul Garcia, Unai Eguren, Iñaki Flores, Francisco Serrano, Andres Osuna, Aitor Gonzalez.



BOLU KARATE TALDEKO NAGUSAK.

Goiko ilaran: Ion Albeniz, Antonio Garua, Antonio Orellana, Juan Antonio Gonzalez, Jose Antonio Akizu.

Erdiko ilaran: Gorka Iglesias, Aitor Ilarduia, Andoni Sagastume, Jokin Elkoro.

Beheko ilaran: Manolo Moral, Julio Gonzalez, Aitor Albisua, Carlos Albisua, Idoia Moreno, Salvador Gonzalez. **Falta dira:** Iñaki Barrutia, Roberto Umerez, Alberto Garaioa, Aritz Gallastegi, Juan Manuel, Ana.



BOLU KARATE TALDEKO GAZTEAK.

Goiko ilaran: Mikel Leturia, Ibai Zabala, Mikel Uribesalgo, Iker Narváez, Iker Coranti, Lorea Martin, Gorka Iglesias, Aimar Iza, Mikel Martínez, Gorka Villar.

Erdiko ilaran: Igor Gorriño, Aitor Zabarte, Jaime Martín, Gorka González, Iker González, Joseba Larrañaga, Gurutz Orbe.

Beheko ilaran: Mikel Pozo, Aitor Ramírez, Markel Aldai, Iban Nogales, Oier Aldai, Jon Igartua, Harri Albisua, Iker Rollan.



BERGARA KARATE ELKARTEKO GAZTEAK.

Behoko ilaran: Egoitz Sanz, Igor Arrizabalaga, Mikel Gallastegi, Josu Agirre, Markel Gomez, Eneko Prat, Ibai Igarza, Jon Gonzalez, Jon Muñoz, Aitor Jaso, Rachael Olabarria, ezezaguna.

Erdiko ilaran: Gorka Alegria, Jon Gimbert, Iñigo Larrañaga, Imanol Cabanillas, Maite Goñi, Gotzone Jaso, Raul Lucena, Harkaitz Gimbert, Gorka Lagoma, Ainhoa Zafra, Vanesa Vas.

Goiko ilaran: Josu Sudupe, Joseba Inza, Nerea Cabanillas, Maite Cot, Aitor Gonzalez, Jesus Gomez, Manolo Gutierrez, Oscar Santiago, Barrie John Olabarria, Josu Lete, Raul Blanco, Josu Gonzalez.




BERGARA KARATE ELKARTEKO NAGUSIAK.

Ezkerretik eskumara:
Manolo, Aitor Markina,
Manu Curado, Miguel
Galvan (elkarteko
arduradun teknikoa).

BERGARA IGERI ELKARTEA

Jose Mari de Borja Alberdi da aurten 20 urte bete dituen elkarteko presidentea. Jesus Jauregi, berriz, 42 igerilari federatu biltzen dituen taldeko arduradun teknikoa dugu.



IGERI TALDEA.

Beheko ilaran jarrita: Aitor Alberdi, Xabier De Borja, Nora Olabide, Gorka Gonzalez, Gema Ortiz, Iñigo Gallastegi, Jone Telleria, Unai Alberdi, Aritz Garcia.

Erdiko ilaran zutik: ezezaguna, Sonia Varela, Ana Gonzalez, Itzal Gallastegi, Ainhoa Alberdi, Intza Arregi, Juan De Borja, Unai Mugika, Mainer Igartua, Kepa Irizar, Andoitz Gallastegi, Asier Irazola, Jon Jauregi, Juan Hernandez, Eneritz Muguruza.


Goiko ilaran zutik: Zigor Garcia, Agurtzane Crespo, Eli Alberdi, Ainhoa Sanchez, Aintzane Pagaldai, Kristina Irigoien, Mikel Igartua, Antxon Maiztegi, Juan Orgaz, Jon Mendizabal, Ainhoa Basauri, Oihana Manso.

WATERPOLO TALDEA.

Zutik: Unai Lazkano, Aitor Alberdi, Xabier de Borja, Ion, Aritz Garcia, Ion Jauregi, Kepa Irizar, Unai Alberdi, Jesus Mari Zabaleta (entrenatzailea)

Makurtuta: Iñigo Gallastegi, Markos Larrañaga, Iagoba, Asier Perez, Mikel Lopez, Iosu.

Falta dira: Ion Muniategi, Iban Chimeno, Aitor Urzelai, Jose Angel Jauregi.



BERGARAKO XAKE TALDEA

Orain dela 20 urte sortutako elkarteko arduraduna Miguel Angel Muela dugu eta idazkaria, berriz, Edurne Zabaleta. 100 federatu inguru biltzen ditu, jokalaririk nabarmenenak Martin Arriaran eta Andres Díez Timofeva direlarik.

Martin Arriaran eta Andres Díez Timofeva, Bergaran aurten jokaturako Euskadiko Xake Txapelketan bergarar ordezkariak,



ANTZUOLA TRIATLOI TALDEA

3 antzuolar eta 9 bergararrek osatzen dute eskia, igeriketa, korrika eta bizikletan ondo aritzea eskatzen duen Antzula Triatloi Taldea.



ANTZUOLA TRIATLOI TALDEA.

Zutik: Eduardo Jauregi, Matias Varela, Aitor Unamuno, Eugenio Alles, Aiert Lizarralde, Juan Martin Elexpuru, Aitor Peña.

Makurtuta: Jabi Arevalillo, Iñaki Zenitagoia, Josu Errasti, Xabier Azkarate, Juan Balentziaga, Mikel Larrañaga. **Falta dira:** Ion Ander Arantzabal, Alex Labaien, Jesus Maria Lezeta, Aitor Alberdi.



ARIZNOA GIMNASIA ERRITMIKO TALDEA

12 urte lanean eman duen Ariznoa Gimnasia Erritmiko Taldeko arduraduna Izaskun Agirregabiria dugu. Guztira 70 neskato gazte biltzen ditu.



ARIZNOA GIMNASIA ERRITMIKO TALDEA.

Lehen ilaran: Lorea Olla,
Amaia Torre, Alba Maestre.

Bigarren ilaran: Jaione
Igartua, Ane Unzurrunzaga,
Ainhoa Alberdi.

Hirugarren ilaran: Itziar
Lopez, Lorea Askasibar,
Amaia Ortiz de Urbina,
Mireia Gonzalez, Nerea
Osinalde, Nerea Aiestaran,
Nerea Mendizabal, Janire
Albizu.

Laugarren ilaran: Ezozi
Artaetxebarria, Amaia
Arrieta, Ana Sebal, Saioa
Garitano, Aiago Altuna,
Ainhoa Unamuno, Nagore
Davila.

ZALEAK ATLETISMO TALDEA

Miguel Angel Muela da orain dela 6 urte sortutako atletismo taldearen arduraduna. 50 federatu biltzen ditu.



ZALEAK ATLETISMO TALDEA.

Zutik: Lidia, Xabier,
Bittor Rodriguez, Eñaut
Uriarte, Patricia, Oscar,
Ana, Alex, Antonio,
Giomar, Antonio, Dani,
David.

Makurtuta: Vanessa,
Sara, Lorea, Miguel
Angel Muela
(arduraduna), Mikel,
Andoni.

ZAPELAITZ MOTOZALE ELKARTEA

Jakina da Bergaran betidanik izan den motorretarako zaletasuna. Zapelaitz Elkarteak herriko 25 bat motozale inguru biltzen ditu, tartean Angel Bideluze Mendiko Moto Igoeretako Euskadiko Txapelduna.



ZAPELAITZ MOTOZALE ELKARTEA.

Zutik: Victor Edrono, Juan Carlos Fernandez, Ruben Baladron, Fernando Hernandez, Fernando Karasatorre, Imanol Zalakain, Estivaliz Alkorta, Xabier Zalakain, Amaia Elkoroberezibar, Martin Odriozola, Eloy Arregi, Iñaki Saez De Maturana, Andoni Martin, Joxe Arregi, Alex Elizburu, Mila Elorza, Susana.

Makurtuta: Elsa Manso, Oscar Navarro, Joxe Felix Elizburu, Jon Ander Egaña, Genma Oyanguren, Juan Miguel Briongos, Miguel Angel Moreno, Ramon Ambroy.

Patri Bideluze, Ramon Ambroi, Angel Bideluze eta Alex Elizburu, Zapelaitz Motozale Elkarteko ordezkari nagusiak.





ASPERTZEN EZ DUEN ZINTZARRIA


Egun osoa euskaraz

*Bertsoak, trikitixa, musika goxoa, erri kirolak,
alkarrizketak, kultur saioak, errietako barriak,
umeen irratsaioak, alaitasuna...*

212 Postakutxa 20600 Eibar ☎ (943) 12 01 61 Faxe: 12 01 73

ZA
ELK

Jakin
den
Zape
moto
Ango
Igoe



AIA

Zetke
gare
Cezar
Ezgar

Makurutu: Eba
Mansu, Oscar Navarri
Iosu Felix Bizkano, Ion
Ander Egana, Genmi
Oyanguren, Juan
Miguel Duiangui
Michel Angel Morcni
Pamón Añino

Pam Duiangui
Angel, Angel Duiangui
Jon Aizpuru
Zapalaz
Elkano

MahainguruA

KRISI INDUSTRIALAREN ERAGINA BERGARAN

ASPALDIAN NONAHI ENTZUTEN DIRA KRISI-HOTSAK. HALAKO LANTEGI ITXI EGIN DUTELA, BESTE HARTAN ASTEAN HIRU EGUNETAN EGITEN DUTELA LAN, HURRENGOAN, PLANTILA ERREGULAZIOA EGIN BEHAR DUTELA... BERGARA ERE EZ DA IZURRITE HORRETATIK APARTE GERATU. BAINA, ZEIN DA GURE HERRIAK BIZI DUEN EGOERA, ETA NOLA LOR GENEZAKE KINKA HORRETATIK IRTETEA?
GALDERA HORIEI ERANTZUTEN, MAHAI BATEN BUELTAN BILDU DITUGU MARIJE UNAMUNO, MIKEL LAZPIUR, JOSE LUIS GARITANO ETA JOSE ANTONIO SANCHEZ.

JOSE LUIS GARITANO: ADEGUI GIPUZKOAKO ENPRESARIOEN ELKARTEKO IDAZKARI OROKOR ORDEZKOA. 46 URTE.

MIKEL LAZPIUR: BERGARAKO LAZPIUR ENPRESAKO UGAZABA. 50 URTE.

MARIJE UNAMUNO: UDALEKO ENPLEGU TEKNIKARIA. 28 URTE.

JOSE ANTONIO SANCHEZ: CCOOeko GIPUZKOAKO ANTOLAKETA ARDURADUNA. 35 URTE.



BERRIGARA: Hasteko, ba-koitzak Bergarako industriaren egoera nola ikusten duzuen azaltzea eskatuko genizueke:

MARIJE UNAMUNO: Nik, orain dela 5-6 hilabete Bergarako Udalak egin zuen estudio bateko datuak eman ditzaket. Estudio horretan, industria, zerbitzuak eta konstruzioa ere aztertu ziren baina orain industriari buruzko datuak emango ditut. Bueno, hasteko zer motatako industria daukagun. Bada, gehiena industria txikia, 20 langile baino gutxiago dutenak. Haundia, oso gutxi.

Gero, produkzioari dagokionez, % 50a metal produkzioan dabil, % 25a makina eta ekipo mekanikoak prestatzen, konpontzen, etab.etan eta beste % 25a testilean, automozioan, etab.etan.

Plantilei buruz, berriz, % 24ak esaten du hemendik 3 urtera igotzea espero duela, % 43ak berdin eustea eta % 33ak bajatzea.

Eta, azkenik, zer motatako lanpostuak desagertuko diren eta zer motatakoak sortuko diren, ba, kualifikazio bajeenekoak desagertuko dira eta goimailako lanpostuak sortuko dira, batez ere, metalaren eta egurraren arloan.

MIKEL LAZPIUR: Nik herriko egoera zela dagoen esateko daturik ez daukat. Nik neure enpresakoak badauzkat baina enpresa baten egoerak gauza gutxi esan nahi du herriaren egoera azaltzeko. Hala ere, nik egoera nahiko larri ikusten dut, ze egia da bai, nahiko bariedade dagoela baina denak ere nahiko problemakin dabilzala uste dut. Esate baterako hor daukagu siderurgia nahiko arazorekin, Linea Zurian ere lana bai baina ondo ez, testila zer esanik ez... Gero tailer txikiak, ba, denetik egongo da, baina denak ere orain urtebete baino okerrago. Tornileria mundua ere, Berga-



ran oso inportantea izan dena, eta oraindik dena, ba, nahiko problemarekin... Ez dakit, baina langabezia % 15-20 inguruan ibiliko da, Bergaran.

MARIJE UNAMUNO: % 12a da.

JOSE ANTONIO SANCHEZ: Nik uste dut Gipuzkoa mailan Bergaran eta Deba Garaia ez direla txarren daudenak, nire ustez ondoen daudenak dira baina horrek ez du esan nahi ondo gaudenik. Bergarak ona daukana da sektore asko izan dituela historian zehar eta horri esker mantenu da industria eta ekonomia maila on bat.

Adibidez, momentu honetan krisia dago, krisi koiuntural haundia dago baina, igual esaten dut e, ez daukagu krisi historikoa, esturkturena. Honekin esan nahi dut seguraski momentu honetan krisiak Bergarari ez diola beste leku batzutan moduko kolpe haundirik emango baina luzera neurriak hartzen ez baditugu, ziur-ziur etorriko dela kolpe haundi hori.

MIKEL LAZPIUR: Problema serio baten aurrean gaudela uste dut, ezin dugula esan krisirik ez dagoenik ze kontutan hartu behar da beste gauza bat oso inportantea, kanpotik ez datorrela inbertsiorik eta bertako enpresei ere inbertsio haundirik egiteko asmorik ez zaiela ikusten.

JOSE ANTONIO SANCHEZ: Nik ez nuen hain pesimista izan nahi ze, sarritan, mensajeak ematen dira nahiko negatiboak eta gu, sindikatuak, tartekoak gara. Gu, orain dela urtebete hasi ginen esaten egoera nahiko txarra zela eta beste batzuk ez zuten horrelakorik esaten. Gogoratzen naiz ni oraindik, eta hor egongo dira idazkiak ikusteko, Eusko Jaurlaritzak eta beste espertu batzuk nola esaten zuten, «hau onera doa», etab. baina gaur egunean gauden bezala gaude.

JOSE LUIS GARITANO: Nere iritziz, gauza zentratzeko lehenengo esan behar da, ekonomia globalki ez dagoela krisi-

an. Errealidadea da tasak, BPG (Barne Produktu Gordina edo PIB), positiboak direla. Beste aldetik, esan behar da ekonomia prozesuak nahiko luzeak izaten direla eta prozesu postibo global horren barruan baju-une batean gaudela. Eta esanda globalean ez gaudela krisian, nahiz eta krisira heltzeko mementuan gaudela onartu beharra daukagun.

Bestalde ezin dezakegu bistatik kendu munduan zer gertatzen ari den, Golkoko Gerraren ondorioak, Alemaniaren batuketak, Ekialdeko egoera... eta guzti horrek munduan ekarri dituen ondorioak. Dena dela, oraindik aurtengo eta datorren urterako indizeak positiboak izango dira. Eta, Bergarara etorrita, ba Bergara da herri bat ba, kataian doana eta guzti horren ondorioak jasotzen dituena eta momentu honetan, ba, egoera kaskarrean dago.

BERRIGARA: Hurrengo zikloa positiboa izango da orduan?

JOSE LUIS GARITANO: Egoera positibo baten barruan orain jausi egin gara eta hemendik epe motzera etorriko da fase positiboa, globalki e, globalki, kontutan hartuta, industria, zerbitzuak eta nekazal sektorea.

JOSE ANTONIO SANCHEZ: Nik pentsatzen dut arlo sozialean gabiltzan jendeak baikorrak izan behar dugula baina uste dut ezin dugula esan horrela garbi «denbora hobeak etorriko dira» ze horretarako politika ekonomiko garbi bat egin behar da, neurri garbi eta bereziak hartu behar dira eta neurri horiek momentuz, ez dira inondik ikusten. Gainera kontutan hartu behar da Europara sartzera goazela eta hor apustu latza daukagula bai bergararrok eta euskaldunok, orokorrean eta guk ez dugu horri begira bide bat zabalduta dagoenik ikusten.

Lantegietako plantilei dagokienez, Bergarako lantegietako % 24ak hemendik 3 urtera igotzea espero du, % 43ak berdin esutea eta %33ak jeistea

MARIJE UNAMUNO

JOSE LUIS GARITANO: Datu bat dago argia, objetiboa, mundu guztirako balio duena, ekonomiaren hazkundera ez bada hirutik gora langabezia sortzen da. Hortik gora lanpostuak sortzen dira eta hortik behera langabezia. Orduan aurrera begira, garbi esan daiteke industriak aurrera begira ez daukala posibilitaterik hazkundera hori lortzeko.

Orduan beti sortuko da transferentzia bat industrietatik beste sektore batzutaratara. Industria bera, nahiz eta ekonomia globalki hazkundera horretara hurbildu, sektore industrialak beti hortik behera egongo da. Orduan, industriak reziklajeari behar du, aldaketak behar ditu, baina kontuan eduki behar da



beti orain dituen aktiboak baino gutxiago izango dituela gerora. Orduan, pentsatzen dugu ekonomia orokorrean aurrera joango dela, baina beste sektore batzuk indartuta, hau da zerbitzu sektorea.

MIKEL LAZPIUR: Nik gauza bat esango dizut Jose Luis, zuek datu makroekonomiko horiek manejatzen dituzue eta ni ez naiz ekonomista baina ni ez nago ados horrekin ezta urrinetik ere. Gu mobitzen gara industrietako ate txiki horietatik eta neri joan zen astean esaten zidan Elgoibarko industrial batek, Elgoibar nik badakit oso kastingautu dagoela baina, esaten zidan berak 50 urte daramala lanean eta ez duela sekula ezagutu halako krisi gogorrik eta gure klienterik onenak oso krisi gogorrean daude. Guk zorionez edo zoritxarrez ikutzen ditugu sektore asko, ikutzen dugu linea zuria, errodamentuen sektorea, automozioa, mikroelektronika, etab. eta gaurko egunean in-

"Elgoibarko industrial batek esaten zidan berak 50 urte daramala lanean eta ez duela sekula ezagutu halako krisi gogorrik".

MIKEL LAZPIUR

dustrian dagoen egoera neretzat oso serioa da, oso serioa.

JOSE LUIS GARITANO: Beste kontzeptu bat, Mikel. Nik uste dut ezin leikela esan sektore bat krisian dagoela, gaur egunean sektore berean enpresa bat egon leike ondo eta beste bat gaizki. Eta, beste gauza bat zenbat eta krisi haundiagoa dagoen negoziatorako aukera haundiago dago, ze ekonomia beti ziklikoa da, eta orduan kontua da gaizki dagoen momentuan enpresa bakoitzak kontuan eduki behar duela zer egin behar duen hurrengo denboran bere irtenbidea bilatzeko. Hemen, makroekonomia, makrosektoreak, etab. alhora utzita, kontua da enpresa batek dirua irabazten duen ala ez, eta horren arabera, zer inbertsio egiten duen eta zer lanpostu berri sortzeko kapazitatea duen. Orduan nik uste dut mensaje positibo bat eman leikela eta komeni dela ematea. Ekonomia gorantz doa, errealidadea da,



BPGren (PIB) azken datuak positiboak dira: 5'4, 4'5, 2'3, aurten 1'5 eta datorren urterako, berriz, 1.

MIKEL LAZPIUR: Ni neu ez nintzateke momentu honetan hori esaten atrebituko.

JOSE LUIS GARITANO: Hori da orokorra eta nahi baldin baduzue egin dezakegu errondatxo bat Bergarako egoera zehatzago azalduz. Esaterako, altzairu arloko problematika ikusita Bergara nola dago? Bergara dago «Aceros comunes» taldean eta esan daiteke datorren urtera begira egin dituen inbertsio, restrukturazio eta prestakuntzei esker, ba, nahiko ondo dagoela. Horrek ez du esan nahi Altos Hornosek bere arazoak izango ez dituenik baina globalki da enpresa bat ondo kokatuta dagoena, ondo dimentsionatuta dagoena, instalazio onak dituen ea krisiaren bultzada jasan beharko du baina esan daiteke bide onean doala.

MIKEL LAZPIUR: Hori izan liteke baina nik gauza bat esango dizut. Nik gaur enpresari bezala, datorren urtean zer gertatuko den ez dakit, hori horrela da, eta nik uste dut siderurgika horretakoek ere, nik uste dut, gehiegi ez.

Nik bakarrik datu bat esango dizut siderurgiako materialak gaur egunean Ekialdetik ekartzen diren prezioan ekartzen lagatzen duten bitartean, produktorek ez dauka preziorik hemen, ze nik badakit 11 pta.n kiloan ekartzen dutela barila beltza Poloniatik eta Madrileko gobernuak hori autorizatu egiten du Euskal Herrian daudelako industria tiporik, eta hori hala dagoen bitartean, ni hango ugazaba banintz, ni kontu askorekin ibiliko nintzateke luzerako planak egiten, ze zuk egiten dituzun plan denak halakoxe zirkunstantzia batek izorratzen ditu.

JOSE LUIS GARITANO:



**"Uste dut
mensaje
positibo bat
eman leikela eta
komeni dela
ematea.
Ekonomia
gorantz doa,
errealidadea da,
BPGren azken
datuak
positiboak
dira".**

JOSE LUIS GARITANO

Bueno, eske ekonomian planak dauka daukan balioa. Ekonomia internazionalak baldintzatzen ditu plan horiek.

JOSE ANTONIO SANCHEZ: Nik gauza bat azpimarratuko nuke, bai Bergarako eta bai Euskal Herriko oinarritzko sektorea izan da eta izan beharko da industria eta makroekonomiako datu hori, lehen esan den %3a industrian lortzen ez bada, hemen gaizki ibiliko gara. Lehengo egunean egunkari batek Deba Garaiko datu batzuk zekartzan eta esaten zuen azkenengo urteetan industriarako aktibitate mailan 5 puntu galdu direla eta zerbitzuetan 6 igo baina badakigu zerbitzuen sektorea nolakoa den, hori da «pan para hoy y hambre para mañana».

MARIJE UNAMUNO: Baina hori izan daiteke orain arte gutxi

garatu dugun arlo bat delako, ezagutzen ez dugulako.

JOSE LUIS GARITANO: Bai noski, baina aberastasuna industriari sortzen du.

MIKEL LAZPIUR: Hori esan nahi nuen nik. Behingoagatik sindikatuak eta ugazabak ados gaude, nik beti esan izan dut hori. Zerbitzua gastua da, zerbitzuak dirua dagoen tokian daude, Afrikan ez dago zerbitzurik, Alemanian bai, oso ederak. Baina gauza bat utzi behar da garbi, hemen sortu lehen eta bigarren sektoreak egiten dute eta hirugarrenak gastatu.

MARIJE UNAMUNO: Baina gelditzen zaigun talde hori bideratu beharko dugu, behar bada, alde horretara, ezta.

JOSE ANTONIO SANCHEZ: Birmoldaketak egiten direnean, nahiz eta hemen birmoldaketarik sekula ez den egiten; beti izan da itxi eta gero ez dakit

**"Hor ari dira
Kostan mila
estudio egiten
nola turismoa
bultzatu. Hori
niretzat geure
burua
engainatzea
da".**

**JOSE ANTONIO
SANCHEZ**

zer, ba, egin den bakoitzean, hemen beti aipatzen da zerbitzu mundura transferentzia egongo dela.

Eta, hemen esan behar da, ez Bergara eta ez Gipuzkoa ez

gaudela horretarako prestatuta ez infraestruktura aldetik, ez orografia aldetik, etab. Hor ari dira Kostan mila estudio egiten nola turismoa bultzatu. Hori niretzat geure burua engainatzea da pixkat, ze guk daukaguna daukagu, eta eman genezake eman genezakeena.

JOSE LUIS GARITANO: Mensaje bezala, esan behar da Bergaran dauden sektoreen artean, ba inportanteenak, altzairuak, testila eta linea zuria, zailantza guztiakin e Mikel, baina nik uste txanpa onean daudela. Konstrukzioak behera egingo du eta tailer txikietan ba prestatuta dagoenak, bai teknologia aldetik, bai organizazio aldetik, prestatuta daudenak aurrera egingo dute eta besteak ba ez.

Orduan, ba nik uste dut Udalarari edo kompetentzia daukanari esan behar zaiola industriak tetxo bat daukala. Nahiz eta ondo egon, zerbait galduko du seguraski eta, orduan, bul-




tzatu behar dena da enpresa berriak sortzea. Eta zergatik esaten dut hori? Ba, ezin leikelako pentsatu enpresa haundiak izango direnik lanpostu berriak sortuko dituztenak. Estatu Batuetan lanpostu berrien % 95a enpresa txikiek sortzen dituzte, 50 langile baino gutxiago duten enpresek.

MIKEL LAZPIUR: Hor ezin daiteke esan, txikiak bakarrik. Txikiak ondo ibiltzen dira haundiak dauden inguruan. Nik, ametsetan egingo nuke hor General Motors jarriko balute Amorebietan. Eta, hori hor jartzeko zer egin behar da? Hori pentsatu behar dugu. Ze, enpresa haundiak, alde batetik, ekartzen du enpresa txikien-tzako lana, baina bestaldetik, esijentzia haundiagoa izaten du eta horrekin automatikoki beren probeedoreen, enpresa txikien, nibela igo egiten da. Eta ados nago txikiek izango dutela pisurik haundiena baina hemen haundi batzuk ere behar ditugu.

Orduan, haundi horiek ekartzeko zer egin behar da? Bat, biolentzia zelabait akabatu, nik ez dakit zela, baina hori akabatu egin behar da, bigarren puntua, infrastrukturak mehoratu behar dira ahal diren denak eta, hirugarren puntua jarriko nuke, industria horientzako terreno industrialia. Eta gero, laugarrena badakizue zer jarriko nukeen.

Guk geure argotean «Cambiar la EPRON» esaten dugu. EPRON da memoria elektroniko bat horiek automata programableek eta dutena eta nik esango nuke euskal gizarteari EPRONa aldatu behar zaiola ze ez daukagu mentalitate industrialik.

JOSE LUIS GARITANO: Nik Mikelek esandakoei gehitu egingo nizkieke beste bi gauza. Bat, politika fiskala. Gaur egunean daukagun politika fiskala enpresarioaren eta industriaren kontra doa eta dirua beste leku batzutan inbertitzea bultzatzen du eta ez industriak berak sor-



JOSE LUIS GARITANO

tzen duen aberastasuna industrial berriz inbertitzea. Eta, bigarrena, flexibilitate laborala.

Ezin da lana egin gaur merkatuak duen eboluzioarekin eta enpresarioak dituen loturekin, hau da gaur lana daukat eta 100 langile eta bihar 50 langilerentzako lana edukieta 100 langile mantendu behar. Hori bat itoztea da.

Orduan ezdugu esaten «despido libre» esaten dugu flexibilitate laborala behar dela. Lana dagoela, lanpostuak sortu. Lanik ez dagoela, lanpostuak razionalizatu. Lege baten barruan, eta ez langileen aurka, langileekin ados jarrita eta administrazioa kanpoan geldituta.

JOSE ANTONIO SANCHEZ: Ni guztiarekin ados nago, azkena kenduta.

JOSE LUIS GARITANO: Estatu Batuetan enpresa bat zabaltzen dute goiz batean eta ixten dute goiz batean eta hemen zabaltzen duzu bi urtetan, ideia asmatu, lana, papera, laguntza, lurra, beldurra eta martxan jarri eta ondo badoa ondo doa baina gaizki baldin badoa eta lehen esan dugu, enpresa bat ondo joatea ez dago zure esku bakarrik, kanpoko faktoreak ere badaude. Orduan, kanpoko faktore bategatik lanik gabe geratzen bazara, ba flexibilitatea behar da eta ez aurten dirua galdu eta mantendu, jakinean datorren urtean ere dirua galdu behar duzula, eta mantendu eta mantendu azkenean ito arte.

JOSE ANTONIO SANCHEZ: Nire ustez gaur horretan legeak duen flexibilitatea nahikoa da.

"Nik, ametsetan egingo nuke hor General Motors jarriko balute Amorebietan. Eta, hori jartzeko zer egin behar da? Hori pentsatu behar dugu".

MIKEL LAZPIUR

Gipuzkoan % 34a da kontratazio ebentuala.

JOSE LUIS GARITANO: Legeak ematen du flexibilitatea sartzeko. Guk nahi duguna da flexibilitatea irtetzeko. Eta, Jose Antonio, industrian Gipuzkoan kontratu fijoak dauka % 85ak.

JOSE ANTONIO SANCHEZ: Danok dakigu, danok ezagutzen ditugu, zenbat jende dagoen urteetan kontratu tenporalekin orain leku batean gero bestean. Orduan, nik uste dut, flexibilitate hori badagoela. Ia 30 kontratu mota daude.


JOSE LUIS GARITANO: Guk ez dugu 30 kontratu nahi, guk bat nahi dugu.

JOSE ANTONIO SANCHEZ: European gehien dauden lekuan 9, 10, 12 kontratu mota daude. Hemen 30. Flexibilitate nahikoa dago.

JOSE LUIS GARITANO: Guk nahi duguna da ez aukera asko sartzeko, aukera asko irtetzeko. Hemen aukera asko dago sartzeko eta irtetzeko bat ere ez.

JOSE ANTONIO SANCHEZ: Gero Lazpiurrek lehen esan duenari nik bi gauza gehituko nizkioke. Nire ustez enpresarioak gehiago elkartu beharko liriteke beren lanak aurrera ateratzeko ze, adibidez, kanpora irtetzeko orduan enpresa txikiek ezin dute berek banaka kanpora irten.

20 langileko tailer txiki bat ezin da bera bakarrik European edo Munduan zehar lan bila ibili eta nik esango nuke, enpresarioak ez daudela batere elkartuta. Eta gero, beste gauza bat, hemen herriko hiru sektore inportanteenak aipatu dira. Ba, horien asmoei buruz nik dudak dauzkat ze testilean, adibidez, Bergarako grupo batek planta komertziala kanpoan dauka. Hori ez da seinale ona. Eta, bestea MAYC. Gaurko egoera «regulación tenporal» da baina



gero zer izango den ez dakigu.

MIKEL LAZPIUR: Enpresa geure eskuetan, hemengo ugazaben eskuetan ez dago.

Hori da grabea, geu Italiara joan eta enpresa erosi beharrean, italianoak etorri eta berak erosi.

MARIJE UNAMUNO: Bi gauza horiek aprobetxatuta, beharbada esan behar da, gure bizimodu-kalitatea eta pertsona moduan dugun helburua eta «esplotazioa», eta gauza horiek neurtu egin beharko liritekeela, ez? Ze gu nora begira gaude, zer gertatzen da? Testila kanpora joango da, hori nik garbi daukat, eske dauka erdi prezioan bai lurra, bai montajea, bai produkzioa eta orduan ba, Lazpiurrek esan duena ez..., microchip-a aldatu beharra.

MIKEL LAZPIUR: Eta nik urrinago joan nahi nuen. Nik uste dut gizarte osoari, politikoei, enpresariei, sindikatuari, kaleko jendeari... danoi komeni zaigula pixka bat EPRONA aldatzea. Gaurko egunean ezin daiteteke, nik horrela ikusten dut, Diputazio bat gobernatzeko, ideologia berdineko bi partidu politiko tiki eta miki ibiltzea. Hori lujo bat da Euskal Herriarendako. Maioriak lortzeko aukera ipini behar da eta gero gobernatzen laga eta ondo gobernatzea esijitu. Eta enpresariei berdin. Gaur egunean badaude administrazioetik laguntzak gauzak egiteko eta badaude sistemak, hor daude kalitate-sistemak rentabilitatearekin ematen

"Testila kanpora joango da, hori nik garbi daukat, eske dauka erdi prezioan bai lurra, bai montajea, bai produkzioa..."

MARIJE UNAMUNO

dutenak baina lan asko egin behar da eta asko kostatzen da. Hori erreboluziñoa da enpresan. Orduan aldaketa askoren premia daukagu.

Portugalera joaten zara eta hemengo hirutik baten jernalak daude.

JOSE ANTONIO SANCHEZ: Nik beste puntu bat gehituko nuke: autoteknologia. Teknologia hemen kanpotik ekartzen da eta hori garestia da eta gehienetan hona etortzen denerako zahartuta egoten da. Eta hori eta etengabeko formazioa bultzatu behar da. Badaukagu eskola bat Bergaran eta hori bultzatu behar da.

JOSE LUIS GARITANO: Nik uste dut Udalak hartu beharko lukeela estrategia modun Bergarako desarrollo enpresariala. Eta beste puntu bat: azkenengo urteetan hemen enpresario izatea jota, kastigatuta eta gaizki ikusita egon da eta kultura hori aldatu egin behar da. Orduan, nik Udalari eskatuko nioke en-

"Orduan nik Udalari eskatuko nioke enpresario eskola edo halako zerbait bultzatzea herriko jende gaztea gauzak martxan jartzera animatzeko".

JOSE LUIS GARITANO

presario eskola edo halako zerbait bultzatzea herriko jende gaztea gauzak martxan jartzera animatzeko.

BERRIGARA: Udalak badauka horretarako ahalbi-

derik?

JOSE LUIS GARITANO: Nik uste dut baietz. Hor dago Aretxabaleta, herri txiki bat, egin dituen gauza garrantzitsuak eta martxan jarri ditu enpresa txikiak eta orain nik uste dut hamarrekoen bat edo badirela. Eta hori Udalak bultzatuta egin da.

MARIJE UNAMUNO: Bide horretatik zerbait egiten ari gara. «Arrisku soldata» adibidez, bide horretatik doa. Lehiaketa bat zabaldu ideiak pixka bat lantzen hasteko eta ideiarik hoberenak jaso eta horiei heziketa eman eta prozesu guztiak lagundu, gainera soldata bat emanda. Baina, klaro aurretik ideia bat eduki behar duzu prest eta hori da falta dena.

Gure konkurso honetara Heziketa Okupazionalen ibilitako jendea bakarrik aurkeztu da. Nik espero nuen bestelako jende gaztea ere aurkeztuko zela baina ez.

BERRIGARA: Komentatu-



ko dugu pixka bat 93an mugak zabaltzeak gudan izango duen eragina?

JOSE LUIS GARITANO: Hori beste demagogia bat da. Hemen 86tik daude merkatuak zabalik eta errealidade batean gaude, azkenengo maila egitea falta da, baina gaur egun gure enpresak daude ez Bergara eta Estatu mailako merkatuan baizik Europako mailan.

JOSE ANTONIO SANCHEZ: Behintzat «Acta Unica» dela eta, orain dela 5 edo 6 urte bagenekien zer gertatu behar zen, orduan orain hasi dena pentsatzen hemendik hilabetera mugarik ez dagoela, gaizki dabil, lehendik bagenekien eta badaude harreman komertzialak aspalditik.

BERRIGARA: Orduan zuen ustez ez da aldaketarik izango?

JOSE ANTONIO SANCHEZ: Bueno konpetibitate gehiago ekarriko du.

JOSE LUIS GARITANO: 93ko fase hau nik uste dut superatuta dagoela, bere problematika guztiarekin e, baina superatuta dagoela.

Baina hurrengo salto kualitatiboa, erreferentzia inportan-



JOSE LUIS GARITANO


"Behar beharrezkoa dugu Euskal Herri mailan akordio haundi bat egitea".

JOSE ANTONIO SANCHEZ


tea markatuko duena, nere ustez 97 inguruan izango da, Maastrich-eko akordioa dela eta Sistema Ekonomiko Bakarra sortzen denean. Inflazioa jeitsi behar bada, interesen kostuak jeitsi behar badira, etab. hori ajuste gogorak egin beharko dira eta nahi badu Espainiako eta Espainia barruan dauden herri denek nahi badute Alemania eta European puntan dauden herrien parean egon, egin beharko dira oso esfortzu haundiak.

JOSE ANTONIO SANCHEZ: Puntualizaziotxo bat. Mugak kentzen direnean ez dago dudarik mugimenduak izango direla Europa guztian, bai langileena, bai kapitalena, etab. Eta, orduan niretzat behar-beharrezkoa da ordurako herri hau pittin bat normalizatzea, herri itxura bat ematea. Eta momentu honetan ez dut uste ematen dugunik, bai gure artean dugun iskanbilarengatik eta bai beste batzuk propaganda gehiegi egiten dutelako. Propaganda gehiegi egiten da txarrerako hemengo egoerari buruz.

Hori mozteko, behar-beharrezkoa dugu Euskal Herri mailan akordio haundi bat egitea, denon artean aurrera ateratzeko.




Nola joan zaizu urtea?



Jabier Lazkano
31 urte, tabernaria

Bastante ondo, Bergarako jaixak kenduta, lana egin nuelako. Emakume aldetik, kirol aldetik ere Athletic salbatu egin zen... Aber datorren urtean errepikatzen den.



Antonio Caballero
41 urte, okina

Lanean ondo. Ez dut kexa haundirik. Hala ere, nabaritzen da Bergara mailan egoera ez dela nahi bezain ona eta krisia somatzen da. Langabezia arazo larria dugu.



Maribel Medina
24 urte, langilea

Egia esan, oso azkar pasatu eta ondo joan da. Ezkontzaren lehen urteurrena ere ospatu dugu eta pozik. Bergaran gaztearen jarrera ere hobera doala uste dut.




Luziano Larrañaga
78 urte, jubilatua

Ondo joan jat. Osasun aldetik bi operazio egin behar izan dittut, bat hernia eta bestea begitik. Baina ondo. Balantze ona egingo nuke.



Mari Carmen Sancho
49 urte, etxekoandrea

Nere ustez gauzak ez doaz lehen bezain ondo. Eta ez dut ulertzen horrenbeste diru gastatzea udaletxean. Udala ez zait gustatzen. Merkatuarekin ere zer gertatzen da?



M. Victoria Arizmendi
68 urte, jubilatua

Neri oso ondo. Osasuna, jubilatuta. Pasiatzeko eta beste gauza asko eitteko denbora gehiago daukat. Oin, daukat keja ikusten dotelako beste batzuk, lan-faltan eta langabezian daudela.

GURPIL GAINEN ERAGINKORTASUNA

Guipuzcoanan, gure lehen helburua zerbitzu oso eta eraginkorra eskaintzea da.



Horretarako garraio sare logistiko arin eta dinamikoa daukagu enpresen eskuetan.



Antolakuntza osoa, bere 57 ordezkartzen bidez estatu mailako hedapena duena.



Egunez egun enpresa lanetan agintzen diren beharrei erantzuteko.



Gure eraginkortasuna gurpil gainean ibil dadin.


EGAÑABERRI
E. M.

SAN JUAN AUZOA, Z/G
☎ 76 36 42
20570 BERGARA



GUIPUZCOANA
Paketean garraio eta banaketa

Zer eskatzen diozu urte berriari?



Angel Mari Iñarra
25 urte, ikaslea

Ikasketak hobeto joatea eta ea soldaduzkatik libratzen naizen, alegatu egin dut eta. Kirol mailan saskibaloian jokatzen dut eta ea 2. mailara igotzen dugun.




Valentin Belio
76 urte, jubilatua

Ba betikoa: osasuna, dirua eta maitasuna, zentzu onean eh! Jendearen arteko elkarulertzea egon dadila eta guztiok zoriontsuak izan gaitzela.



Maribel Moreno
12 urte, ikaslea

Nobixua topatzea. Festa gehiago izan eta ikasketak hobetzea ere komeniko litzaidake. Besterik ez.




Basili Garai
73 urte, jubilatua

Neuk eskatzen diot bakea egon dadila. Interesantea nik uste dut lana eta bakea direla. Osasuna ere bai. Besterik ez, horrekin konformatzen naiz.



Maritxu Barrena
37 urte, langilea

Aukera gehiago gazteendako adibidez. Astebukareetan aukera gutxi dituzte eta beraientzat ekitaldi kultural gehiago egotea eskatuko nuke. Pertsonalente, lanpostu fijo bat izatea.



Emilio Martinez
38 urte, langilea

Ni ondo nago horrela, berdin jarraitzea beraz. Okerrago daudenak ere izango dira eta ea gauzak hobera dijoazen jende horrentzat.

KULTURA



URTEKO KULTUR BERRIAK

1.992ak kultura mailan eman duena argazkitan

BERGARAKO KULTUR TALDEAK

Gure herrian diren kultur talde guztien argazkiak

Kultura. Sasiletrauen ja-kinduria, batzuen aspirazioa, liburuetan hautsa batzen duen zera, Udaletxe-ko departamendua ala herriko palaziorik dotoreena okupatzen duen gauza abstraktua... Auskalo.

Edozela be, gaur egun, eta definizioa halamoduzko horietatik asko aldendu barik, berba hori pezetatan neurtzeko dagoen joerak oraindik ere harritu egiten nau. Hainbeste pertsona horretan lanean, honenbeste diru urtean aiuntamentuak, beste honenbeste jende azkenengo antolatu den bertsoaio-kantaldi-ikastaro-hitzaldian. Halaxe ateratzen ditugu kontuak. Baina ez da harritzekoa, datu horiek normalean bajuak izaten direla kontutan hartu eta gainera goitik emanda etorri behar duela uste dugun artean.

Numeroek, zifrek eta kopuruek kezka sortzen digute kulturaren inguruan ere, eta bi eratako kezka gainera: dirutan (zenbat destinatzen da kulturara?) eta egindakoaren emaitzatan (harrera, erantzuna, ikusentzule-jarraitzaile kopurua).

Lehengo horretaz kezkatuak sortu zen (genuen) Kultur Kezka izeneko plataforma, Jaur-laritzak arlo horretan egin dituen murrizketek ekar zezaketen eta dagoeneko ekarri dituzten on-

ESKATUTAKO ETA BESTE HORRENBESTE



Arantzazu LOIDI

**ARRASATE PRESSeko
zuzendaria**

dorioez arduraturik.

Orain ez atzera eta ez aurrera dago taldea, berriz ere aurrekontuen garaia etorri arte, neuk pentsatu. Baina niri neuri zer pentsatu haundiagoa ematen dit kasik bigarren arazoak, kulturak

jasotzen duen erantzunak. Edo jasotzen ez duenak, nahi bada.

Ez naiz hasiko Bergaran egiten denaz, besteak beste ez dut kritikatzeko adina jarraitu eta. Errepasu txiki bat besterik ez, orrialde hau irakurtzen duenak, Bergara, eta bere burua azter dezan: pentsa ezazu Udaletik antolatutako ekintzetan parte hartzen den, besterik antolatzeko ahaleginik ba ote dagoen, zenbat talderen lana ikusten den, zenbat kultur talde dauden, "recreativa cultural"ak barne, nahi bada... Umeak liburutegia ikastolako lanak egiteko beste ezertarako erabiltzen ote dute? Eskolaz kanpoko hainbeste ekintza daukate, eta denbora librearen eta jolasaren kulturaz zer? Txikiteoaren kulturaz zer pentsatzen dut? Durangoko azokan erositako liburu piloak irakurriko dut, gero?...

Galdera gehiegi erantzun soil batentzako. Pedanteegiak seguru, baina neure buruari egiten hasita nago halakoak, eta erantzunak ere hartuko nituzke.

Idatzitakoa berriz irakurri, eta hau ez eskatu zidatena, urteko kulturaren balantzea egitea, baina berdin dio, urte akaberan gertatutakoa laburtzea, urte berrirako asmo onak hartzea adina kostatzen da. Ia 93aren akaberan memoria hobe dugun...

● IKUSPUNTUA


"Numeroek, zifrek eta kopuruek kezka sortzen digute kulturaren inguruan ere, eta bi eratakoak gainera: dirutan eta egindakoaren emaitzatan"



Pol-Poleko Argazki Sailak abenduaren 8an antolatutako Aragozki Rallyaren sari banaketa egin zen **urtarrilaren 16an**. Miguel Angel Iriarte azpeitiarrak irabazi zuen diapositiba sorta onenaren saria, Alejandro Berriozabal berriztarrak, diapositiba onenaren saria jaso zuen, Rafael Cabello eibartarrak Bergara gaiari zegokiona eta Hilario Azkargorta izan genuen herriko partaiderik onena.

92ko Karnabaletako kartel Lehiaketa

Dani Laskurain pintoreak irabazi zuen. Udaletxeak konbokaturiko lehiaketara 31 lan aurkeztu ziren eta epaimahaiak argazkian duzuen hori aukeratu zuen aurtengo aratuzteetako jai egitaraua presentatzeko.



"Ttoparak" Gipuzkoako Haurren IV. Koral Eguna izan zen Bergaran **apirilaren 19an**. Gipuzkoa osotik etorritako 19 taldetan banatutako 800 haur inguruk kantuan jardun zuten egun guztian zehar. Juan Martin Elexpuruk idatzi eta Alfredo Gonzalezek konposaturiko "Udaberrian Txoria" abestia kantatu zuten guztiek bat eginda San Martin plazan.


Labur-labur

1-3: Subijai dendak Jaso zuen Luis Abajo zinegotziaren eskutik Kultura Zerbitzuak antolatutako 1.go Eskaparate Lehiaketaren lehen saria.

1-4: Urte hasierak berri on bat ekarri zigun: Koldo Lizarralde eta Fran Iturbek osatzen duten **LA DUDA** bikoteak Euskadi Gazteak antolatutako 1.go Maketa Lehiaketan Pop talderik onenari zegokion saria eskuratu zuen.

2-1: Bergarako Orfeoia, Aritzeta Abesbatzak eta Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskeini zuten Gasteizko Karmengo elizan. Gabonetako kontzerturako Alfredo Gonzalezek prestaturiko "La Mision" lanak Gasteizen izandako harrera onaren ondoren, beste hainbat kontzertu eman zuten urtean zehar Euskal Herriko zenbait herritan.

3-1: Zabalotegiko Dorrepeko Aretoa berrikuntzak egin ondoren antzerki emanaldietarako zabaldu zen. Taun-Taun txontxongilo taldeak estrenatu zuen.



Musika Eskolakoek Udaberriko Kontzertua

eskaini zuten **maiatzaren 17an**. Gazteen Banda, Tipleen Abesbatza, Soinu Orkestra eta Orkestra Sinfonikoak kontzertu bikaina eskeini zuten frontoian eta Jose Luis Berraondo presidente izandakoa omendu zuten eskolan egindako lanarengatik. Kontzertu ostean bazkaria izan zuten Espoloian eta ondoren, dantzaldia.

VIII. Euskarazko Literatura Lehiaketako

sariak banatu ziren **ekainaren 6an**. Euskara Zerbitzuak antolatutako literatur lehiaketara 300 lan inguru presentatu ziren eta irabazleak honako hauek izan ziren: Iñigo



Albistegi, Ignacio Dovao, Jon Alvarez, Soraia Alonso, Leire Ibarzabal eta Jon Altuna



AGUSTÍN GURRUTXAGAREN "MALEN" TITULODUN ERRETRATUAK JASO ZUEN ZURI BELTZEAN HERRIKO ARGAZKI ONENAREN SARIA.

Bergara Hiria Argazki Lehiaketaren sariak ezagutzera eman ziren **ekainaren 5an**.

Koloretan Benito Cantero bergararrak irabazi zuen lehen saria eta Julian Redondo bilbotarrak eta Jose Luis Feo bergararrak bigarren eta hirugarren sariak.

Zuribeltzean, Felipe Loiola eibartarra izan zen irabazlea, Javier Pedro Fernandez getxotarrak bigarren saria jaso zuen eta Jose Luis Irigoien eibartarra hirugarren sailkatu zen.

Koloretan zein zuribeltzean Agustin Gurrutxagak jaso zuen herritar onenari zegokion saria eta *Bergara berezia* izeneko saria, ostera, Jose Luis Feok irabazi zuen Errekalde Jauregiaren argazki batekin.

Haurren Euskal Jaian

Hego Euskal Herriko lau probintzietatik etorritako 8 taldetan banatutako 300 bat dantzarik hartu zuen parte **ekainaren 28an**. Dantzariak herriko kaleak erabat alaitu bazituzten ere, bergararren erantzuna ez zen onegia izan. Antza denez, eguraldi eguzkitsua aprobetxatuz igandea hondartzan edota mendian igarotzea erabaki zuten.



Labur-labur

4-1: Gipuzkoako Haurren IV Koral Eguna iragartzeko kartel lehiaketaren irabazleak jakitera eman zituen epai-mahaiak. Yolanda Carrero eta Arantzazu Prieto Mariaren Lagundia ikastetxeko 7. mailakoek eginikoa izan zen aukeratua.

4-17: Aritzeta Abesbatzakoak, Alemanian izan genituen kantari. Reinbek-eko (Hanburgo) Udalak gonbidaturik, bost egun izan ziren Alemanian.

5-14: Kultur Etxeak zabaldu zeneko 3. urteurrena bete zuen.

6-7: Ion Aranburu eta Maite Lazkanok osatutako bikoteak irabazi zuen Bergaran jokaturako 14 urtez beherakoentzako Euskadiko XV. Dantza Askatu Txapelketa.

6-20: Taun-Taun Show Taun-Taun taldearen txontxongilo antzezlanaren estreinatu zen Novedades aretoan.

10-24: Joxe Agirre eta Olasorekin **bertso afaria** izan zen Altsasu elkartearen Jardun elkarteak antolatuta



Remigio Mujika Iruñeko Orfeoiaren sortzaile eta lehen zuzendariari omenaldia eskeini zitzaion irailaren 13an orfeoi nafarraren 100. urteurrena ospatzeko. Remigioren jaiotetxean, Barrenkale 44ean plaka oroigarri bat azaldu zen.



Bertso Jaialda antolatu zuen JARDUN Elkarteak irailaren 11n Mariaren Lagundian. Bertan, Peñagarikano, Egaña, Jon Sarasua, Olaso, Euskitze, Mendizabal, Sebastian Lizaso eta Murua bildu ziren.



Bizi Alternatiboaren VI. edizioa egin zen urriaren 26tik azaroaren 1era bitartean. Gehiegizko droga kontsumoari ordezkokoak topatu nahian Udaleko Drogomenpekotasunen Prebentziorako Zerbitzuak antolatutako ihardunaldietan herriko kultur eta kirol taldeek hartu zuten parte.

Udazken Kulturala 92

egitarauari hasiera eman zitzaion **urriaren 24ean** Rigako Haur Abesbatzak Santa Marinako Parrokian eskeini zuen kontzertuarekin. Bi hilabete luzez, nazioarteko zein herriko abesbatza eta musika talde onenarikook ikusi ahal izan ditugu eta, urtero egiten den moduan, Gabonetako kontzertuarekin eman zitzaion amaiera, 2 milioi t'erdiko aurrekontua izan duen Udazken Kulturalari.



Justo Garate Beka Rosa Ramos Alfaro Euskal Filologian lizentziaturiko 26 urteko iruñearrari eman zion Udaleko Kultur Zerbitzuen Batzordeak. UNED, Eusko Ikaskuntza, Justo Garatek berak izendatutako ordezkaria eta partidu politikoetako kideek osatutako Ebaluaketa Batzordeak Rosa Ramosen "Nafarroako egoera demolinguistikoa" proiektuari bekaren 950.000 ppta.k ematea erabaki zuen.

OM 1224
FM 99'8

ENTZUN!






HERRI Irratia



14.30 - 16.00

KALE KANTOIAN



BISJCTOR

OM 1.224 DONOSTIA

LOIOLA FM 99'8

DONOSTIA

Garibai, 19

☎ 42 36 44

Faxa: 42 78 21

O.M. 1.224 / F.M. 99.8

LOIOLA

Azpeitia

☎ 81 44 58

Faxa: 81 39 44

F.M. 99.8



UDAL MUSIKA BANDA.

Goitik hasita 1go Ilaran: Urcisinio Velasco, Xabier Agirre, Alberto Laskurain, J.Ramon Lazkano, Enrike Txurruka, Aitor Moraza, Arrate Etxaniz, Alfredo Gonzalez, Angel Agiriano, Patxi Olabarria, Ane Iraegi, Ricardo Perez, Saturnino Gracia, Mireia Lopez, Arantzazu Agirre, Luis Maria Gutierrez.

2. Ilaran: M. Angel Unamuno, Jose Maria Gonzalez, Irene Murgiondo, Iker Etxeberria, Jose Maria Arrondo, Hiart Bilbao, Jabier Arrondo, Aritz Kortabarria, Eugenio Lacalle, Jesus Maria Matilla, Yolanda Cebrian, Elisabeth Ena, Garbiñe Garitano, Maria Jose Juaristi, Iñigo Alberdi, Rafael Ortubay.

3. Ilaran: Anartz Agirre, Jesus Alvarez, Zigor Martinez, Angel Bañares, Asier Lazkano, Mireia Larrañaga, M. Angel Maniega, Aitor Ibarra, Asier Elorza, Igor Larrañaga, Nekane Gabilondo, Arantzazu Garitano, Ane Olabide, Ricardo Pumar.

4. Ilaran: Argiñe Muruamendiaraz, Tzeitel Martin, Amaia Sasian, Jokin Mendiaratz, Jesus Maria Arriaran, Kepa Mendibil, Jon Leturia, Aitor Elorza, Julen Montealegre, Jesus Urrutia, Jabier Jaso, Luchi Garcia, J. Luis Pumar, Francisco Garcia.



**MUSIKA
ESKOLAKO
GAZTEEN BANDA.**

Goitik hasita 1go

Ilara: Nora Laskurain, Olatz Gabilondo, Aintzane Gardoki.

2. Ilara: Leire Ibarzabal, Iban Blanco, Mikel Markiegi, Aritz Lopez, Mikel Jauregi.

3. Ilara: Ana Belen Carpintero, Ione Etxeberria, Eider Arzelus, Alaitz Zabalo, Argiñe

Muruamendiaraz, Tzeitel Martin, David Lopez De Abetxuko, Julen Montealegre, Eider Gallastegi, Ainhoa Amosarrain.

4. Ilara: Xabier Markiegi, Eider Aranzabal, Nerea Etxeberria, Amaia Sasiain, Nerea Azkarate, Nere Goñi, Lierni Beldarrain, Hiart Bilbao, Anaitz Loyola, Joxe Migel Etxeberria, Aitziber Etxeberria.

5. Ilara: Xabier Agirre, Alberto Laskurain, Iñigo Aranzabal, Asier Lazkano, Jesus Alvarez, Anartz Agirre, Maite Agirre, Aritz Kortabarria, Miguel Angel Maniega, Unai Arregi, Ion Arregi, Angel Agiriano(zuzendaria).

**MUSIKA
ESKOLAKO
AKORDEOI
TALDEA.**

1go ilaran: Nerea Nuñez, Beñat Etxeberria, Sonia Anton, Leire Asiain.

2. ilaran: Inmaculada Rodriguez, Raul Luque, Bakarne Ugartetxea, Aloña Agirrebeña, Amaia Madariaga, Jasone Albisua.



3. ilaran: Onintza Egaña, Larraitz Madinabeitia, Diego Tena, Amaia Etxebarriarteun, Elisabeth Elkoroberezibar, Nerea Azkarate, Natalia Lamelas.

4. ilaran: Patxi Franco, Aitor Gantxegi, Uxue Mujika, Nerea Lete, Miriam Garcia, Nuria Santamaria, Aitor Moraza. **Zutik:** Marije Ugalde (zuzendaria).



MUSIKA ESKOLAKO ORKESTA TXIKIA.

Behetik hasita

Igo ilaran: Alberto Laskurain (zuzendaria), Jokin Perez, Josu Unamuno, Jon Alvarez, Olatz Laborda, Eider Aranzabal.

2. Ilaran: Eneritz Urbietta, Mireia Gonzalez, Nere Goñi.

3. Ilaran: Soledad Matilla, Zerala Arrieta, Maite Agirre.

4. Ilaran: Irma Olabarria, Irune Carballo, Enara Minguez.

5. Ilaran: Itoitz Biain, Amaia Familiar.

6. Ilaran: Lierni Caballero, Mikel Jauregi, Ibai Goenaga, Nora Madariaga, Naiara Lopez.

7. Ilaran: Unai Arregi, Ion Arregi, Iban Blanco, Oihane Epelde.

Azkenengo Ilaran: Jose Miguel Etxeberria, Jaime Martin, Ane Arizaga, Idoia Retegi, Nere Alzola, Aitor Lizarralde, Izaro Amosarrain, Andrea Larrañaga, Sonia Davila.



MUSIKA ESKOLAKO SOINU TALDEA.

Behean: Maite Eraña, Arritxu Barruso, Irantzu Lizarralde, Maite Lazkano, Ainara Altuna, Unai Iñarra, Olatz Arteaga.

Behean: Saioa Andueza, Saioa Belar, Saioa Alberdi, Olatz Txintxurreta, Miren Arzelus, Iker Basauri, Igor Landa, Nerea Perez

**MUSIKA
ESKOLAKO
TIPLEEN
ABEBATZA.**

I.go Ilaran: Miren Elizburu, Elsa Urzelay, Nora Urkia, Sara Usabiaga, Melisa Blazquez, Kristina Larrañaga (zuzendaria), Unai Bilbao, Saioa Etxabarri, Xabier Markiegi, Izaro Moreno, Ion Zangitu.



Bigarren ilaran:

Denis Armendariz, Nerea Telleria, Miriam Olabarria, Gorka Unamuno, Maria Egaña, Maite Gallastegi, Lierni Beldarrain, Iruñe Carballo, Nagore Jauregi.

Hirugarren Ilaran: Maite Usabiaga, Itoitz Biain, Ane Lopez, Ane Miren Zabala, Ion Alvarez, Usoa Agirre, Olatz Laborda, Cinthya Fresno, Nerea Alzola, Ainhoa Lekuano.



MUSIKA ESKOLAKO ORKESTA SINFONIKOA.



BERGARAKO ORFEOIA.

Lehen ilaran: Miren Suinaga, Argiñe Agirrezabal, Felisa Etxeberria, Isabel Juldain, Maria Jesus Ugalde, Kristina Larrañaga (zuzendaria), Maribi Altuna, Maria Luz Garikano, Pili Osinalde, Begoña Larrañaga, Lide Oregi, Mila Andueza.

2. ilaran: Aintzane Arana, Miren Igartua, Miren Gurutze Arana, Arantza Idigoras, Pakita Larrañaga, Arantzazu Azpiazu, Ana Etxaniz, Eba Agirre, Amaia Marco, Blanca Narbaiza.

3. ilaran: Nerea Ibarra, Igone Arana, Nere Unamuno, Pili Guallar, Jesusa Idigoras, Maribel Suinaga, Maria Dolores Moñux, Arantzazu Balanzategi, Blanca Gisasola, Maria Jesus Inza, Asuntxi Gallastegi, Maria Luisa Basterra.

4. ilaran: Juanjo Arriaran, Miguel Basterra, Jose Mari Juldain, Juan Idigoras, Julian Muniategi, Xabier Zabaleta, Valen Moñux, Miguel Moñux, Juan Tomas Zabalo, Jose Maria Etxeberria.

5. ilaran: Carlos Elorza, Vicente Retegi, Rafa Moñux, Serafin Lopez, Marcos Jauregi, Carlos Etxaniz, Martin Arana, Gerardo Mondragon, Francisco Martinez.



BERGARAKO ORFEOI GAZTEA.

Lehenengo ilaran: Eider Arzelus, Soni Rodriguez, Nerea Sanchez, Amaiur Sainz, Itziar Iturbe, Ana Txurruka, Eneritz Urbietta, Hiart Bilbao, Anara Tola, Soledad Matilla, Vanesa Olañeta, Ione Rivas, Miren Urzelay, Edurne Zabala, Aitor Sanchez, Aritz Lopez.

2. Ilaran: Elisabeth Jauregi, Kristina Gallastegi, Amaia Etxebarriarteun, Kristina Atxa, Amaia Alegre, Inmaculada Rodriguez, Irma Olabarria, Anaitz Loiola, Amaia Elgero, Yune Moreno, Andrea Larrañaga, Amaia Madariaga, Ainhoa Barrenetxea, Mikel Markiegi, Aitzol Mujika, Iñigo Aranzabal.

3. Ilaran: Nerea Lete, Jasone Albisua, Elisabeth Ugalde, Monika Arriaran, Nerea Azkarate, Tzeitel Martin, Aitziber Etxeberria, Edurne Mujika, Ainhoa Ibarra, Maider Murgizu, Jone Etxeberria, Leire Eguren, Aiert Lizarralde, Iñaki Olano, Gorka Gantxegi.

4. Ilaran: Maitane Olabarria, Lorea Zenitagoia, Larraitz Agirrebeña, Nuria Santamaria, Saioa Elizalde, Aintzane Gardoki, Olatz Gabilondo, Amaia Familiar, Lierni Caballero, Idurre Lopez, Amaia Etxeberria, Ainara Zubia, Lidia Agirrezabal, Ricardo Landa, Andoni Larrañaga, Jon Belastegi.



ARITZETA ABESBATZA.

Goiko ilaran: Joxe Arrieta, Agustin Badiola, Imanol Urzelai, Jabier Badiola, Juan Luis Aranes, Ibon Arrieta, Jose Ramon Markina, Arturo Cuevas, Modesto Aranburu, Paul Garitano, Jose Ramon Ayastui, Xabier Alzola, Juan Mari Mendizabal, Ismael Arrieta, Joxe Lazkano.

Erdiko ilaran: Ainhoa Arbelaitz, Maria Teresa Guridi, Izaskun Urriategi, Nuria Corrius, Usoa Mendikute, Arantzazu Altzerreka, Eider Landa, Blanca Cebrian, Eider Lete, Maritxu Barrena, Leire Ambroy.

Beheko ilaran: Maite Irizar, Mari Carmen Muela, Monika Fernandez, Nerea Arrieta, Itziar Labaien, Izaskun Muniategi, Ainhoa Albizu, Maite Muñoz, Lierni Muñoz, Aintzane Arenaza, Izaskun Labaien (zuzendaria).

JUBILATUETAKO ABESBATZA.

Atzeko lerroan:

Jerardo Mondragon,
Karmelo Santorcuato,
Martin Arana,
Sabin Zelaia, Fernando
Azkarate,
Bixente Okina.

Erdiko lerroan:

Floren Labaien, Basili
Garai, Pilar Larrañaga,
Blanca Gardokiren
arguna, Rosario Garitano,
Honorio Sanprieto.

Aurreko lerroan:

Felix Aseginolaza, Ines
Elorza (zuzendaria), Jesus
Berroya, Nati Albisua,
Ana Suinaga.





UDAL TXISTULARI TALDEA.

Ramon Atxaniz, Iñaki Arenaza, Iñigo Etxaniz eta Karlso Elorza ditugu Bergarako Udal txistulariak.



JOKIN eta JOSU SOINUJOLEEK

(argazkian erdian agertzen direnak) herrian antolatzen diren jai gehienetan jo eta ke aritzen dira trikitixak, pasakalleak, zein rokanrrol pizak jotzen.



KOBOK DULTZAINERO TALDEA

Jesus Arriaran, Asier Lazkano eta Xabier Agirrek osatzen dute, orain dela urtebete sortu eta Euskal Herriko plaza eta kale guztiak alaitzen dituzten taldea.



IBAIK

taldekoak dira Bergarako berbeneroak. Inguruan izaten diren dantzaldi zein ezkontza asko euren alaitzen dituzte.

Honako hauek osatzen dute taldea: Alberto Laskurain (teklatuak), Jose Mari Arrondo (bateria), Julen Narbaiza (kitarra), Angel Agiriano (bajua) eta Luis Pumar (saxoa).

LA DUDA,

Fran Iturbe (kitarra eta ahotsa) eta Koldo Lizarralde osatutako bikoteak, maketa bikaina kaleratu zuen iaz. Fernando Leiza (bateria) eta Jabier Artiedaren (bajua) laguntzaz zuzenean ere aritu ziren. Telebistan ere ikusi genituen... Baina, Koldok bere aldetik jarraitzea erabaki eta taldea desegin egin da orain dela gutxi.



DAXKA

taldea orain dela hiruzpalau urte sortu zen eta gaur egun honako hauek osatzen dute: Iker (kitarra), Iban (bateria), Mikel (ahotsa), Unai (bajua) eta Jesus.





FUCKING WATH

taldea Poti (bateria), Kapi (kitarra), Gorka (kitarra) eta Elorzak (bajua eta ahotsa) osatzen dute. Zubietako entseiu lokalean ordu piloa sartzen dute besteak beste Metallica edota Antrax talde ospetsuen bertsioak egiten. Jarraitzaile asko dituzte herrian, zuzenean maiz jo ez arren.



ANGIOLILLO.

Esteban (bateria), Iñigo (bajua), Torretxo (kitarra) eta Mutxi (kitarra eta ahotsa) buru-belarri ari dira labegaraietako lokalean, urterril-otsailerako kalean izango dugun maketa grabatzen. Gauzak ondo egin nahian dabilta eta gu, berriz, taldearen soinu berriak daztatzeko gozoz irrikatzen.



SPOK

Imanol (bateria), Valen (kitarra eta ahotsa), Ibon (bajua) eta Berasak (kitarra) osatzen duten taldeari sendotasuna igartzen zaio bigarren kitarra bat gehitu dutenetik. Abeslari baten bila dabilta eta egitasmu berriei eusteko ilusio haundiz. Ea ba...



REQUIEM

taldekoek soinu ilunak dituzte gustoko. Honako hauek dira: Martin (ahotsa), Jose (kitarra), Ziru (bajua), Aitor (bateria), Celso (teklatuak) eta Bernar (kitarra). Azken hauek ez dira argazkian agertzen.



BERRIGARA.

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil, Mikel Elkoroberezibar (erredakzioa eta maketazioa), Alex Azkarate (publizitatea), Edurne Arenaza (harpidetzak), Alex Labaien, Gorka Elorza eta Iñaki Eraña (Erredakzio kontseilua) egiten dute, beste kolaboratzaile mordo batzuekin batera, astero-astero Berrigara.



ARIZ-ONDO.

German Larrañaga, Jesus Mari Kalboetxeaga eta Jose Diazek osatzen dute Ariz-Ondo hilabetekariko erredakzioa.



TXAPA IRRATIA.

30 bat lagun ari dira urte hasieran berriz emititzen hasi zen Txapa Irratian lanean. Irrati aprailuaren dialean, 97.0 FMan hartu dezakezu.



XAMATZ DANTZA TALDEA.

Lehenengo ilaran: Arkaitz Arana, Aitziber Mujika, Aiert Lizarralde, Saioa Berraondo, Maider Lete, Ainhoa Ibarra, Asier Gabilondo, Lidia Agirrezabal, Leire Lazkano, Maider Perez.

Bigarren ilaran: Olatz Olaso, Saioa Elizalde, Naiara Aranburu, Aitor Muruamendiaraz, Aitziber Payros, Alaitz Arana, Ibon Unamuno.

Hirugarren ilaran: Olatz Alberdi, Aitziber Aretxaga, Aintzane Mendizabal, Kristina Atxa, Larraitz Madinabeitia.

Laugarren ilaran: Asier Arrieta, Zigor Ruiz De Egin, Xabier Garitano.



MOISES AZPIAZU DANTZA TALDEA.

Zutik: Ainize Oruesagasti, Amaia Agirre (irakaslea), Iker Basauri.

Makurtuta: Ion Aranburu, Maite Lazkano, Irantzu Lizarralde, Xabier Egidazu. Argazkian taldeko Dani Azpiazu, taldeko arduraduna, falta da.



JARDUN ELKARTEA.

Bergaran euskara bultzatzeko helburuarekin orain dela bi urte t'erdi inguru sortutako elkarteak 320 bazkide ditu une honetan eta Berrigara astekaria ateratzeaz gain, beste hainbat ekintza antolatzen ditu urtean zehar. Komunikabideak, Gazteak, Emakumeak, Kanpo Harremanak, Barne Arazoak eta Kultura taldeetan banatuta, ikastaroak, lehiaketak, bertso saio zein afariak, hitzaldiak, bideo emanaldiak... antolatzen ditu. Argazkian ikus ditzakezue lantalde horietako zenbait partaide.

Makurtuta: Iban Osa, Alex Labaien, Elisabet Agirre, Maria Cosio, Amaia Madinabeitia.

Zutik, lehenengo ilaran: Miguel Angel Alvarez, Luis Mari Belastegi, Edurne Arenaza, Eli Payros, Amaia Zabaleta, Igone Arana.

Zutik atzeko ilaran: Jose Angel Arriaran, Gorka Elorza, Iñaki Eraña.



Jardun Elkartean pazkuetan antolatutako Brusa Lehiaketan parte hartu zuen neska talde bat.



ASKE ASTIALDIRAKO TALDEA.

Goian: Ainhoa Sanz, Oskar Rangil, Nagore Agirre, Nagore Larrañaga, Maria Barrero, Ana Elkoroberezibar, Unai Ziarsolo.

Erdian: Maria Cossio, Amaia Zurutuza, Kristina Gallastegi, Esther Familiar, Amaia Familiar.

Behean: Miren Ostolaza, Mikel Gantxegi.

BERGARAKO FILATELIA TALDEA.

Atslehenero elkartzen dira Kultur Etxean diru eta seiluak biltzeko zañetasuna duten filatelia taldekoak.

Argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara: Jesusa Irazabal, Pedro Rodríguez, Charo Zabala, Ugutz Basauri, Antolin Marchena, Josu Ugalde eta Maria Teresa Bergara.



BERGARAKO KULTUR EKINTZA.

kultura eta hezkuntza mailan gure herrian urteetan lan egin duen elkarteak garai hobegoak ezagutu ditu. Hala ere, argazkian agertzen diren Jesus Jimenez, Jose Mari Beitia (presidentea), Marije Perez (idazkaria) eta Regino Valle buru-belarri aritzen dira urtean zehar zenbait kultur ekitaldi antolatzen.





SURRA IRRATIZALE ELKARTEA

Goiko ilaran: Juanjo Heis, Rafa Herran, Luis Miguel Calvo, Jose Angel Moraza, Sergio Gallardo, Iban Osa, Jeus Maria Barrena, Aitor Agirre.

Erdiko ilaran: Marcos Pereira, Jesus Maria Garcia, Manu Rodriguez, Juan Antonio Marquez.

Beheko ilaran: Eduardo Moreno, Eneko Gutierrez, Andoni Erdabide, Ander Alberdi, Aitzol Mujika, Jesus Maria Gabilondo.




1988an sortua, Surra Irratizaleak Elkarteak Irizar Jauregian du lokala. Uholde, sute, Gorkako Moto Igoera eta beste hainbat gertakizunetan izaten dira. Horrez gain, duten irratizaletasuna harremanak sendotzeko balio zaie.



KUKUMA HANKAPALU TALDEA.

Íñigo Martinez, Mikel Ibarzabal, Andoni Goiti, Gorka Mondragon eta Arkaitz Elkorok Euskal Herriko kale eta herri ugari alaitu dituzte urte osoan zehar. Beraien kale animazioa ezinbestekoa izan da hainbat herri ekintzatan (kilometroak, AEK eguna, Ibilaldia ea...). Seminarioko lokaletan egiten dute lan eta prest daude edozein ekitalditan parte hartzeko.



ZERAMIKA TALDEA.

Zutik: Loli, Maria Jesus Mancisidor (presidentea), Jabier Ugalde, Ainhoa Bollar, Maribi Peña.

Jarrita: Cecilia Gomez, Pura Gomez, Pili Ugarteburu.

Falta dira: German Amurrio, Mariasun Akizu, Xabier Zabala, Esperanza Zulaika, Marta Valle, Arantxa Askasibar, Martin Linazisoro.

KIKAUNDI DENBORA LIBREKO TALDEA.

Astelehenetik ostiralera, eskolaurretik hasi eta 12 urte bitarteko haurrentzako ludoteka. Larunbatean, berriz, era guztietako jolas iharduerak.

Argazkian umeekin nahastuta agertzen diren monitorean izenak honako hauek dituzue.

Alex Azkarate, Arantzazu Murgiondo, Miriam Zabala, Alazne Pardina.

Falta da: Marian Umerez.





TAUN TAUNEN MUNTIAK

- IZUIKARA HARIPEAN. 1988.
- LAM ETA LOREA . 1989.
- BI KATE. 1990.
- TAUN-TAUN SHOW. 1992.


Argazki honetan ikus dezakezue Taun Taunekoek sortutako txontxongiloetako bat.

TAUN TAUN TXONTXONGILO TALDEA.

Pili Garzia, Karmele Perez, Nartxi Azkargorta eta Iñaki Matak osatzen dute. Zenbait lanetan Xabier Labaien, Carlos Odriozola eta Itxaso Azkaratek laguntzen die.

Txontxongiloak sortzen maisuak direla argi eta garbi erakutsi dute baita antzerki mundua ondo baino hobeto ezagutzen dutela ere.

Euskal Herri mailan bere lanean talderik aipagarrienetakoa dugu.



BERGARAKO PINTOREAK.

Argazkian ikus ditzakezue Ortonovon aurten bere lanak erakutsi dituzten pintoreak.

Makurtuta: Karlos Galarraga, Dani Laskurain, Riki Azkargorta, Juan Balentziaga, Luis Abajo (kultura zinegotzia), Bingen de Pedro, Abdon Juaristi, Ion Andoni Urisabel.

Zutik lehenengo ilaran: Jose Maria Agirre, Iñaki Iturbe, Jose Ramon Aiastui, Migel Okina, Mari Paz Alustiza, Santos Okina, Josu Okina, Francisco Leturia, Luis Laskurain, Jose Ramon Gantxegi, Pello Alberdi, Jesus Maria Garitano.

Zutik bigarren ilaran: Mikel Araiztegi, Antonio Arrillaga, Juan Jose Altuna.



POL-POL ARGAZKI TALDEA.

Argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

Jaime Garzia, Agustin Gurrutxaga, Miren Leturia, Alberto Eguren, Benito Cantero, Natxo Millan, Jose Aguayo, Patxi Retolaza, Dani Santos.

Falta da: Juan Tabares.

Urtebeteko balantzea:

Otsailean hasi ginen, bi orduko hastapen ikastaro bat emanez eta 43 ikasle izan genituen. Martxoan gau rally batean hartu genuen parte, argazkiak ez baitu ordutegirik. Apirilean, 34 partehartzaile izan ginen lehiari herri mailako diapositiba lehiaketan. 34 partehartzaile, ikaragarritzko marka!

Maiatzean, "**Bergara hiria**" argazki lehiaketa Euskadi osoan ere ospe haundikoa dela ikusi ahal izan zen argazkilaririk onenek bidali baitzituzten beren lanak gure herriko lehiaketa irabazteak ematen duen izena eta saridunek eskuratzen dituzten eskultura orijinalak lortu nahirik.

Uda ostean, Zaldibar, Elorrio, Ermua, Eibar, Soralue eta Bergarako taldeek antolatuta, "**Argazki bidez**" argazki rallyen lehen zirkuitua hasi zen. Bertan lortu dugun emaitza ezin zen positiboagoa izan. 8-10 herritako 50 lagun izan dira, batzaz beste. Saio bakoitzean 15en bat izan dira Bergararrak eta horietako 6 lehen hamarren

barruan sartu dira: 1., 2., 5., 6., 8. eta 10.

Azaroan, Udal Kirol Zerbitzuarekin batera bigarren kirol argazki lehiaketa antolatu dugu eta bertan 24 argazkilarik hartu dute parte, benetan maila haundia azalduaz.

Baina positiboena, parte hartu dugun hainbat eta hainbat herritan lortutako emaitza bikainak izan dira.

Sariak lortu ditugu, besteak beste, Legazpia, Beasain, Zaldibar, Gasteiz, Azpeitia, Martorell, Bartzelona, Elorrio, Gernika, Lesaka, Ermua eta Altsasun. Guztira, azarorarte, 32 sari lortu ditugu, 9 rallyetan eta 23 lehiaketetan, horietako 20 koloretako argazkiekin eta 3 zuri-beltzekoekin. Emaitza horiek garbi erakusten dute alde batetik koloretako argazkietan maila haundia dugula eta, bestetik, zuri beltzekoetan ikasi beharreko asko dugula.

Hori dela eta, taldeak zuri-beltzeko argazkiekin duen maila hobetzea da gure helbururik nagusia. Baina hori ezin dugu inola ere lortu behin betiko argazki estudio bat izan gabe, toki eta ordutegi aldetiko mugarik izango ez duen lokal bat lortzen ez badugu. Lokal hori lortzea da datorren urterako dugun helburu nagusia.



BERGARAKO ORFEOIA

Ezkerretik eskumara:

Lehen ilaran: Pidele Amenabar, Itziar Aranzabal, Kontxi Sañudo, Maria Luisa Orueta, Maritxu Berroia, Maria Angeles Larrañaga, Mari Kruz Ena, Josefina Laspiur, Pepita Altolagirre, Asuntxi Uribesalgo, Karmen Garikano eta Dolores Mujika.

Bigarren ilaran: Margarita Idarreta, Kontxita Narbaiza, Margarita Landa, Lolita Erdabide, Piedad Soria, Rosarito Larrañaga, Maribi Peña, Maritxu Arregi, Lolita Errasti, Elisabeth Arana, Karmen Egaña eta Gregorio Portu.

Hirugarren ilaran: Edurne Aranzabal, Miren Azkarate, Ramonita Agirre, Mari Kruz Urzelai, Maria Jesus Inza, Lore Larrañaga, Nati Garitano, Isabelita Narbaiza, Pilar eta Tere Berbelzu, Begoña Oiarbide, Kontxita Egaña, Asuntxi Peña eta Agustin Zabaleta.

Laugarren ilaran: Juste Amenabar, Asuntxi Idarreta, Karmen Oiarbide, Maritxu Erdabide, Mari Sol Garitano, Kontxita Etxeberria, Florita Idarreta, Margarita Orueta, Mari Tere Zabala, Maria Luisa Zabala, Miren Oregi, Pilar Berraondo, Bittor Gallastegi, Pako Valladolid eta Ramon Igartua.

Bosgarren ilaran: Inazio Oregi, Inazio Madinabeitia, Toribio Etxeberria, Jabier Lizarralde, Luis Belastegi, Felix Iñarra, Patxi Lamariano, Jesus Berroia, Bixente Bergara, Juan Etxaniz, Jabier Garate, Alberto Apreill, Daniel Arrieta, Marino Juaristi eta Manuel Larrañaga.

Seigarren ilaran: Higinio Agirre, Marzial Garitano, Markos Larrea, Eulogio Zabaleta, Juan Amilibia, Jose Maria Otazua, Klaudio Ayastui, Don Roman Oyarzabal, Tomas Garaioa, Dionisio Bolibar, Isidro Ibarzabal, Santos Alustiza, Bixente Azkarate eta Migel Moñux.

Zazpigarren eta zortzigarren ilaran: Genaro Suinaga, Donato Gallastegi, Jabier Linazisoro, Florenzio Alustiza, Pablo Gallastegi, Patxi Azpiazu, Juanito Urzelai, Esteban Juaristi, Sebastian Latorre, Agustin Linazisoro, Joakin Aranes, Antonio Peña, Migel Olaizola, Bixente Laspiur, Berbis Ezenarro, Franzisko Uribesalgo, Felix Aranburu eta Angel Unamuno.

Estepan Plazaola



ALTOS HORNOSEKO NESKA TALDEA

Zazpitik bederatzi urtera bitartean zituzten Altos Hornos aldeko neskatilok 1967. urtean, fotografoak eskola aurrean bildu zituenean, kuadrila horren oroitzapena betirako gordeta gera zedin. Eta bai dotore ere atera erretratatik! Horregatik, atzera begiratu eta orduko une haiek berriz goza ditzaten, urtekari honetara ekarri nahi izan ditugu: Hona beren izenak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Maria Victoria Solana, Pili Gallastegi, Koro Iraegi, Elena Villar, Maria Jose Tejada, Rosa Maria Fernandez, Arantza eta Kontxi Unamuno, Maria Jose Diez, Begoña Lazkano, Miren Irazola eta Amaia Lazkano.

Belauniko: Belen Zezeaga, Maria Eugenia Agirrezabal, Maria Jesus Marauri, Pili Olertza (?), Miren Aranzabal, Arantza Ormazabal, Lourdes Elkoroiribe, Arrate Azkarate-Askasua, Mari Karmen Agirre eta Beatriz Beistegi.

Jarrita: Mari Karmen Heras, Beatriz Solaun, Rosi Sebastian, Milagros Martinez, Arantza Peña, Edurne Arietaleaniz, Miren Aiastui, Pilar Murgiondo eta Eguzkiñe Loiti.

Estepan Plazaola.
ARGAZKIA: Mari Karmen Heras.



BIBEROIAREN KINTA

Hemen agertzen garenok 1920an jaiok gara, 18 urterekin gudaratuak. Gu izan ginana gerrara eramán gintuzten azkenengo kinta. Guretako askok bizarrík ez genduanéz gero, "Biberoiaren kinta" deitzen ziguten.

Donostiako "Caja de Recluta"tik kalea betean goazela, zenbait leihotatik, halako hitzak aditu ziren: "baina nora daramazkíte ume horiek?" Gutariko askok handik etorri eta gero etxean kendu genuen bizarra lehenengo aldiz.

Hara nortzuk garen, ezkerretik eskumara:

Lehenengo ilaran: Roman Uriarte, Pablo Mendibil, Matias Arranz, Tiburzio Gaitaonandia, Simon Agirrezabal, Basilio Unamuno, Roman Muguruza eta Bittor Beiztegi «Azkarruntz».


Bigarren ilaran: Ebaristo Gaztelu, Markos Elizondo, Tomas Belastegi, Balentin Eraña, Marzelino Ortega, Antonio Lopez, Martin Aranguren, Felix Loidi, Matias Igartua eta Bixente Lazkano, soinujolea.

Hirugarren ilaran: Marcos Umerez, Gregorio Muruamendaraz, Eusebio Beiztegi, Feliziano Lopez, Andres Alberdi, Matias Atorrasagasti, Bixente Okina eta Karlos Iñarra.


Laugarren ilaran: Jose Maria Zabala, Jose Maria Iñarra, Lorenzo Garitano, Jesus Egizabal, Felix Laskurain, Jesus Barrutia, Jesus Olaberria eta Felix Olaberria.

Bosgarren ilaran: Julian Arzelus, Donato Ibarguren, Pablo Ojanguren eta Patxi Larrañaga.

Roman Uriarte
Argazkia: Pablo Mendibil



ARGIA



euskal kulturaren urtekaria 1992

EUSKAL KULTURAREN URTEKARIA 92



EGUTEGIA 1993

ARGIAREN HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

(48 ale eta urtekaria)

IZEN-ABIZENAK

HELBIDEA

HERRIA

K.p.

HERRIALDEA

Tel

BANKU EDO AURREZKI KUTXA

SUKURTSALA

Sukurts. zka.

KONTU ZENBAKIA

HARPIDETZA SARIAK

Hego Euskal Herria: 10.300 pzta.

Ipar Euskal Herria: 685 libera.

Estatu espainiarra: 10.300 pzta.

Beste atzerriak: 13.450 pzta.

Airez: 21.300 pzta.

1992ko azaroak 22 - ARGIA eguna Euskal Herri osoan

ARGIA

KIROLA SHIATIK ROSERA TOBARAREN GORPILKAN

GIZARTEA NAFARROA TULANIK EGIN IRITEN

KULTURA O SAIOIARIKO UNIBERTSITATEAN

PERTSONAIK ESKER GAIZTOKO UNIBERTSITATEAN

PUNTAKO INFORMAZIOA ASTERO

GABRIEL ARESTI: «ITZALA EMAN NAHI DUENAK ARGIA HARTU BEHAR DU»

EUSKAL HERRI OSORAKO egiten den aldizkari bakarra

MEÑDE BATEKO TESTIGANTZA Aldaketa politiko eta kultural guztien ispila

LERRO INDEPENDIENTEA Informazio bizia zabal zorrotza eta zaindua

IRAKURLE UGARI CIES enpresaren arabera, 40.000 irakurlelik gora

DOSIERRAK

KRONIKAK

IRITZIAK...

ARGIA Industrialdea 1-2 pabilioiak LASARTE-ORIA 20160 Tel.37 15 45 Fax: 36 10 48



1963ko KINTOAK

Hona hemen 1963ko kintoak San Pedro aurrean Don Nikomedesekin batera elkartuak, denak ere korbata eta trajez ondo hornituak.
Hara zeintzu diren ezkerretik eskumara:

Lehen ilaran: Doroteo Parix, Burgos, Bizente Garzia, Julian Etxebarria, Jose Mari Ugarte, Antonio Agirrebeña, Jesus Ansola eta Jesus Ziarsolo.

Bigarren ilaran: Don Nikomedes Larrañaga, Luis Elorza, Juanito Olasolo, Jesus Urbina, Fernando Markina, Jabier Mendizabal, Emilio Gutierrez Juan Ramon Urisabel eta Ruperto Vicente.

Hirugarren ilaran: Felix Banesa, Juan Manuel Gauna, Felix Dominguez, Juan Karlos Mendizabal, Fernando Landa, Migel De Pedro, Jabier Solar eta Migel Angel Santxo.

Laugarren ilaran: Juan Mari Ruiz de Egin, Felix Jimenez, Pablo Biziola, Felix Biain, Jesus Ostolaza, Enrike Ramirez eta Isidro Garzia.

Bosgarren ilaran: Jabier Lizarralde, Jose Ramon Mujika, Jabier Beistegi, Xabier Amenabar, Alejandro Arroyo, ezezaguna, Jesus Mari Larrañaga, Dionisio Zubizarreta, Jabier Gabilondo eta Markos Gabilondo.

Estepan Plazaola
ARGAZKIA: Txaro Oteo



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

**Guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da,
profesionaltasun garbiko
bidean.**




Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresa-
gintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela.
Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta
aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak
kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun gar-
biko bidean.

Euskal Herriko Egunkaria

Zure Egunkaria



EUSKALDUNDIRIA
Egunkaria